


Jose Agustin Garziandia

**Garai bateko Unanuko
oiturak eta olgak**





Jose Agustin Garziandia

Jose Agustin Garziandia Gainza naparra degu, Ergoienako Unanua errian eta Barboneko etxean jaioa, 1946 irailaren 26-an.

Eskolak bere jaioterrian eta Legazpin egin zituen, eta emen urte askoan lanean jardun ere bai. Baiña erretiroa artu eta arrezkeroztik Iruñen bizi da.

Berez langillea danak beti billatuko du zer egin eta nun saiatu, denbora bete bearrezedo. Ala, bere jaioterriko oiturak eta olgak zer ziran idazteari ekin zion, eta liburu eder bat osatu.

Ergoiena baillara eta Unanuko erria euskeraren mugan daude. Andik ego aldera ez dago gaur egun gure izkuntza erabiltzen duen erririk. Ortik liburu onen meriturik aundienetako bat: euskera bukatzen dan erri bateko izkeraren eta izakeraren lekukotasuna ematen digula.

**Garai bateko Unanuko
oiturak eta olgak**

GARZIANDIA, Jose Agustin

Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak / Jose Agustin Garziandia ; itzaurrea eta argitaralpena, Antonio Zavala. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2004.

231 or. : argk., mus. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 289)

Aurkibidea

LG SS 769-2004. – ISBN 84-7907-455-8

1. Unanu – Usos y costumbres. I. Zavala, Antonio. II. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed. III. Título. IV. Serie.

39 (460.16 Unanu)

© Jose Agustin Garziandia

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 84-7907-455-8

Legezko Gordailua: S.S. 769/04

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Jose Agustin Garziandia

**Garai bateko Unanuko
oiturak eta olgak**

**Itzaurrea eta argitaralpena:
Antonio Zavala**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2004

Itzaurrea

Orain iru bat urte, Jose Maria Satrustegi euskalzain eta adiskideak telefonoz deitu zidan. Ez genduan orduan iñork pentsatzen beraren azkena ain gertu zegoanik. One-latsu esan zidan:

–Ergoiena baillarako eta Unanua erriko gizon batek, Jose Agustin Garziandiak, esku-izkribu bat ekarri dit, berak euskeraz moldatua, bere sorterriko oiturak eta abar adieraziz. Idazlan orrek, nere iritzirako beintzat, *Auspoa*-n izango luke lekurik egokiena. Bialduko dizut eta zerorrek pentsatuko dezu zer egin.

Andik egun gutxira iritxi zitzaidan korreoz esku-idatziz ori: letra txiki batez ongi betetako kuaderno bat eta orri batzuk. Ekin nion irakurtzeari eta bai gustatu eta argitaratzea erabaki ere.

Ala, aldi ontan nik neronek deitu nion Satrustegi zana-ri, zer asmo neukan eta Garziandia orrekin itzegin nai nuala esateko. Au bera etorri zitzaidan urrengo batean. Orduan alkar ezagutu genduan. Beraren idazlana argitara emango nuala esan nion; baiña denborarekin, aurreragoko beste zeregin batzuk esku artean baneuzkala eta.

Andik laster, albiste goibel batek jo gindun: gu bion adiskidea zan Jose Maria Satrustegiren il-berria. Bijoakio orri auetatik gure esker ona eta aitorpena, berak bitartekotza egin ezean liburu au etzan izango eta.

Beraren illeta-egunean, elizkizuna bukatu eta gorpuzari lur eman ondoren, antxe topo egin genduan Jose

Agustin Garziandia eta biok, gure lagunari azken agurra egitera joanak, eta itz batzuk trukatu ere egin genituan liburuari buruz.

Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak du liburu onek izena. Unanuko erria degu, izan ere, liburu ontako gaia. Ango oiturak, gertakizunak, lanak eta zeregiñak, festak eta kantak, penak eta pozak, gozoak eta mikatzak kontatzen dizkigu. Bertako bizilagunak orri-alde auetan agertu eta izkutatu bereala egiten dira; baiña erri ori da beti ere begien aurrean daukaguna. Orregatik, bera da, batere dudarik gabe, liburuaren gaia ez-ezik, protagonista ere.

Baiña *olkak* zer ote dira? Ez baita itz ori toki guzietan erabiltzen. Azkuek, bere iztegian, *olga* aditz bezela dakar, beraren ondoren *olgate* eta *olgau* ezarriz. Eta urrena, *olgeta*, *diversiòn* edo *chanza* esan-naiarekin. *Olgeta* itz ori Bizkai aldean erabiltzen dala banekian; baiña Napparroan *olga* itz arrunta zala ez. Eta orra or liburu onek neretzat izan zuan leenengo ustegabekoa.

Unanuko erria, izan ere, bazter samar egiten da euskal munduan. Berak, Dorrau eta Lizarraga erriak Ergoienako baillara osatzen dute. Lizarragako gaiñaren azpian daude. Gain orren alde batera Urbasa dago; beste aldera, Andimendia. Eta onen gaillur aundiena, San Donato edo Beriain, ipar aldera. Beeko zelaietan, belardi ederrak; mendimaldetan, pagadi bikaiñak; eta erpiñetan arkaitz tenteak. Edo, bertan esaten denez, *barga*. Eta mendi eta baso artean, iru erri oiek. Begiei gozatu ederra ematen dien ikuspegia da ori.

Erri oiek euskeraren muga-mugan daude gaur egunean. Andik ego aldera, Lizarragako gaiña igarota, erri euskaldunik ez dago. Antziñako garaietan gauzak orrela ez baziran ere, gure izkuntza ortxe bukatzen da gaur egun.

Edo-ta asi egiten dala ere esan genezake. Nundik nora begiratzten degun, alegia.

Orain urte batzuk, 1992 eta 1997 urtean, Lino Ayestaren bi liburu eman genituan argitara: *Gure izkuntzaren mugatik* eta *Ikusiak eta entzunak*. Lino Ayesta ori, Zeberiokoa ez-ezik, erri ortatik aruntzago dagoan Uriondo baillaran jaioa degu. Alde ortatik ere euskera an bukatzen da. Ortik liburu oietan leendabizikoari eman genion izenburua, liburu onentzat ere berdin balioko lukeana.

Gauza jakiña da, berriz, izkuntz-eremu baten saietsean dauden errietan itz berezi samarrak beti gordetzen dirala; besteetan galdutako itzak, bazter oietan oraindik bizi-bizirik irauten dute. Itz oietako bakoitzak ustegabeko bat ematen digu. Makiña bat orrelako aurkituko ditu irakurleak orrialde auetan. Nik, beintzat, orain ikasi det zer ote ziran *ibintziak*, *auntzia*, *estarbía*, *exetu*, *katola*, *momaxarroak* eta abar eta abar.

Egia esateko, ordea, itz oietako batzuk etzaizkigu ezezagunak egiten bazter samar dagoan erri batekoak diralako bakarrik. Bada besterik ere. Euskal Erririk geiena Kantabriako itxasoaren ixurian dago gaur egunean. Mediterraneoko ixurian, berriz, erri banaka batzuk besterik ez dira gelditzen euskeraz egiten danik. Ixuri oietan, berriz, nekazaritza asko aldatzen da batetik bestera, giro edo klima aldatzearekin batera. Gari-lanak, esate baterako, bizi-bizirik iraun dute oraintsu arte egoalde ortan. Orregatik, lan oietarako itz berezi samarrak baldin badituzte, ez degu batere arritu bear.

Ori orrela dala-ta, pentsakizun bat datorkit: edozeiñek dakianez, gure izkuntza garai batean askoz geiago zabalitzen zan ego aldera. Garia ez-ezik, olibadi eta maastiak lantzen diran lurraldeak ere bereak zituan. Orregatik, ere-

mu oietan izkuntza aldatzearekin, zenbat itz galdu ote di-
tu euskerak?

Ortaz gaiñera, lurralde oietako izkuntza zaarraren az-
tarrenik ez da ia gelditu. Toki-izenak eta ortik aurrera ezer
gutxi.

Ergoiena baillara ortatik ere gauza aundirik ez gen-
duan orain arte. Bertako jendeak euskerari gogotik eusten
ziola bagenekian, eta orregatik gure esker ona merezi zua-
la ere aitortzen genion. Baiña euskal literaturarentzat fru-
turik apenas eman duala uste det.

Or alde aundia izaten da, izan ere, lurralde batetik bes-
tera, naiz eta bietan izkuntza bera izan. Eta au ez da Eus-
kal Errian bakarrik gertatzen dana. Lurralde batean litera-
tura gutxi sortzen da; eta bestean, asko, naiz eta bietan iz-
kuntza bera izan.

Belardi baten konparazioa egin genezake. Goitik beera
belar berdez jantzita dago. Baiña puntu batzuk lorez bete-
ta ikusiko ditugu; eta beste batzuk batere gabe. Lurralde
batean ere izkuntza bera itzegiten da saiets batetik bestera.
Baiña ango erri batzuk literatur-emaitez apainduta dau-
de; eta beste batzuek olako dotoretasunik ez dute.

Mereziko luke ori nondik datorren aztertzea, gu orain
gai ortan sartuko ez bagera ere.

Ongi legoke, baita ere, mapa bat artu eta idatz-lanak
zein lurraldetan edo tokitan sortu diran markatzea. Ori
egiñik, izan ere, literatur-jeografia bat azalduko litzaiguke
begien aurrean, izkuntz-jeografiarekin ezberdin samarra
izango litzakena.

Ergoiena baillara ortatik ere literatura gutxi genduan,
orain artean beintzat. Bertako izkuntza nolakoa zan jaki-
ten etzan erreza, bertara joan ezean beintzat. Lurralde
ikusgarri ori literatur-emaizik gabe zegoan; eta orixe da

Jose Agustin Garziandiaren liburu onek egiten digun oparia.

Emendik aurrera badegu zer irakurri, denbora berean orko mendi, baso, zelai eta erriak irudipenaren begiekin ikusten ditugula. Esan degun literatur-jeografi ori saiets batetik zabaldu egiten digu liburu onek, gaurko euskera-
ren muga jo arte.

Bejondaiola, beraz, Jose Agustin Garzandia adiskidea-
ri. Euskal Erriari egin dion mesedeagatik gure esker ona merezi duala ez dago esan bearrik.

A. Z.



Egillearen gurasoak eta anai-arrebak.



Unanuko erria.

Asierakoa

Liburu onen aurretik ez naiz aztuko Jose Mari Satrustegi jauna zanarekin. Berarengana fan nintzan lenengo asmoarekin; eta, egia esateko, atsegin eta pozez egin zidan bere etxeko atea zabaldu. Bere euskera garbi ta politarekin, eta bere pazientzia aundiarekin, egia esan, ao zabalik gelditu nintzan.

Asi-asieran aurkeztu egin niona, nere pasadizo eta ibillera batzuk izan ziran kuaderno batean nola edo ala idatzita. Ez naiz sekula aztuko nola esan zidan:

-Zergatik ez dezu idazten zure bizia, mutiko koskorra ziñanetik asita? Ankako gaitza nola etorri zitzaizun, nola eramán zinduten Legazpira eskolara eta abar eta abar.

Egia esateko, bidean jarrri ninduan.

Geroztik, bere etxean askotan egon nintzan. Egia esan, atea zabalik neuzkan. Bein baño geiagotan erakutsi zidan bere liburutegi ederra. Ni, ura ikustean, arriturik gelditzen nintzan.

Baiña nai aña ez nintzan berarekin egoten, bere eguneroko agenda oso beteta eukitzen zuan-eta, naiz jubilatua egon.

Nere buruari askotan galdera egin diot: zergatik bialdu ninduan bere lagun Antonio Zabalarengana? Orain badaikit zergatik: lagun onek liburu-sail bat argitara ematen zualako euskeraz aspalditik, Auspoa izenekoa, eta Satrustegi jaunak nere liburuarentzat tokia ortxe zala argi eta garbi ikusi zualako.

Ala guztiz ere, arro nago bera ezagutua urbilletik; edo, esaten dan bezela, aurpegiz aurpegi. Goian bego Jose Maria jauna, eta eskerrik asko zure laguntza eman zenidalako.



Barbonekoa etxea, egillearen jaiotetxea, leen eta orain.


Ergoienako baillara

Badakit Unanuko erria 1504-garren urtean bereixi egin zala *Antigua Comunidad de Aranaz* ortatik, alegia. Etxarri-Aranatzen menpean egon zan urte ortaraiño; eta gerroztik onera Ergoienako balladan tinko iraun du. Iru errik osatzen dute Ergoiena ballea: Dorrau, Lizarraga eta Unanu. Ona nola dion liburu batek erderaz:

«El valle de Ergoyena está formado por los pueblos de Lizarraga, Torrano y Unanua. Antiguamente estuvieron unidos a la jurisdicción de la villa de Echarri-Aranaz, cuyo alcalde era de esta villa, aunque nombrado por los vecinos del Valle. En 1504, habiendo aumentado su población hasta el punto de tener más vecinos que Echarri-Aranaz, acudieron al Rey pidiendo una separación a causa del descontento general y escándalos que se sucedían contra la dicha villa. El Rey les concedió la facultad de nombrar anualmente un alcalde natural del Valle, que les administrase justicia, y que este nombramiento se hiciese por voto de la mayoría de vecinos, recayendo cada año alternativamente en un vecino de dichos lugares».

Gure arma-arria, berriz, onela da:

«El escudo es de azur y una roca en su cantón diestro, y delante de ella una león de plata pasante, partido de las insignias de Torrano y Unanua. La primera es de gules y una torre atalaya de oro con un pabellón desplegado a su costado derecho, cortado, azur, con el león andante de plata, la de Unanua en oro y un roble de sínople. Lizarraga usa el mismo glosón que el valle».



Unanuko armarria.

Ziur ez nago, baña badakit, jendeari adituta, antziñako garai aietan nola biltzen omen ziran iru erriak *Batzarramendi* izena duen leku ortan, beraien batzarrak egitera, jakiña. Eta justo-justo iru errien muga-mugan. (Garai batean basoa zan).

Orrengatik dator izena ere: *Batzarramendi*. Gero eztakit noiztik asita dagoen; baña Ergoienako batzar nagusiak, iru errikoak, Lizarragan egiten dira.

Unanuko gaiari aurrera egiñez, esan bearra daukat 1858-garren urtean 461 bizi-lagun omen zituen Unanuko erriak; eta 1950-garrenean, 327.

Emen esan leike eun urtez naiko ongi iraun zuela jendeak. Baña segidan etorri zan berakada izugarria: 1991-garren urtean 150 bizi-laguneraño jatxi zan Unanua. Emen ikusten da berakada nabarmena egin zuela erriak.

Eta gaur egun, 2004-garren urtean gaudenez, esan bearra dago ere berakada aundi xamarra nabaritzen dala. Ziur ez nago; baña, gutxi gora-bera, eun bizi-lagun biziko dira erri osoan. Or ikusten da azkeneko urte aietan ere beara egin duela nabarmen.

Otsarte edo Ondatz esaten diogun basoa bada. Neri esan didatenez, Ondatz gañeko bizkarrean, ezkerretatik, garai batean ba omen zan gaztelu txikiren bat edo antzeko zerbait; eta ango arriak Unanuko elizara ekarri omen zituzten sakristia elizakoa bukatzeko. Urte pranko izango dira, baña egia da, diotenez.

Eta Ondatzen dauden zelai eta basoarekin aurrera egiñez, jendeak esaten dute, eta emen eztago dudarik, San

Buenabenturako ermita bat izana dala, eta inguruko zelai oietan jendea bizi izandu dala, nai eta nai ez. Ondatz zelaiko garai bateko soroak asko esan nai dute; eta au bakarrik ezta.

Orain dala urte batzuk, auskalo zenbat milla tonelada legar atera ziran Sakanako autobiarako, San Buenabenturako zelai ortatik asita. Ermita ontara urbildu ziranean makinak, or nunbait agertu ziran jendearen ezurrak: illobi batzuk ederki tapatuta arri-losa zabal batzuekin. Nik neuk ikusi nituen; eta, lenago esan dedan bezela, zalantzarik gabe jendea or bizia izan dala.

Alde batetik, Ondatzko zelaiko soroak. Gero gañera, jendeak esaten zuenez, etxeren batzuk ere ba omen ziran. Eta au ere egia da. Nik neronek ikusi ditut tella-puska ugari baztar oietan; eta, auez gain, agertu ziran jendearen ezurrak illobietan. Zalantzarik eztago erriren bat bazala or garai batean.

Ondatzko soroak aipatu ditut lentxeago. Nere amak esan zidan nola Unanuko etxe geienak bazutela or bako txak soro bana edo geiago; eta, gañera, nola ibiltzen zituzten soro oiek. Nik neuk ere antza ematen nion nundik nora ziran soroak; eta gaurko egunean etzaio antzik ere ematen, ainbeste makina ibildu dira eta. Baña garai batean ederki nabaritzen ziran.

Nik eztet izagutu, baña badakit nola faten ziran prozesioan, Unanutik asita, San Buenabenturako ermitara meza entzutera; eta justo-justo izagutu nuen ermita zutik.

Gogoan det, bai, nola zan ermita, eta nola egoten ziran aziendak abaroan. Ordurako santu ta guziak ekarriak zituzten Unanura. Baña gero zutik ere gutxi irauin zuen.

Ortiz gañera, Diputazioko artxiboan irakurrita nago garai batean jendea nola etortzen zan Sakanatik, eta Ara-

kilko errietatik ere bai, senar-emazteak beraien umeak artuta San Buenabentura ermitara; eta iru buelta eman bear omen ziran umeak azkar ikasteko oiñez. Jende asko etortzen omen zan.

Mundiñanoko lurretan edo alde ortan ere berdin. Zer esanik ez dago, naiz urte asko izan, ziur nago zalantzarik gabe erri bat izandu zala or ere. Elizaren orma ederrak or daude, eta ondo-ondoan kanposantua; orrek asko esan nai du.

Artxiboetako paper zaarretan onela esaten da:

«La hermita de Nuestra Señora de Mundiñano fue en tiempos atrás Parroquia del lugar de Mundiñano, el cual se desplomó por haber ido sus vecinos a poblar el lugar de Echarri, y su dezmario se aplicó a su iglesia como territorio del término de Aranaz, como es cierto y dicen los testigos lo que supieren y hubieren entendido.

Item que por esto así el dezmario de la dicha Iglesia es y ha sido perteneciente a mi parte por serlo las heredades a los vecinos de Unanoa.

Todas las heredades y parajes fueron comprados por los vecinos de Unanoa o adquiridos por derecho de sucesión».

Nik ere jende askori entzun izan diot Etxarriko errira fan omen zirela bizitzera jende-mordo bat, eta beste asko Unanura. Estellara ere bai: fan omen ziran. Nik baieztatze-korik eztaukat ezer ere; baña badago Etxarrin kale bat *Mundiñano* izenarekin, eta nik uste det lotura edo zer iku-si egongo dala.

Gaia erabat aldatu gabe, badakigu Unanuko lurretatik pasatzen dela Lezitza ualdea. Jaio Txuittuen egiten da eta andik asita amabi kilometro luze ditu. Dorrautik barna pasa eta Unanuko lurrean sartzen da; eta Arbizuko erritik igaro ondoren, Burunda ualdean iltzen da.

Unanuko lurretan lau zubi baditu: lenengoa, Errotazarreko zubia; segidan, berealaxe, Dermiokoa, errotara eta Lizarragara doan bidean; bereala berriz Araitz-Aundira faten dan bidean beste bat, oso polita, arkoan; eta azkena, Unanutik jaisten dan bidean, Otsallatzekoa.

Amabi kilometro luze oietan, Unanuko lurretan badaude lau zubi, naiko ongi daudenak. Erri txiki baten-dako asko dira.

Eliza ere oso dotorea da, eta gañera ongi kontserbatzen da. XVI mendekoa da, eta gotikoa.

Ergoiena baillararak, esan bezela, iru erri ditu; Lizarraga, Dorrau eta Unanua, gaur egun ere zutik daudenak. Ustutakoak bi lenago aipatu ditut: Mundiñano eta Ondatz.

Baiña geiago ere baziran. Dorrau errian, Batzarremendi pasa eta bereala, San Juan ermitaren ondoan, mende aldera, Nenaio izenekoa, 1268-an. Ala agertzen da artxiboko paper zarretan. Gero, 1350-garren urteko *foguera*zioan ez da agertzen.

San Juan ermita ori oso ondo dago. Badu kanpoko aldetik ur bedeinkatuaren ontzia, beste inguruko ermiten antzera. Ermitatik oso urbil, Dorrau aldera, eskubira, orain dirala urte batzuk egin ziran almazen batzuk, eta zimenduetan agertu zan Erdi Aroko kanposantu bat.

Degollación de San Juan izeneko kofradia bada, Dorrauko gizon-mordo batek 1743 urteko Abuztuaren 17-an osatua. Kofradi orrek berrogei kofrade izan bear zituan; geiago ez.

Santo Tomas ermita, Dorrautik Unanua goazela eskubira bizkar batean dago gurdi-bide batetik joanda. Areitz batzuk ere badira, iritxi baño len; eta bide orrek Erbina du izena.

Santo Tomas ermita orrek kanpoko aldetik badu ur bedeinkatuaren ontzi bat, sarrerako atetik eskubira, ingu-

ruko beste ermitaren antzera. Aren ondoan, kanpoko orman, *estela discoidal* bat ikusten da.

Argi ageri da emen ere erri bat izan zala antziñako garaietan.

Santo Tomasetik eguzkia ateratzen dan aldera, or nabaritzen da kanposantu bat, illobiak oso ederki jarrita, bidea emanda eguzki aldetik mendebal aldera; eta sarre-rako atea, ego aldera.

Ortaz gain badakit Erbina abizenak XVII mendean Burunda baillaran ugari zirala, batez ere Altsasu alde ortan, eta Urdiañen ere. Badirudi kanposantuan dauden lurreratuak Ergoienako azken jentillak dirala. Illobiak oso aundiak dira, eta gizon-emakumeak ere bai.



Pedro Gainza, egillearen aitona,
amaren aldetik.



Andresa Godo, egillearen amona,
aitaren aldetik.

Urte Berri

Nunbaitik asi bear det nere lantxo au, nere asmo onarekin, eta asiko naiz urteak duen lenengo illetik: Ilbeltzatik.

Ilbeltzak 1, urte berri eguna. Egun aundia denendako ere, baña batez ere mutillendako. Oitura zegoen garai aietan, eta nik ere ala izagutu det, nola mutillak ibiltzen ziran etxez etxe, batetik bestera. Akordeona ere tartean izaten zan. Etxe batean igual urdaia ematen zioten, bestean berriz arraultzak; eta ola ematen zioten erri osoari itzulia.

Gogoan daukat ere mutillak, karriketari gora eta bera ibiltzen ziranean, nola esaten zuten geienak, etxe batera sartu baiño len:

–Urte berri eguna!

Eta mutillen atzetik nola ibiltzen giñen, baita ere, erriko mutiko geienak.

Erriari itzulia ematen ziotenean, Pilipeneko etxera biltzen ziran mutil denak, an baizegoen taberna, bildutako gauza guziak eramanez: arraultz, urdai eta abar.

Lenengo, bazkari on bat egiten zuten, umore onean, jakiña. Afaria ere egiten zuten, noski; eta urrengo egunean afariarekin bukatzen zuten festa, tripak ongi beteta.

Orrela pasatzen zuten garai batean Urte Berri eguna Unanuko mutillak. Bat baño geiago ere izaten omen ziran neurritik pasatzen ziranak.

Aspaldiko urte aietan, askotan elurra egiten zuen, erruz gañera. Urte batzuk baziran metrotik gora botatzen

zuen. Gaurko egunean gauzak asko aldatu dira. Aspaldi-ko urteetan elurra oso gutxi egiten du; eta, orrekin batera, oitura zar asko eta asko galdu egin dira.

Zergatik esan bearra dago. Unanuko erria, garai batean, oso aberatsa zan antziñako bertako oitura zarretan. Oraindikan ere batzuek zintzo irauten dute; esate baterako, bat *momoxarroak*. Jaungoikoak jakingo du noizkoak diran.



Jose Garzandia, egillearen aita.



Severiana Gainza, egillearen ama.

Elurra

Gogoan det urte bat –zazpi bat urte eukiko nituen gutxi gora– bera sekulako elurtea egin zuela. Metro t'erditik gora egongo zan gutxienez. Badakit nola egiten zituzten bideak elizara, errotara, leku guzietara; eta urrengo egunean berriz nola tapatu egiten zituen elurrak. Tellatuetatik ere gogoan det kendu bear izan zutela elurra. Oso gogorra izan zan urte ura.

Gogoan det, baita ere, sukaldeko kañua edo grifoa, urarena, izoztu egin zala, eta nola jarri egin bear zuten fregadera azpian sua, bere onera etortzeko.

Gañera, garai aietan jende guzia etxean izaten zan negua pasatu arte. Orregatik, neguak luze eta gogorrak izan arren, Unanuko etxe geienak preparatuta egoten ziran neguari aurre egiteko: ogia etxean egiten zan; iru edo lau txerri ere iltzen ziran etxe bakotxan.

Pentsatzen asita ere, bildurra edo ikara ematen zuten garai artako negu txakur aiek. Txistorra ugari ikusten zan teillatuetatik zintzilika baztarretan. Gaurko egunean zailla da orrelakorik ikustea. Eta, au gutxi ez balitz, erria aldapan egiña da eta karridak jendea zutik ezin egon zala egoten ziran.

Urte batean, gogoratzen naiz, eguraldi oso txarra zegoen: elurra, izotza, bisutsa, aizea bizkor... Eta, negua izanik, etxeak kaska-ezurreraño beteta egoten ziran aziendarekin. Geienbat, azienda gorria: idi, bei, beor; eta bai auntz eta ardi ere. Eta, esaten ari nintzan bezela, eguraldi txarra egiten zuen. Azienda iturrira ateratzen zan egunero ura edatera.

Atera egiten ziran, bai, idiak aurrean zirela; baña azkar artzen zuten denak buelta ziztu bizian etxera, ura progatu ere egin gabe. Kontuan artu nolako negu zorrotzak egiten zituen.

Mutikoen olga bat izaten zan elur-pilotakan ibiltzea, goiko karrikakoak bekoen aurka. Izugarrizko burrukak egiten ziran, etzegoen berriketarik, azkenean mutikoren bat fan arte etxera negarrez, miña artuta; eta orduan uzten zaion burrukari.

Ez naiz aztuko neskatoak eta neskixak ere gaizki ibiltzen zirela elur artean, Mutikoak, jakiña, neskatoekin sartzan giñen, eta beti bakarren bat erortzen zan zepoan. Izaten zan, alegia, neskari aurpegia edo musua garbitzea elurrarekin. Eta mutillak berdin, auek neskixekin, jakiña.

Gero ikusi egin bear zan nolako koloreak eukitzen zituzten batak eta besteak ere. Kolorez gain, aurpegia jartzen zan su ta gar. Etzuen oztzik denbora puska baterako. Neroni ere garbitu egin izan didate, eta badakit gero nola jartzen zan aurpegia.

Errege-bezpera

Mutillen errege-bezperako gau aundi ori gañean zego-
Men. Baña egun ortan bertan, goizetik, mutiko txikiak
zazpinaka edo zortzinaka ibiltzen giñen etxez etxe, erriko
denak pasatuz, urrizko bi makil luze artuta bi puntetatik.

Urte aietan, alegia, janak su bajuan egiten zirala, eta
lurrezko eltzea izaten zan ugari, kirtena eta guzi. Ederki
gordetzen zituzten erriko etxeoandreak egun ortarako
eltze potolo aiek.

Esan bezela, erriari etxez etxe buelta ematen zaion,
etxe bakotxan kantatuz:



Kix-kox,
bolla, bolla, bolla,
aquí estamos cuatro,
cantaremos dos:
Una limosnica
por amor de Dios.
Eltze, puchero viejo!

Eta bereala, denok batera, bizkarretik eta gerritik lotuta genituen panpaxilak edo txintxarriak astintzen genituen, *txin-txin-txin* egiñez.

Etxekoandreak gero eltze zarrak ematen zizkiguten, bereala kirtenetik makilletan sartzeko. Etxe geienetan gordetzen zuten eltze zarren bat egun ortarako, eta ola faten giñen, sartzan banaka-banaka, makilla bete arte. Bi maki-llak betetzen giñuzkien askotan.

Bitartean, gorputzean eramaten giñuzkien panpaxilak edo txintxarriak ederki astintzen genituan, *txin-txin-txin* egiñez.

Erriari buelta emandakoan, gure makil luze ori dena beteta lurrezko eltze oiekin, faten giñen erriaren goiko aldean eta Sandoroneko etxe ondoan dagoen uraren arketa zarraren gañera mutiko denok, eta an izaten zan festa. Asten giñen banaka-banaka eltze denak austen eta berreun puska egiten arketaren gañean, eta gero ondar guziak bidera botaz.

Eta, berriz ere mutilletara etorriz, egun aundia garai batean gañean zegoen. Esaten ari naiz: Errege bezperako gaua. Oitura au ere auskalo noizkoa dan. Urte asko ta asko iraun du, baña badira urte franko eztala egiten, zoritzarrez.

Zoritzarrez esaten det, zergatik nik uste det momoxarroekin batera oso antziñakoak direlako; eta momoxarroak izaten badira ere beste leku batzuetan, Errege bezperako

gau ortan, nik ez det aditu ere sekula iñon egiten diranik, gure errian bezela.

Alde batetik, orrek ematen dit pena, galdua izango dala, eta berrizkatzea oso zailla, eziñezkorik ez izan arren.

Bueno, gaua gañean zegoen eta aurretik mutillak *erregea* kartekin suertea bota egiten zuten: errege ezpata iru aldiz artzen zuena, edo tokatu, ura izaten zan urte guzian *errege*, eta denak baño geiago agintzen zuen: nolako musika ekarri, nundik eta beste gauza asko.

Eta -nola ez?- Errege-gaueko bilketa ori erregearen etxean egiten zan. Asteko, pasatzen zuten lista erriko mutil guziena. Gero, erregeak bi lagun artzen zituen, bere ondoan gau guzian egoteko. *Errege-laguntzalleak* esaten genien. Geienez, zarrenak izaten ziran: *txakur zarrak*.

Erregea erdian zala, eta beste biak ezker-eskubi zituela, manta batekin burutik jarrita, asten zan gaua beraien agin-duetara. Etxeko su bajuaren ondoan jarrita irurak zirela, ematen zaion asiera gauari. Tartean etxeko batzuk ere izaten ziran sukaldean. Baña oso gutxi: aita, ama edo aitona. Etxeko mutiko edo neskato txikirik ez.

Lena, egurra ekarri bear zan kanpotik, naiz etxean euki, eta ala egiten zan. Ekarri-ala txikitu, eta sua bikaña jarri bear zan sukaldean.

Ondoren, errege-erregiñak. Mutillei asten ziran otsegiten binaka, eta bietatik bat ispi faten zan, eta ola mutil denekin.

Bikote bati, adibidez, aginduko zien olako neskaren barruko arropa bat; beste bati, olako neskari musu eman bear ziola; beste bati, elurra ekarri bear zuela; beste bati, berriz, gauza zailen bat; eta beste askori, eziñezkoak ere bai. Larri eta estu ibiltzen omen ziran makiña bat, batez ere mutilletara sartu berriak. Oiendako ziran gauza bitxienak.

Esan bezela, mutil denak martxan jarri ondoren, asten ziran lenengo mutil-bikoteak sartzen erregearengana. Baña ezin sartu sukaldera baimenik gabe. Orretarako, ezkaratzatik eta sukaldeko atetik eskatzen zaion erregeari permisoa edo baimena, esanez:

–Erregien da erregiñen ordenarekin sartu diteke?

Eta orduan errege-erregiñak, segun nor ziran, artzen zuten erabakia. Batzuetan, lendabizikoan esaten zuten:

–Aurrera!

Beste askori iru edo lau aldiz errepikatu egiten zioten, esanez:

–Atzera!

Naiko komeri izaten zuten mutil gazteak.

Egun ortan etzan otzik erregearen etxean, batez ere sukaldean. Laratzen pertza aundi bat zintzilik zala, urren-go egunerako etxeakoandreaki lana aurreratu egiten zaion, naiko aza ta arbi egosita, mutillek ekarriak noski.

Eta, gaia aldatu gabe, Errege bezperaren gau ortan, badakigu denok nola jarri bear izaten zan erregeari leioan oñetakoa, zapata. Eztakit oitura zar au noiztik eta nundik sortua dan; baña ezta galdu mundu osoan.

Zer uzten zuten urte aietan eztago esan bearrik: kaja borobil eta politik baziran, barruan subea zutela, nik uste erriko gazte geienei uzten zigutena. Pozik arkitzen giñan, eta pena aundiarekin jaten genduen piskanaka-piskanaka. Gaur egun, eta ia aspalditik, gauzak guztiz aldatu dira: ordenadoretik asten dira...

Olga eta lan

Eztakit noiztik eta nola: baña erriko mutiko geienok, batez ere eguraldi txarra egiten zuenean, Txontxoneko etxera fan edo biltzen giñen. Nere gazte denboran oitura ori zegoen: batzuk sukaldean, beste batzuk estarbian edo ikulluan, beste batzuk berriz ezkaratzean.

Denok antxe biltzen giñen, mutiko-pilla bat, etxean bezela; eta, arrigarria bada ere, ez det gogoan asarre bat ere ainbeste mutikoren artean.

Neskatoak ere badakit beste etxe batera nola biltzen ziran mordo bat; eta auen olga nagusietako bat *kaispardioka* ibiltzea zan. *A la gallinita ciega*, erderaz.

Alegia, begiak tapatu bati trapu batekin, eta izagutu egin bear zuen arrapatutakoa, ikututa noski; eta, asmatzen bazuen nor zan, gero besteak egin bear zuen arek egindakoa.

Beste olga bat ere gogoratzen zait oraindik. Txikiak giñala, eskuko beatz txikienetik asita, gu baño zarragoak esaten ziguten:

Onek, arraultza erron;
onek suan patu;
onek gatza bota,
onek pixkat progatu
eta onek dena jan!

Amak edo beste edozeñek aurra soñean artuta onela esaten genuen:

Txingo, mango,
gure aurra nungo?
Ona bada, etxerako;
ta gaiztoa bada, kanporako!

Eta aurrera pauso batzuk egin, aurra besoetan artuta, aurrean zegoenari esanez:

-Turrutututu!...

Mutikoak, geienak, urte aietan bakazioak izaten genituen, Gabon aurretik artu ta Urte Berri eta Erregeak pasatu arte. Baña guretzako ere lana izaten zan etxean, adibidez.

Eztago esan bearrik, Unanuko etxe denetan zauden asko-gutxi aziendak: idi, bei, beor, ardiren batzuk ere bai, eta auntzak zeozer geiago.

Nere etxean, beintzat, mutikoak bagiñuzkean gure egin bearrak. Len-lena txangola bete egin bear zan agotzezazienda gobernatzeko gauean; eta ardi eta auntzentzako belarra txetu egiten genduen pastardan bertan, esporta bat edo bi, eta gero ganbeletan eta sarean belar ori jarri ongi, basotik etortzerako, txukun-txukuna.

Ardi ta auntz oiek belar ori jaten zutenean, ondoren banaka-banaka pentsua ematen genien; eta, azkena, *osto maixkilla* jartzen genien gauerako.

Udazkenean lizarrari eta aritzari kendu eta lotu egiten genizkien adar txikiak. Gero legortzen utzi pixka batean. Eta urrena lotu sokarekin, maixkillak egiñez, eta ori auntzai eta ardiei neguan ematen genien.

Auntza, antxumeak eta otsoa

Txikitan, neguko arratsetan batez ere, denok suaren ondoan giñala, ipui zar asko kontatzen zizkiguten. Gu ao zabalik egoten giñan. Onako ipui au orduan entzundakoa da.

Bazan bein auntz bat, bi auntsumerekin, bat txuria eta bestea ñabarra.

Egunero bezela, erriko auntzaiak eramaten zuten auntz-saldoa basora egun osorako, eta auntsumeak etxean gelditzen ziran, *meee-meee* egiñez. Baiña beren amak atera aurretik esaten zion bere bi auntsumeei iñori ez zabaltzeko atea bera etorri arte, eta bera etorriko zala: «adarretan ostotxo eta errapean esnetxo».

Alaxe, gelditzen ziran pozez eta saltoka bi auntsumeak.

Bazebillen inguruan otso gaizto bat, eta egun batean izkututik entzun zuen auntzak bere umeei esaten ziena; eta orra nola, ama joan ondoren, etortzen dan auntsumeen etxera, *kan-kan-kan* atea joaz.

Eta auntsumeak erantzun zioten:

–Nor da?

–Ni naiz amatxo, «adarretan ostotxo eta errapean esnetxo».

Eta orduan auntsumeak atea zabaldu zioten otso beltzari, ustez ama zalakoan, eta otsoak aokada batean irentsi zituen bi auntsumeak, eta bertan gelditu zan lotan, lodilodi eginda bere sabela, *puf-puf* egiñez.

Illunabar aldera etorri zan auntza bere etxera, egunero bezela, atea joaz, oi zuen antzera: *kan-kan-kan!*

Etzuen iñork erantzuten. Berriz ere: *kan-kan-kan!*

Alako batean, ots batzuk aditu zituen, urruti xamarre-ra bezela. Itxura txarra artu zion orri auntz gaixoak, gogoraturaz otso gaizto ortaz.

Ala, auntzak ateari bultzakada bat aundia emanaz sartu zan etxera, eta an zegoen otsoa lurrean etzanda lotan, barra-barra *puf-puf* egiten zuela eta bi auntsumeak sabelean zituela.

Auntszak, ori ikusterakoan, adarra sartu zion sabeletik otsoari, eta an atera ziran bi auntsumeak bizi-bizirik, pozez eta saltoka beren amarengana, *meee-meee* egiñez, denbora berean otso gaiztoa iltzen zalarik.



Pedro Gainza, egillearen aitona, bere Kalixto eta Lurdes billobekin.

Astoa, zakurra, katua eta oillarra

Etxe batean ba omen zan asto bat, lanean zaartua, ezer-tarako gauza etzana. Bizitza osoa zakuak errotara eramaten igarota, oso nekatua baitzegoen. Eta bein batean onela esan zion morroiak nagusiari:

–Asto au zaarregia da eta obe degu lenbailen iltzea, alferrik ematen diogu jaten eta.

Astoak, ori entzunik, etxetik iges egitea erabaki zuen. Bide luzea pasa ondoren, zakur batekin egin zuen topo. Zakurrak etzuen jaunka egiten eta oso triste zegoen.

Astoak galdetu zion:

–Zer gertatzen zaizu? Oso triste ikusten zaitut. Zergatik ez dezu jaunka egiten?

–Biar ilko nautelako. Oso zaarra naiz eta ez omen det eizean ibiltzeko balio.

–Zatoz nerekin –esan zion astoak–, eta zirko bat antolatuko degu errian.

Aurrera joan ziran bidean, elkarri kontuak esanez, eta etxe batera iritxi ziranean, katu bat ikusi zuten leioan. Katuaren aurpegi tristea ikusirik, onela galdetu zioten astoak eta zakurrak:

–Zergatik zaude orren illun?

–Gaur gauean zaku batean sartuta erre kara botako nautela entzun dedalako. Zaartua nago eta saguak arrapatzeko ez naiz gauza.

–Ez estutu orregatik. Gurekin eramango zaitugu eta zirko bat antolatuko degu iruron artean.

Orrela, bada, elkarrekin abiatu ziran irurak.

Iru lagunak oillategi batera iritxi ziran, eta oillar bat ikusi zuten, kukurruku egiten etzuen.

-Zer ari zera or kukurruku egin gabe -galdetu zioten.

-Ez det gogorik, biar eltzean sartuko naute eta.

-Zatoz, bada, gurekin -esan zioten- eta elkarrekin joango gera errira.

Bidean zijoazela, ordea, illundu egin zuen, eta basoan galtzeko bildur ziran. Alako batean argi bat sumatu zuten eta aruntz abiatu ziran.

Urbildu ziranean, etxe bat aurkitu zuten; baiña leioa goi-goian zeukan eta ezin zuten ezer ikusi. Orduan zakurra astoaren bizkarrera igo zan; gero katua zakurraren gaiñera, eta azkenean oillarra egaka katuaren buruan gelditu zan.

Oillarrak leiotik begiratu zuenean, lapur batzuk ikusi zituen, jan eta edan bitartean dirua kontatzen ari ziranak.

Orduan astoa arrantzaka asi zan, zakurra jaunka egiten, katua miauka eta oillarra kukurruka, lauron artean egundoko zarata ateratzen zutelarik.

Alako zarata entzunik, ikaratuta gelditu ziran lapurrak; eta, infernuko deabru guztiak etxean sartu ziralakokan, iges egin nai izan zuten.

Kanpora zijoazenean, ordea, astoak sekulako ostikoa eman zion bati; bitartean, zakurrak kozka egin zion beste bati ankan; irugarrenari katuak atzamarka aurpegian; eta azkenari oillarrak mokoka eraso zion buruan.

Beldurraren beldurrez, korrika joan ziran lapurrak, eta arrezkero etziran geiago etxe artan azaldu.

Lau lagunak pozik jan zuten lapurrak utzitako afaria, eta andik egun batzuetara, naiko dirua bazuten eta, zirko bat antolatu zuten errian, eta iñor baiño obeto bizi izan ziran.

Iru txerrikumeak

Bein batean, txerri bat eta iru txerrikume, basoan urruti, Bestalpetxo batean bizi ziran. Inguru artan animalia asko izaten zan.

Egun batean amak utzi zituen, eta joan zan jana biltzera, bere umeei kanpora iñola ere ez ateratzeko esanez. Baso artan otso gaizto bat baitzebillen, txerrikumeak jan nai zituena. Baiña zer gertatu zan egun artan? Ba, ama etzela etorri etxera. Orrela lau edo bost egun igaro ziran, eta ama etzan etorri. Orduan iru txerrikumeak estalpetxopetik kanpora atera ziran, jana billatzera.

Txerrikumeak jana billatzen ari zirala, otsoa ikusi zuten eta korrika estalpetxora abiatu ziran. Otsoa atzetik joan zan eta, onela esan zien:

–Ni ere sartu egingo naiz.

Txerrikumeak bildur aundi bat artu zuten, eta pentsatzen asi ziran. Batek esan zuen:

–Ba, nik etxe bat orbelarekin egingo det.

Besteak esan zuen:

–Ba, nik paperezkoa egingo det.

Eta irugarrenak esan zuen:

–Ba, nik ladrillu eta ondarrarekin.

Bakoitzak bere etxea egin eta an sartu ziran.

Urrengo egunean, otsoa etorri eta ate bat jo zuen. Etxea orbelezkoa zan, eta txerrikumeak esan zion etzuela aterik zabalduko. Orduan otsoak esan zion:

–Nik etxe oni *fuuu* egiten badiot, aizeak eramango du dena.

Ori esan eta *fuuu* egin zuen. Etxea eramán zuen aizeak, eta txerrikumea korrika joan zan bere anaiaren paperezko etxera.

Otsoa, berriz, aren atzetik. An berriro atea jo zuen, onela esanez:

–Zabaldu atea!

Txerrikumeak ezetz esan zion, eta orduan otsoak:

–Nik etxe oni *fuuu* egiten badiot, aizeak eramango du dena.

Ori egin zuen: *fuuu*; eta etxea aizeak eramán zuen, eta txerrikumeak korrika joan ziran beren anaiaren ladrilluzko etxera.

Otsoa berriro aien atzetik joan zan, eta berdín esan zuen: etxeari *fuuu* egin eta aizeak eramango zuela. *Fuuu* egin zion, baiña aizeak etzuen etxerik eramán.

Berriro *fuuu* egin zion, eta orrela iru aldiz; baiña alpe-rrik. Azkenean, otsoa nekatu egin zan.

Otsoa goseak zegoen. Orduan pentsatu zuen tximinitik sartzea. Baiña txerrikumeak pertz aundi bat jarri zuten bean ur bero-beroarekin; eta, otsoa an erori zanean, ipur-dia erre zuen eta ito egin zan.

Orduan txerrikumeak kantatu egin zuten:

*Ya se ha muerto el lobo feroz,
el lobo feroz, el lobo feroz....*

Ez-izenak

Egun batean, emen Iruñan bertan izketan ari nintzan lagun batzuekin euskeraz. Lagun oiek Unanukoak dira, naiz-eta orain Iruñan bizi diran.

Alako batean, urbildu zitzaigun guregana emakume bat, urtetan gora zijoana, eta onela galdetu zigun:

–Nongoak zerate?

Antzeman zigun gure izkerarekin nongoak izango giñan.

Nik erantzun zion:

–Unanuarrek. Eta zu nongoa, jakiterik baldin badago?

Berealakoan, irripar egin eta onela erantzun zigun:

– Etxarrikoa.

Asi giñan izketan berarekin eta orrela esan zigun:

–Badakizute Arbizuko jendeari nola esaten genion guk, txikiak giñala?

–Nola?

–Arbizu, mukizu. Eta Unanuarrai?

–Unanuarrai nola?

–Unanuarra, zata aundi.

Eta nik segidan erantzun nion esanez:

–Eta Etxarriarra, kinkur aundi.

Eta ori esanda. parrez egon giñan denok puska batean.

Guk kinkurra esaten degu; baiña badakit toki askotan zintzurra esaten dutela.

Eskola

Gaia aldatuz guztiz, eskolara ere txintxo faten giñala esan bear det.

Goizean jaiki eta amak edo arreba zarragoak musua garbitu, orrazitu, ondak eta guzti aterata, eta txukun-txukun faten giñan, aurretik kafe-esnea zopakin artuta. Kafe utsa ere zopakin makiña bat artu degu, eta oraindik geiago auntz-esnea.

Nere arreba zarren ori, Jero (Jeronima) izenez, esan dezaket, senideetan iru mutiko giñan txikienak, eta guretzako bigarren ama bezela izandu dala.

Eskolan gogoratzen naiz mutikoak alde batean eta nekatoak beste aldean nola egoten giñen, txikienak aurrean zirala.

Izagutu dituten maisu den-denak erdaldunak ziran, eta erdera utsean erakusten ziguten; eta bazan maisu bat zigorrarekin jotzen ziguna beatz-puntetan.

Beste gauza bat, eskolan au ere: kanpoko agintariren bat edo errikoa sartzen zanean eskolara –errejidorea, on-tzenanteak edo beste edozein agintari–, zutik jartzen giñen neska ta mutiko guziak.

Arestian esan dizuet eskolan erdera utsean erakusten zigutela; eta elizan, berriz, alderantziz: den-dena euskeraz, gure izkuntz polit eta garbian.

Gure Jauna artu egin genduenean lendabiziko aldiz, dotriña dena euskeraz ikasi egin ginuen. Berandu faten zanak, kaskarreko ederrak jasotzen zituen.

Nik uste egoera ontan zaudela Barrankako –orain Sakanako– erri geienak: eskolan erdera utsean eta elizan euskeraz.



Jose Agustin Garziandia eta bere anai Jesus Mari eskolan.

Beste olga batzuk

Berriz itzuliko naiz oitura zarretara: neska eta mutikoen **Olgak**.

Mutillak eta mutikoak ere, neskekin konparatuz, askoz geiago zaukien denbora nun eta nola pasatu, bai neguan eta bai udan ere.

Adibidez, mutikoak, lenago orri batean aipatu detan bezela, Txontxoneko etxera biltzen giñen, mutiko-pilla bat; eta or aspertzen giñenean, batzuk *a potes* asten giñen; beste batzuk *arrapakan txuloa*. Au, batez ere, naiko gogorra izaten zan. Neskak ere ibiltzen ziran; baña *a potes* geiago.

Gogoan det nik, *arrapaka-txuloan* ari giñela Bikaioneko larrañean, alako batean sartu nintzan eskuarekin ikutzera; baña gogor samar, eta buruarekin jo nuen arrizko orma bat, sekulako irekia buruan egiñez. Negarrik ez nuen egin, gogorra bainintzan; baña odola franko bota bai.

Illunabarra zan ia. Ala ere, Lizarragara eraman ninduten nere arreba zarrenak eta beste onen lagun batek. An baizegoen Ergoienako medikua. Jarri zizkidaten lau edo bost puntu, eta gauez iritxi giñen etxera.

Beste olga bat, mutikoena, elurra egiten zuenean, eta asko gustatzen zaiguna, elurretan ibiltzea zan, eta elur morellak bueltaka egitea, bola aundi bat osatu arte, naiz gero etxera fan otzak bustinduta.

Elurra aipatuz, bagenduen txirrinta ere txoriei zepoa jartzen etxe inguruan. Baña ontan mutikoak etziran baka-rik; mutiko etziranak ere badakit majo saiatzen zirela.

Elurrarekin jarraituz, 1970-garren urte oietan erbi asko izaten zan. Baña lan au mutillena zan. Bakarren bat edo beste botatzen zituzten, tartean basurderen bat zala. Gero tabernan etzan giro.

Ola pasatzen zan negua poleki-poleki, batez ere gogorrena, aste santua edo garizuma sartu arte.

Gaia guztiz aldatuz bein eta berriro, erri osoan oitura aundia zegoen neska eta mutikoen artean, baña zerbait geiago neskatoetan, eskuko beatzak dirala olgatzen ibiltzeko, banan-banan esanez:

Isabela, Mandubela,
Katalina,
veinte, turrente,
zipi-zipitón,
Martin zapatón,
kañabera, kañabera,
lau tirritón,
tortilla, gurutze,
eroriko Santo Gurutze...

Orrela ere esaten genuen:

–Pin, pin, zarramata pin.
Debajo de la cama está Martin,
tocando la guitarra y el firulín.

Bai beste au ere:

Txixta, mixta, organista,
emen ez badago emen dagola
erdi-erdian Billafrankan.

Gero, beste olga bat asteko, zeñek *eño* egin, (*hacer la vez* erderaz), onela esaten genuen:

*Don, don, saalon,
Don berrenta re-que-són.*

Baita ere , neska eta mutiko asko olgutzen giñan –nola ez?– eliz-atarian. Azpi aldean, Lizarragako aldetik, dagoen pareta edo örman irudi margotuta edo markatuta daude. Ordu asko ta asko pasatuak gera, bakotxak iruna arri koxkor artuta, zeñek irabaziko.

Gaurko egunean uste det nabaritzen dirala oraindik ere, olgatzeko eta denbora pasatzeko jarrita dauden dibujo oiek.

Karakolari, berriz, orain gogoratzen naiz, onela kantatzen genion:

*Caracol, miriacol,
saca los cuernos y vete al sol!
Ire ama, ire aita,
adarrak ez badituk ateratzen,
aizkorarekin lepoa moztu!*

Makiña bat iltzen genituen

Beste olga bat, eta –nola ez?– mutikoena bakarrik au ere, Ondatzen dagoen Otsarte inguru ortan egiten genuen, eta zan *Errapezuriko irrista*. Arriskua dexente zuen miña artzeko; baña, ala ere, an ibiltzen giñan, buru eta belaunak urratu arte.

Makilla sendoa bear izaten zan, goiko tontorretik asi ta irristaka beko zuloraiño jaisteko. Ziztu bizian jaisten giñan, makilla eta oñetakoen gañean; eta askotan, bear baño lenago.

Bide erdian izaten zan oztoporen bat edo beste, eta ankaz gora faten giñan, abiadura galduta, inbuluzketan, beko zuloraño. Esan bezela, belaunak eta ukalondoak majo odolduta geratzen zaizkigun. Kentzen zizkigun gogoak egun batzuetarako.

Eta, ori gutxi balitz, pantalon motxak izaten genituen, jakiña; eta, esan bearrik eztago nolako pasada artzen zuten, eta gero etxean komeriak izaten ziran.

Txerri iltzea

Bakarren batek, eta bearbada geiagok ere, negua asi baño len iltzen zuten txerriren bat, ez oso aundia.

Ortarako, aurretik, fatxi -fagoak ekartzen duen frutua- edo ezkur-urtea baldin bazan, basora eramaten ziran. Aurretik osatu egiten ziran, bai ordots eta ardi. Ardia txerri emea da. Gero, txerriak basoan edukitzeko txabola egiten zan leku aproposalan, beti arbolaren ondoan. Garai batean, Unanuko basoan makiña bat zotola ikusten zan baztarretan.

Gogoratzen naiz nola faten giñen pentsuarekin asierako egun aietan, eta nola zotoletik otsegin edo garraxi batzuk egiten genizkien txerriei, eta nola etortzen ziran alako batean zitzu bizian denak zotol-atakara. Auskalo nundik asita, baña etxeko jendearen itza edo otsa azkar izagutu egiten zuten.

Ezkurrarekin gizendutako txerriak, il baño len, egun batzuk aurrerago, etxera ekartzen ziran, basoko gustu ori kentzeko artoa naiko emanez egun batzuetan. Oroitzen naiz arto-porkak zintzilika nola egoten ziran ezkaratzean, eta nola lagun bat baño geiago aritzen giñen arto-buruak bikortzen, ez gutxi gañera.

Bueno ta eguna gañean zegoen. Etxeko aideei abisatu, esanez dena prest zegoela. Txerriak badakigu eidan egoten zirela, eta batez ere iltzeko daudenak, garbi eta legor. Eta, ortaz gain, egun bat aurretik baraurik gutxienez.

Ezkaratzean botatzen zan lurrean arto pixka bat; txerriei otsegin eta bai etorri ere azkar. Denok lasai; eta, lena, txerri



Txerri iltzea, Altsasun.

iltzalleak jo bear zuen kolpea, eta gero besteak indartsu eldu eta bota maira; eta, odolez ustu arte, egon egin bear.

Ondorean, karrikara atera eta erre egin bear zan ongi, eta urrena berriz garbitu gatz eta ur beroarekin, eltzeko taparekin arrotuz bikain.

Ondoren gero, etxera ezkaratzera sartuz, mai gaiñera, eta bereala zabaltzen asten ziran, leparraia kenduz lena, eta gero gibelaren gañean egoten dan basarea, eta gero ondorengoak.

Txerria dena garbitu ondoren, soka batekin muturra lotu ederki, eta zurezko aga batean uzten zan zutik, urren-go eguneraiño serenoan, ezkaratzean bertan.

Txerria il da progatu gabe ezin egon. Gogoratzen naiz, nere etxean beintzat, nola gure amak jartzen zituen ederki egosita babak; gañean, ogi-zopa batzuekin eta gaña ezin obearekin. Oraindik, pentsatuta ere, aoan ura egiten zait, egia esateko. Olako otordu goxoak... Eta urrena txerrikoa, jakiña: leparraia goxo-goxo, loreak, gibela barra-barra, eta gero gerokoak.

Mus-partidak ere izaten ziran noski, gaua etorri arte, denen artean. Aditzera badut, etxe batean ustez txerria ilda utzi, ta txerriak gero alde egin, eta jendea larri ta estu, bixikeria besterik ez bada ere. Eta, beste etxe batean, txerria ilda emen ere, baña odol-tanta batzuk bakarrik ateratakoak.

Gaurko egunean, 2004-garren urtean gaudenez, eta gaiñera badira urte franko, apenas iltzen dan txerririk. Nik uste, erri osoan iltzen diranak, esku bateko beatzekin konta leizkela. Gauzak asko aldatu dira, leku guzietan bezela, eta ontan ere zer esanik ez.

Garai artako urte aietan, etxe bakotxan iru edo lau txerri iltzen ziran gutxienez; eta nola naikoak etziran izaten: ordots galantak eta apote asto añakoak.

Baña txerri iltze onekin ezta bukatu dena oraindik. Urrengo egunetan, sekulako lanak egiten zituzten emakumeak. Lena, tripotak egin; gero, lukeinka eta birikak; eta, azkena, txerria puskatu den-dena, eta gatzean jartzen zuten.

Tripotak egin bezin laister, oitura zegoen urbilleneko aideei zerbait ematea, eta orixe egiten genduen. Amak jartzen zigun, zare txiki batean, bai tripot, gibel eta zerbait geiago ere; eta, esan bezela, aideen etxeetara eramaten giñuzkien. Gero, auek ere berdin egiten zuten noski.

Garizuma, Aste Santua, Pazko

Negua aurrera fan arren, laister sartzen giñen Garizuman eta Aste Santuan. Garai artako Aste Santuak, gogoratzen naiz nola zintzotasunez ospatzen ziran. Eliza, asteko, gañezka jendez; gero, beste alde batetik, elizan aldarea eta santu guziak beltzez jantzita edo estalita.

Orrez gain, aparte, Unanuko elizak bazuen *monumentua* esaten geniona. Aldare aurrean jartzen zuten, oso dotorea, soldaduak eta guzi, bi ollar ezker-eskubi zituela. Esan detan bezela, dotorea, eta asko jantzitzen zuen eliza.

Jendea erruz faten zan Aste Santuko elizkizunetara, argizaria edo belak eskuan artuta.

Ezkillak ere etzuten dandakorik jotzen egun batzuetan. Karraken txanda etortzen zan segidan. Mutikoak gustora ibiltzen giñen karriketari gora-bera, karrakak joaz.

Meza santua ere, sakristaua aurrean zala mutiko-pilla batekin, karrakakin jotzen zan, karrakak gora eta bera, eta denok batera esanda:

–Elizara, mezara!

Ordu laurden batera, berriz ere karriken ota, elizara deituz. Mutikoen zoramena izaten zan karrakakin ibiltzea, ez bakarrik meza jo egin bear zalakoz, baizik gero egun osoan majo joaz karrakak.

Elizan, esaten ari nintzan bezela, elizkizun asko zauden, ostegun santu egunetik asita. Orduan, gogoratzen naiz, eguerdi arte egiten zan lana, eta gogoan dauket nola etortzen zan sorotik jendea zintzo.

Urte gutxi eukiko nituen neuk; baña gogoratzen naiz egun batez edo biz nola egiten zituzten *teneberak*. Ez dakit itz ori nundik datorren eta zer esan nai duen. Baña bada-
kit elizako alkiak majo mogitzen zituztela gizonak baka-
rrik.

Kalbarioak ere oso sentimentalak izaten ziran. Kalba-
rioak aipatu ditut, eta ez naiz aztuko Areitzaundira egiten
zirela garai batean, elizatik asi ta bide guzian, eta bideko
gurutz denen aurrean geldituta, jakiña. Orrela eltzen zan,
esan bezela, Areitzaundira, eta an ematen zaion bukaera
kalbario santu ederrari.

Elizan bertan ere egiten ziran santuekin prozesioak
bikañak; eta -nola ez?-, eguraldiak laguntzen bazuen,
karrikan, gure argizari edo belak ixeginda edo piztuta.

Aste santuko egun oietan, urtero ekartzen zituen erri-
ko apezak kanpotik fraileak, jendea konfesatzeko alegia,
Pazkoz egiteko, geienbat gizonak.

Mutillak etxez etxe ibiltzen ziran eskean, akordeona
eta guzti, eta onela esateko oitura zuten:

-¡Pascua en amores!

Beste oitura zar bat ere Pazko egun oietan egiten zen:
eliz-atarian ikaragarritzko zalaparta izaten zan, erriko
neska eta mutikoen artean, sakristaua asten zanean *olatak*
(ogi bedeinkatua) partitzen edo banatzen.

Esan bezela, an zan zalaparta, denok elkarren gañean,
bakotxak bere *olata* eskuratu naian etxera eramateko.
Ilusio aundia egiten zuen.

Meza nagusia

Ni txikia nintzala, elizarekin zer ikusia duen gauza askoz gogoratzen naiz. Esate baterako, nolako meza nagusiak entzuten ziran, latinez jakia. Meza nagusian etxe geienetatik bazan bat edo beste.

Oraintxe bertan ikusiko nituzkien bezela dauket erriko aiton aiek nola kantatzen zuten, dotore gañera. Solfarik etzuten, baña zoragarria izaten zan aiei entzutea, bai mezan eta bai pezperetan ere, aitonak eta gizonak asten ziranean kantaz gora-gora...

Asko da esatea, baña elizak nabari zuen dardarka zegoela. Biktoriano sakristaua ere etzan makala, beste gizon batzuekin batera. Oso sentimentu aundiz kantatzen zuten, zaukien guztia emanaz, den-dena latinez.

Meza bukatuta eta denen artean, aitonak buru zirela. kantatzen zan *Salve Regina*. Oso sentimentala izaten zan.

Elizarekin edo mezarekin aurrera egiñez, oitura batzuk badaude aipatu bearrak, oso antziñakoak. Bat da, mezaren erdi aldera zillarrezko santu baten irudi bat nola pasatzen zala, eskuz esku, musu emateko. Ia aspaldiko urteetan utzi zaio oitura orri.

Baita mezakoan ere pasatzen zan ogi bedeinkatua saski batean. Oitura onek oraindik irauten du. Apezak meza aurretik bedeinkatzen zuen ogi ori, dena puska txiki-txiki-tan eginda.

Gizonak artzen zuten lendabizi, alkatearengandik asita. Gero, or egoten giñen mutikoak noiz etorriko zan,

pusketa bat baño geiago artzeko. Emakumneak, berriz, etxera ateratzerakoan artzen zuten, alki baten gañetik, ogi bedeinkatu ori. Jan baño len, aitaren egin bear zan ogiarekin, eta gero musu eman.

Unanuko elizan, beste askotan bezela, gizonak aurre-aurrean jartzen dira; atzetik, mutikoak; eta gero, atze-atzean, andreak.

Garai batean, beste leku askotan bezela, andreak sillak eukitzen zituzten. Baña Unanuko elizan egin ziran alkiak denendako. Ala ere, emakumeak badute oraindik ere bere lekua. zuten etxearen izenarekin, eta jendeak errespetatu egiten ditu.

Beste bitxikeri bat etorri zait burura, au ere elizarekin zer ikusia daukana. Mutillak, beti eta beti, meza asitakoan sartzen giñen barrura, denok banaka-banaka, eta gañera ziztu batean, eta geienez korura.

Lengo denborako aitonak aipatu ditut aurrerago, eta etorri zait burura aien irudia, zein txukun eta dotore jantzitzen ziran, ez bakarrik elizara mezara fateko, bai tabernara ere, batez ere urteko jai aundi oietan: traje beltza, ator zuriarekin, txaleko eta guzi; eta buruan txapela zutela.

Dirua etzuten ibiliko poltsikoan asko; baña, ala ere, baso bat ardo, edo bi ere bai, edateko, Pilipineko tabernan antxe biltzen ziran, len esan detan bezela, danon artean pinta erdiko bat ustuz.

Sekulako giroa egoten zan. Umorea eta berriketan ari-zeko ere bai. Beti izaten zan bakarren bat illea artzen ziotena. Musean ere majo aritzen ziran.

Bonbatxoekin ere ibiltzea oitura aundia zegoen; eta, gañera, etzegoen gaizki ikusita, garai artan. Jende asko ikusten zan, bonbatxo urdin oiek jantzita.

Gogorutzen naiz nola egin genduen mutilen artean, broman asita, apustu bitxikeri bat; eta zan erriko mutil guziak gorbata jantzita fatea meza nagusira igande batean.

Bai fan ere, denok gañera. Uste det etzuela utsik egin iñork ere. Larri ta estu ibili bai bat baño geiago, gorbataren korapilloa ezin asmatuz.

Baña, esan bezela, moldatu giñan ala-ola; eta, len esan detan bezela, denok sartu giñan elizara gorbata jantzita. Ori bai: gero gutxi iraun zuen lepotik zintzilika.

Izandu ziran, bat baño geiago, etxera allatu baño len kendu zutenak; eta ondoren etzaion ikusten iñori jantzi-ta...

Baña egun artan, bitxikeria bada ere, apustua etzuen galdu iñork, baizik denok irabazi.

Su bajuaren bueltan

Neguairekin aurrera jarraituz, erriko etxe askotan, eguraldi gaizto aietan, oitura zegoen patatak jateko, su bajuaren erreta, noski.

Antxe egoten giñen etxeko denak, suaren bueltan-buel-tan, aurreko aldea ongi berotuz eta kiskaltzen, anak auntximez bete eta more-more eginda, eta atzetik otzak akaatzen.

Orrelaxe ziran garai artako sukaldeak. Sukaldeko atea isten bazan, kea egiten zan.

Oroitzen naiz nere aitonak, eta aitak geiago, nola jar-tzen zuten suan eltze bat ardoarekin; eta, epeldu edo berotu egiten zanean, nola botatzen zioten ikatz-pusketa bat su ta gar ardoari; eta ondoren ogi-pusketa gogorrak ere bai. Oso ona zan, eta mutikoendako ere ondarren bat izaten zan.

Burura etorri zait, ardoa aipatzean, nola bialtzen niñuen amak tabernara, ardo eske, zatoarekin, arraultz baten truke.

Orduan dirurik etzan etxeetan, eta orrela ibiltzen zan jende asko ta asko.

Garai artan baziran lau taberna Unanun. Asko, erri txiki batendako. Baña urte franko iraun zuten lauak ere. Erriaren bizi-lagunen beerakada asi zanean nabaritzen, tabernak ere banan-banan itxitzen asi ziran.

Gaur, 2004-garren urtean gaudenez, badira ia urte asko taberna bat ere eztagoela Unanun. Urte batzuk aurretik,

erriko jendeak, erriko auzoa zan leku batean egin zuten *Soziedadea*, oso ederra ta atsegiña. Egia esateko, inguruan izagutzen dan bikaiñenetako bat.

Momoxarro txikien eguna

Negua aurrera zoan, eta gain-gaiñean zauden Ioteak, eta auekin batera Momoxarroak, batzuk poz aundiarekin ospatzeko, gazteak batez ere, beste batzuk ez orrenbeste.

Badakigu geienok Unanun Momoxarroak bi egunez ateratzen direla: lendabizi, mutiko gazteak, eta gero mutilak. Mutikoak, amabi-amalau urtekoak gutxi gora-bera, ateratzen ziran garai batean; eta gaurko egunean, mutiko gutxi daudenez, al dan bezela ibiltzen dira. Mutillak ateratzen diranean, asteartez, ongi moldatzen dira oraindik.

Momoxarro txikien jokaera umillagoa da, aundiekin konparatuta, bai garai batekoak eta gaurko egunekoak ere. Zergatik? Mutikoak beti mutiko direlako, eta zarren maisutasunik ez dutelako. Baña, ala ere, berak baño gazteagoei ikara eta bildurra majo sartzen diete, gaizkirik egin gabe.

Gañerakoan, jantzi ere berdin egiten dira, Momoxarro aundiak bezela, zigorra eta guzti. Aspaldiko urte aietan, *Boteroa* ere ibiltzen zan, bere zato aundiarekin. Baña, alde-rantziz, *Mutuak* txikiekin etziran ateratzen. Bestela, egun oso polita eta alai izaten da, gañera igandez izatean.

Esan bezelaxe, gaur 2004-garren urtean gaudenez, zintzo irauten du oraindikan; beti eta beti izagutu dan oitura zarrenetako bat. Naiko lan izaten dute zortzi edo amar mutiko biltzen erri osoan. Baña nik uste urte makurrenak fan dirala, eta esan leike itxaropena badagoela, eta bera baño geiago gora egingo dute Unanuko Momoxarro ospetsuak.

Esate baterako, garai aietan errikoentzako izaten ziran Momoxarroak. Etzien iñork ematen garrantzirik. Baña ia urte franko badira telebistan agertzen direla, egunkarian ere bai argazki ta guzti, eta ikusmin aundia sortu dute Unanuko Momoxarroak.

Batez ere aundien egunean, jende asko etortzen da kanpotik, fameli osoak; eta, naiz garai bateko bildurtasunik ez eman, makiña bat neska-mutiko ikusten dira negarrez.

Eguna allatu baño len, Unanuko andreak txukun eta garbi eukitzen zituzten arropa edo jantzi guztiak momoxarroendako: asi garai bateko aitonen kantzonzillo zuri-zuri aiek, goitik asi ta beraño pieza batekoak; gero, artillezko galtzak; pañueloa, burua estaltzeko; gerrikoa ere bai, garai bateko trapuzko beltz aiek; gorriren bat ere bazan; gero, zata edo abarka txabalak, eta zulkonezkoak ere bai.

Gauza guzti auek prest eukita, gero mutillen lana izaten zan. Mutillak bazakiten zer etxetan eukitzen zituzten *panpaxilak*, eta ori zan oien lana: biltzen asi al dan geiena; eta *katolak* (aurpegia estaltzeko *maskarak*) berriz nolabait gordetzen zituzten. Urtero zaku batean sartu ta urrengo urtean dena prest zegoen.

Badakigu denok momoxarro txikien eguna igandez izaten dala, beti bezela; baña aspaldiko urte aietan oso ezberdiñak ziran, naiz eta gogo eta amurrazio geiagorekin atera lenago. Erria erabat utsik egoten zan, eta ia aspaldiko urteetan esan leike erria gañezka egoten dala jendez: argazkilariak, telebistak eta guzti. Esan leike aundienetan baño giro ohea egoten dala, naiz eta, esan bezelaxe, bildur eta ikara gutxiago sartu edo eman momoxarroak.

Orrez gain aparte ere, jendea asko eta asko izatearekin, nabarmen egin dute gora Unanuko momoxarroak. Alde

batetik, len aña edo geiago ateratzen dira jantzita, eta ori bai: dotoreago. Kapelak oso politak, eta zintak kolorekoak, dirdira dariotela, zintzilika bizkarretik eta kapelatik.

Baña momoxarroak ez dira gelditzen majo astindu gabe beraiek eramaten duten ia bi metro t'erdiko zigorra. Ez du iñork barkaziorik egun ortan. Mogitu eta laister egin bearra dago alde batera eta bestera, tartean zigorrazoren bat artu gabe. Ori bai: miñik eman gabe.

Unanuko ioteak eta momoxarroak aberastu eta gora bakarrik ez dute egin. Momoxarroak bukatu bezin laister beraien egibear guztiak, illunabarra aldera, eliz atarian, erriak ematen du naiko gazta eta txistorra, ardoarekin batera, bertako eta kanpoko guztiei, arratsalde atsegin bat ospatuz eta, aurrerago esan detan bezela, giro oso ona ikusiz errian.

Eta, ori gutxi balitz, soñu-jotzallea ere or ibiltzen da alde batetik bestera, arratsalde osoan, erria alaituz.



Momoxarroak.

Momoxarro aundien eguna

Beti bezela, eta oi den bezela, tabernan jantzitzen ziran momoxarroak. Aurretik suertea botatzen zituzten *panpaxilak* edo txintxarriak eta *katolak*. Zergatik? Badaude katola batzuk besteak baño ikara geiago ematen dutenak; eta panpaxilak ere badaude, batzuek ots geiago eta dotoreagoa dutenak.


Arratsaldeko lau t'erdi inguru ortan, denak ia prest zauden, mutil zarren aginduetara noski: amar edo amabi momoxarro, bi metroko zigorra eskuetan artuta; eta beste lau edo bost *mutu* ere, beraienak eta geiago egiteko ere. Momoxarroak dotore jantzita, panpaxilak bizkarrean eta gerrian zintzilika zituztela, eta bai anketan ere batzuk. Eta, auekin batera, *boterua*, lau edo bost litroko zatoa bizkarrean zuela.

Asten dira alako batean momoxarroak ateratzen bina-ka laister bizi batean. Aurrena erriari ematen zioten itzuli bat ikusiz, eta bitartean ankak zerbait bigunduz.

Unanuko karriketan ordurako etzan ikusten iñor ere, batzuk etxeetan sartuta, gelan, estarbian, ganbelaren azpian, ganbaran... Eta beste batzuk pastardan, belar eta agotz tartean, ixil-ixilik, bada-ezpada.

Ume txiki oiek amaren besoetan izugarrizko negarrak egiten zituzten, momoxarroak ikusita bakarrik ere, eta auek arrapatzean edo panpaxilakin ots egiñezkoan, orduan izaten ziran komeriak

Len esaten detan bezela, mutiko asko estaltzen giñen etxe-zuloetan, eta beste askok joera basora artzen zuten.



Momoxarroa.

Gogoan det urte batean nola sartu ziran nere etxera, ta zuzen-zuzenean nola igo ziran pastardaraño momoxarroak. Ni antxe nengo beste mutiko-pilla batekin. Iges egiterik etzegoen, eta denok antxe atera giñen momoxarroen aurrean karrikara. Antxe egin ziguten denetik. Batzuk erdi negarrez, beste batzuk ia-ia, esan bezela, elkarren atzetik banan-banan; eta obeditu bearra zegoen derrior.

Badakigu momoxarroak itzik ez dutela egiten; den-dena keñuekin. Adibidez: lenengo gauza egin arazten dutena da gurutze santuaren egin arazi; gero, belaunean musu eman; gero, berriz ere lurrari musu eman; zigorrari ere agintzen zuten musu emateko... Auek dira, beste gauza askoren artean, obeditu egin bear ziranak. Eta gero, batez ere, momoxarroei asko gustatzen zaiena: laister egin arazi zigorra lurrari joaz bildurra sartuz.

Gaiztakeririk etzegoen, eta mutikoei jotzea gutxiago. Bakarren bat pasatzen zan zerbait, adibidez, belaunari edo lurrari musu ematean. Baña, esan bezela, gaiztakeririk ez.


Mutuak eta boteroa

Bitartean, momoxarro *mutuak* or ibiltzen ziran karrikan Bixil-ixilik, etxeetara sartuz eta neska eta mutikoak plazara eramanez. Momoxarroak gero makiña bat injuria egiten zuten neska eta mutikoen gañetik.

Eta *boteroa* ere berdin. Or ibiltzen zan bere lau edo bost litroko zatoarekin, bizkarretik zintzilika, jendeari eskeintzen. Bere lana orixe zan. Unanuko gizon eta aitonak trago ederrak egiten zituzten mutillen kontura.

Egun ortan, txakurrak ere txurrun eta bildurrez egoten ziran etxean sartuta. Panpaxilen ots aiekin jaunkarik ere etzuten egiten.

Badakigu aspaldiko urte aietan zenbat momoxarro ateratzen ziran gutxienez, beren bi metroko urritz-zigorrarekin. Baña mutikoak, gutxienez ogei, Belokiko bizkarrean egoten giñen, noiz ikusiko momoxaroren bat, kantatzen asteko:



ur - te_an bein e - to - rri. Le - vi -

tón, le - vi - tón, le - vi - te - ro, me

gus - ta mu - cho_el vi - no. ¡Ay, le - vi -

tón! Me gus - ta mu - cho_el vi - no. ¡Ay, le - vi -

tón! Me gus - ta mu - cho_el ron.

Momoxarro,
 xirri-xarro,
 keteriako,
 zazpiña uzker
 afariako,
 zata begi-gorri,
 urtean bein etorri.
*Levitón, levitón, levitero,
 me gusta mucho el vino.
 ¡Ay, levitón!
 Me gusta mucho el vino.
 ¡Ay, levitón!
 Me gusta mucho el ron.*

Momoxarroak kanta au aditzen zutenean, orduan eta amorrazio geiago sartzen zaien mutikoengan. Mutikoak, ikusitakoan momoxarroak gora egin zutela, Txingillargoi-ko bizkarra arrapatu arte ez giñen gelditzen.

Ortik ere ikusten zan den-dena: nun eldu ziran momoxarroak edo zer egiten zuten; eta or ere mutiko guztiak berriz kantatu egiten genien: *Momoxarro, xirro...*

Eta, ikusiz momoxarroak etsi-etsian eldu zirela guregana, aurrera egin bearra zegoen derrior, eta orixe egiten genduen. Legetzuko gaiña arrapatu ginuen ziztu batean; eta or etzigun betarik eman kantatzeko berriz: *Momoxarro, xirri-xarro...*

Esan bezela, or bai etsi ginuela erabat, guregana eldu zirela itsututa. Geiago ez ginuen begiratu atzera. Urketuko zubia pasatu ginuen, aitaren egin baño lenago; eta ortik, Ondatz zelaitik barna bitartean bagoazela, bakarren batek esan zuen:

–Eldu dituk! Eldu dituk!

Sartu giñen Aitzerteko tarte ortatik beko zuloraño. Baña momoxarroen panpaxilen otsa oso gertu aditzen ginuen. Guk ala ere aurrera; eta Mundiñanoko eliz inguruan arrapatu eta preso artu giñuzten denok.

Bueno, au izandu zan festa beraiantzako. Denetik egin ziguten. Asko giñen eta bakarren batzuk libratu giñen. Batzuk antxe egon ziran denok ere umil eta ixil, obedituz agindutakoa derrior. Etzegoen beste erremediorik; bestela makurrago.

Momoxarroak oraindik guk baño indar geiago zaukaten, eta laisterrari eman zioten, erriko bidea artuz; eta gu, ia bildurra alde batera utziz, lasai-lasai sartu giñen illunabarrerako errira. Gose ederrarekin, ori bai.

Ordurako ia bukatuta zeuden momoxarroen egin bearrak. Bakarren bat edo beste ikusten ziran oraindik, baña ia motelduta, eta orrek ematen zion festaren zati bati bukaera.

Aurrera jarraituz, momoxarroak bi multzo egiten ziran garai batean. Zare aundi bana artuz, erriari etxez etxe asten ziran buelta ematen, eta zareak bai bete ere goraño. Garai artan arraultza izaten zan.

Gu, bitartean, erriko mutiko geienok, beraien atzetik ibiltzen giñen, gustora gañera. Etzegoen bildurrik iges egiteko.

Aurpegian jantzita ibiltzen zuten *katola* ori kendu egiten zuten, etxez etxe asi baiño len; eta, esan bezela, atzetik ibiltzen giñen. Gaur egun ez dute bilduko len aiña arraultz; baña oitura ezta galdu.

Gauean gero festa aundia izaten zan, tabernan jakiña; gaurko egunean, berriz, soziedadean egiten da,

Afari bikaiña. Tortilla etzan falta, noski; eta akordeona ere izaten zan festa alaitzeko, eta euskaldun kanta zarrak eta berriak kantatuz denen artean: *Maritxu, nora zoaz; Triste bizi naiz eta; Aitorren izkuntz zarra, Goiko mendian elurra dago; Jeiki, jeiki, Agur Zuberoa, Ixil-ixilik dago, O Pello, Pello...*

Baita ere:

Elurra tellatuan,
zakua lepuan,
ibilli bearko degu
aurtengo neguan, *rau!*,
rau, rau, rau, rakataplau,
Au dek umorea!
Utzi alde batera
euskaldun jendea!

Elurra basuan ta
makilla eskuan,
mendira bearko degu
basurdetara juan, rau!...

Jotak ere bai tartean. Adibidez:

*Ya vienen los segadores
de segar de los Monegros,
sólo por venirme a ver,
niña de los ojos negros.*

*Si canto me dicen loco,
y si no canto cobarde;
si bebo vino borracho,
si no bebo miserable.*

*En el alto'el Pirineo
soñé que la nieve ardía;
y por soñar imposibles,
soñé que tú me querías.*

*Pamplona tienen cadenas
y Tudela su mejana;
pero valor y virtudes
los tiene toda Navarra.*

*Corazón, ¿de qué te quejas
de que estés triste y llorando?
Más de cien ya te dijeron
que el amor trae desengaños.*

*Quisiera volverme yedra
y subir por las paredes,
y entrar en tu habitación
por ver el dormir que tienes.*

*Yo quisiera ser guitarra
con los cuerdas bien templadas,
para cantar bien la jota
al estilo de Navarra.*

*Ya tienen todos tu nombre
los chopos de la Ribera;
los escribí con la punta
de mi navaja campera.*

*Dos hombres tuvo Navarra
que la hicieron inmortal:
el famoso Sarasate
y Gayarre el del Roncal.*

*A las orillas del Arga
las golondrinas cantaban,
y en sus trinos repetían:
«¡Qué hermosa tierra es mi Navarra».*

*Eres clavelina doble
plantada en el mes de Enero;
no subas, niña, a la sierra,
que te marchitan los hielos.*

*En los caños de la fuente
tengo mi caballo atado;
y no hay mocico en el pueblo
que se atreva a desatarlo.*

*Si piensas que no te quiero
anda y pínchame una vena,
y verás correr mi sangre
negrita de pasar penas.*

*En las huertas de Tudela
no se crían sólo flores;
que se crían tudelanas
tan bonitas como soles.*

*En los montes de Navarra
tengo plantada una flor;
si el aire la bambolea,
hasta aquí llega el olor.*

*Una tórtola te traigo
que del nido la cogí;
su madre llora por ella
como yo lloro por ti.*

Garai batean neskak etziran izaten mutillekin batera afaltzen; baña ia aspaldiko urteetan ametitzen dira.

Aspaldiko urte aietan, urrengo egunean ere mutillak egiten zuten afaria, jakiña, ainbeste arraultz bilduta.

Eta bukatzeko esan nai det Unanuko momoxarro ospetsu oiek gora egin dutela, berrizkeratuz gañera. Zergatik? Alde batetik, ateratzen asi direlako, momoxarroekin batera, lau edo bost momoxarro mutu, garai batean bezela.

Kapela oso politak, zintak kolore guztietatik zintzilika dirdiratsu; eta, esan bezela, eta borobiltzeko, festari bizitasun geiago emanaz.

Egia esateko, festak bein da berriz aberastu egin dira, eta Unanuko Iote ospetsu oiek ez dira galduko nolainai, beste oitura asko galdu diran bezela. Pena aundia izango litzake ainbeste urtez zutik eta zintzo iraun duen oitura zar-zarrenetako bat galtzea. Baña ori ez da gertatuko; ni ziur nago.

Katolak

Momoxarroen gai onekin bukatzeko, *katolari* buruz zerbait esatekotan, ez dago nik dakitela asko esan bearrik, eta ziurtatzeko zerbait gutxiago. Badakigu denok ere momoxarroak, musua estaltzeko, *katola* jantzitzen dutela. Nola sortu zan Unanun? Noiztik? Nondik? Auskalo! Jainkoak jakiñen du.

Jende askok diote erromatarrengandik datorrela; beste batzuek, berriz, greziatarrengandik. Len esan detan bezela, Jainkoak jakiñen du.

Gañera, arrigarria bada ere, beste iñun ezta aurkitzen orrelakorik, eta ez antzekorik ere. Iñork eztaki zer material diran katola bildurgarri oiek; baña urte asko ta asko dutela, ori egia da. Nik esango nuke, urteak baiño, mendeak direla asko.

Tabernako Jose zurgiña eta bere anai Rikardo, edo Nemesio, ziur ez nago, Bilbon lanean zabilzela konpondu edo erdiberritu egin omen zituzten katolak. Zerbait ondatu egin dira, baña or daude bizirik.

Unanuko jendeak esaten dutenez, beti eta beti izagutu dira momoxarroak, eta ez ori bakarrik: atera ere bai urtero, utsik egin gabe. Baita Francoren garai artan ere ateratzen ziran, beti bezela.

Nik eztet ziurtatu ezer ere, baña zer ikusi duten gauzak badaude. Adibidez, *Momoxarroa* edo *mamoxarroa* izenak, biak ongi daude esanda. *Momo* izan omen zan mitolojiaren jaungoikoa: *dios Momo*. Ala diote jakintsuak, eta esan leike ortik datorrela *momoxarroa* edo *mamoxarroa* izena.


Beste gauza bat ere badago onekin zer ikusia daukena, nere ustean. Euskal Erri osoan, eta beste ainbat eta ainbat leku askotan, oitura aundia dago jartzeko, makil luze batekin, baratz eta soroetan, momoxarroa. Erderaz, *espantapájaros*.

Emen badago gauza bat argi eta garbi ikusten dana: momoxarroak iñauterietan (ioteak) ateratzen dira, jendeari, batez ere mutikoei, ikara edo bildurra sartzera edo ematera. Eta baratzetan jartzen dan momoxarroa ere berdin: txoriak ikaratzeko eta izutzeko izaten da.

Garbi dago momoxarro begi gorri, begiratze zorrotz orrekin, ikusita ere, egia esateko, ikara ematen diola, bai jendeari eta eztaikit zenbat txoriri ere.

Egia esan, leku askotan berrizkeratu egin dira iñauteriak. Osperik aundiena daukienak itxas bestaldekoak dira: Río-koak, esate baterako. Españan ere, Kadiz eta Kaniariaskoak fama aundia daukie; eta, gertuagora etorritz, Euskal Errian Tolosakoak. Auek ere aspaldikoak dira.

Alde aundia dago, erri aundi oietako iñauteriak ikusi edo ospatu eta erri txiki batekoak ikusi. Río-n, adibidez, odola izaten da urtero, mendekoa-edo artu naian. Erri txikitetan, berriz, alderantziz: gaitzik ez eta mutiko koskorrei zirikatzen ibili; negar egin arazi batzuei, baña ikutu gabe. Garai bateko Unanuko momoxarroak zakarrago portatzen ziran; baña, esan bezela, miñik egin gabe.



Katola.

Azienda

Ioteak bukatu eta laister, jendeak berriz bere lanetan jarraitzen zuen egunero. Aspaldiko urte aietan, etxe denetan zegoen azienda dexente; eta udaberrian, urtero bezela, azienda basora eramateko, markatu egiten zan.

Alegia, Unanuko marka "U" botatzen zan, ipurdiko masallean, azienda gorriari. Marka ori erriarena zan, eta etxez etxe faten zan txandaka.

Negua bukatzerako, Unanuko etxe franko ziran agotza kanpotik erosi egin bear zutenak derrior, jakiña, negua luze eta gogorra egiten bazuen.

Estarbiak, berriz, alderantziz: leporaño ongarriz. Estarbiaren erdi-erdian sekulako ongarrri pilla. Komeriak izaten ziran.


Gaurko egunean, eta ia aspaldiko urteetan, ezta orrelakorik ikusten. Jendea fan da poleki-poleki azienda kentzen, eta bai kendu ere.

Arrigarria bada ere, erri osoan aspalditik azienda gutxi dago: ez bei, ez beor, ez auntz... Beor banaka batzuk, eta txerri ta ollo -auek ere, banaka batzuk-, olako basoak eukita, zelaiak ere naiko ederrak, asko itxita.

Ardiak gelditzen dira bakarrik; eta auek bai, esan leike duela urte batzuk gora egin dutela nabarmen. Nik esango nuke bikoiztu egin zituztela buruak. Batak eta besteak ere goiko zerua arrapatu zuten. Baña auengan ere esan bearra dago berakadaren itxura ematen zaiela geieni, zoritxarrez.

Oraintxe ikusiko nituzken bezela dauzkat begi biak, garai bateko auntz-saldoa oroituta. Zoragarria izaten zan

errira sartzen ziranean basotik, denak batera; eta nola gelditzen ziran auntzak bakotxa bere etxearen ondoan banaka-banaka. Irureun bat auntz egongo ziran gutxienez; eta, egia esateko, neuk ere izagutzen nituen banaka-banaka ze etxetakoak ziran.



Dorrauko erria.

Aldaketa

Gaia orain aldatuz, eztago esan bearrik garai batean Unanuko mutillak, eta ingurukoak ere, nola faten ziran basora lanera, eta gañera derrior esan leike, etzegoen besterik-eta, lana gogor egitera.

Orduan etzegoen ezertxoren adelanturik. Den-dena eskuz, aizkora eta trontza ibiliz; eta oraindik aurrerago-koak ikatz-txondorrak egiten ibiliak ziran, eta Unanuko basoetan ere bat baiño geiago.

Gero poleki-poleki asi ziran sortzen eskuko motosier-
rrak, eta auekin batera traktor indartsu oiek; eta, esan bezela, baztartzan asi ziran aizkora, trontza, burni-ziriak, idiak, mandoak, astoak eta abar eta abar.

Urte asko ola pasa ondoren, aspaldiko urteetan ia utzi ziran lan oiek ere egiten. Erriko ta inguruko mutillak, Sakanako zulo ontan beintzat, nik dakitela, oso kontatuak izango dira ortan dabilzenak.

Lantegi asko sortu dira denborarekin noski; eta, batzukan eta besteak emen, orrela ekin dio jendeak lanari.

Nik, beintzat, gauza bat ikusten det naiko garbi, batez ere erri txikietako jende gaztearekin gertatzen dana: naiz eta lan gogorragotan ibilli lanean, adibidez kisuskil edo igeltsero asko ta asko, eta kamioi aundi oiekin txofer batera eta bestera jo ta ke, eztira ofizio bi auek ere, esan dedan bezelaxe, onenetakoak; baña gure Sakanako zulo ontan gazte geientsuak bide ori artu dutela esan leike.

Festa-giroa

Jendea pozez egoten zan udaberriari asiera emateko, eta Jerabat negua aztu eta atzean uzteko. Begiak ia botata egoten ziran, lena etxe ondoko baratzean eta geroxeago sororen batean patata ereiteko. Aurretik ongarria ugari atera, eta erriko festa aurretik izaten zan etxe geienetan patata berria.

Garai artan etzan bakarrik patata; artoa eta babarrona ere asko ereiten zan, erremolatxarekin batera; eta festa aurretik bigarren jorra eta azkenekoa emanda egoten ziran. Pentsa zer lanak egiten zituen garai aietan jendeak, etxeko lur guziak soro ibiltzen ziran eta.

Gogoan det nere etxean, eta beste askotan ere, makiña bat patata saltzen zala, eta arto ta garia ere bai.

Gaur egun, 2004-garren urtean, eta ia aspaldiko urteetan, esan leike patata ere etxerako ezjala biltzen etxe geienetan. Zenbat aldatu dan gure erriko egoera!

Udaberriarekin batera sortzen zan bazterretan poza eta alaitasuna. Alde batera begiratuta, ikusten zan ostoa zabaltzen egunetik egunera; soroak eta larreak ere nabaritzen; txoriak kantaz leku batetik bestera, nun egin abia; belarra zelaietan gora; zizak, oiekin batera; loreak alde guzietan... Zoragarria denontzako ere!

Mutiko txikiak, eta ain txikiak etziranak ere berdin, oitura aundia zegoen gure errian zozo eta txorien abiak billatzen ibiltzea, gero artzeko, jakiña. Makiña bat negar egin degu, txorikumea katuak arrapatuta.

Urte aietan ospatzen zan jai aundienetako bat San Jose zan. Mutillak, beti bezela, akordeona ekartzen zuten: batzuetan, Etxarriko Joxe itxua, eta beste batzuetan, Arbizuko Pako, beste batzuen artean. Mutillak bazkari ona izaten zuten aurretik, eta arratsaldean plazan jartzen zuten musika.



Erriko festetan.

Belauniko ezkerretik: Pakito Kalekoa, Esteban Mimiñekoa,
Pedro Jolanekoa, Kalixto Garziandia.

Zuik ezkerretik: Jose Agustin Garziandia eta Pedro Miltonekoa.

Giroa oso ona egoten zan. Jendea gañezka, Inguruko errietatik asko etortzen zan: batzuk oñez, eta motor bana-ka batzuk ere ikusten ziran. Adibidez, Lakuntzatik mutil dexente izaten ziran. Ainbeste ez Arbizutik. Lizarraga eta Dorrautik –nola ez?– asko ta asko urbiltzen ziran. Azkene-ko erri bietatik neskixak ere asko etortzen ziran.

Giroa ezin ohea egon arren, Unanuko mutillen artean egoten ziran eztabaida eta ikamikak, batez ere Lizarraga-ko mutillen aurka. Eztakit noiztik asita, baña etzuten ikus-tea nai dantzan erriko neskixak Lizarragako mutillekin.

Gogoratzen naiz urte bat baño geiagotan izugarrizko arrika egin zietela Unanuko mutillak Lizarragakoei, eta orregatik kontu aundiz ibiltzen ziran kanpotarrak, batez ere batzuk.

Gai oni aurrera egiñez, gure gurasoak eta aurreragoko aitonak, eztakit debekatuta eukiko zuten dantzan ibiltzea, jakiña elduta; baña esan leike baietz.

Mutillak ekartzen bazuten jai aundietarako musika, etzan bukatzen or dena. Unanuko errian igandero egoten zan musika edo soñua. Don Felipe apaiz zegoela, berak jartzen zuen elizako sakristiatik festa-giroa. Gogoan det nola jarri zituzten plazan altabozak ere. Eta gero, esan bezela, igandero izaten zan musika-saioa eta dantza.

Anjel Zaro, eta gero bere anaia Periko, monagilloak, izaten ziran martxan jartzen zutenak sakristiatik gramola; eta oiekin beste mutiko batzuk ere ibiltzen giñan.

Gauzak aldatzen fan arren, bizimodua bezela, normala danez, oitura zarrak ere galdu egin dira. Orregatik muti-llak ere, aspaldiko urteetan, utzi zioten akordeona ekar-tzeari; eta onekin batera ere galdu edo utzi egin zan eliza-ko sakristiatik igandero jartzen zan musika-saioa.

Komediak

Nik zazpi edo zortzi urte eukiko nituen garai artan gutxi gora-bera, baña oso ongi gogoratzen naiz nola egin ziran komediak egun batean Unanun eskola zarretan, Don Felipe apez zegoela, eta gau ortan nola kantatu zuen, amonarena egiñez, «Aurtxo txikia» kanta nere arreba Amparok, eta onekin batera, aitonarena egiñez, Mateoneko Luisitok:

Aur-txo txi - ki - a ne - ga - rrez
da - go, a - ma, e - mai - zu
ti - ti - a; ai - ta gaiz - to - a
ta - ber - nan da - go pi - ka -
ro jo - ka - la - ri - a.

Aurtxo polita seaskan dago
 zazpi zuritan txit bero.
 Amonak dio: Ene potxolo,
 arren, egin ba lo, lo, lo.

Txakur aundia etorriko da
 zuk ez badezu egiten lo.
 Orregatikan, ene potxolo,
 egin aguro lo, lo, lo.

Eta gau ortan bertan, baita ere, ia aztuta nengoen,
 oraindik oso gazte nintzalako, alde batetik, eta mutiko
 koxkorra oraindik, gogoratzen naiz nola kantatu egin
 zuten Kamino Pellonekoak eta Kalixto nere anaiak kanta
 bat oso polita:



A, a, a, ardo gorri naparra,
eztarriko lakarra
kentzen au den azkarra,
a, a, a, ardo gorri naparra!

A, a, a, au den ardo bikaña.
edan zagun nai aña,
naiz argitu bekaña,
a, a, a, au den ardo bikaña.

A, a, a, kontuz busti zintzurra,
jo nai ez badek lurra,
ta autsi lepa ezurra,
a, a, a, kontuz busti zintzurra.

A, a, a, matsaren ur sorgiña,
gizonen edan griña,
ta andreak mitiña,
a, a, a, matsaren ur sorgiña.

E, e, e, ni ardoaren alde,
goiz eta arratsalde
beti naiz aren alde,
e, e, e, ni ardoaren alde.

E, e, e, edari etxe kalte,
lasaikerien ate,
tabernetan alkate,
e, e, e, edari etxe kalte.

I, i, i, i aut nere edari,
ik jartzen nauk kantari
ta sarritan dantzari,
i, i, i, i aut nere edari.

I, i, i, matsaren zumo azti,
griña txarren illati,
osasunaren pipi,
i, i, i, matsaren zumo azti.

O, o, o, onek jartzen nau bero,
eta sarritan ero,
edanez egunero,
o, o, o, onek jartzen nau bero.

O, o, o, au biontzako dago,
edan dezagun oro,
zuk orain da nik gero,
o, o, o, au biontzako dago.

O, o, o, edari demonio,
infernuko jario,
pardel danen bizio,
o, o, o, edari demonio.

U, u, u, au den gure erregu:
ardoa bear degu,
naiz uda ta naiz negu,
u, u, u, au den gure erregu.


U, u, u, ur gorritzko olatu,
orrek au i ondatu,
ta andrea asarratu,
u, u, u, ur gorritzko olatu.

U, u, u, ardo madarikatu,
gaur txorien teillatu,
alper danen ostatu,
u, u, u, ardo madarikatu.¹

¹ Doiñu eta bertso aukeratuak liburu ontatik artuak dira: *Boga, boga* (erri abesti sorta), Donostiko apaiztegia, 1959.

Badakit nola fan zan argia. Errotatik giñauken oraindik. Eta komedi-gau polit ortan, ez naiz aztutzen Jamalanduki eta Peru Txiki ere izandu zirala, jendeari naiko irri egin araziz.

Maiz ikusten det oraindik ere, naiz adiñan gora joan, Peru Txiki ori, naiz Zarauztarra izan aspalditik Iruñan bizi dalako, eta berdin segitzen du bere umorean.



Unanuko eliza.

Aurrerapenak

Oitura asko galtzen fan arren, beste erri batzuk bezela, Ogurea etzan gelditu atzean orregatik. Asi ziran sartzen, poleki-poleki, motorrak, kotxeak eta traktorak ere. Errian asko nabaritu zan, gorakada aundia egiñez arlo guzietan.

Aurrerago ibiltzen bazan lur dena idiekin eta beiekin eta al zan moduan, gero, sortu ziranetik traktorak, jendeak oraindik gogo geiagorekin eldu zion lanari.

Esan bezela, lentxeago jendeak ibiltzen zuen etxeko lurra dena soro, beraien idi-pareekin, eta beiekin ere, urte asko ta asko sekulako lanak egiten; eta onekin esan nai det gero erriko etxe onenak ere etzutela erakusten beren agerraldia edo bizitza, obeki esanda, besteak baiño geiago zirala.

Ortxe urteak eta urteak, etxeko lur oiekin gora ta bera, lana *barra-barra* egiñez, egia esateko, ez aurrera eta ez atzera, etxeari iraun arazten zutik ala-ola, eta pozik makiña bat. Eta bizi ere al dan moduan, eta orrela urte mordo bat.

Gero, traktorakin ere urte frankoz ibili ziran Unanuko lurrak, urrea egin ustean.

Adelantua etorri zan, bai: traktorak, kosetxadorak eta abar. Baña jendea azkar asi zan quartzen ola ere etzegoela ezer egiterik. Lanarendako aña ola zerbait; eta irabazia, esaera bada, erdikoarendako. Dena besterendako, alegia.

Orrez gain, etxeak ustutzen fan dira poleki-poleki, eta lurrari ere uzten, aziendari bezela. Gaur, 2004-garren

urtean, eta ia aspaldiko urteetan, Unanuko nekazariak utzi zioten lurrari soro ibiltzen erabat.

Ergoienako ballara guzian, gaurko egunean ezta ikusiko soro bat ere gari, eta arto gutxiago; eta ez emen bakarrik; inguruko erri eta baztarretan ere jokabide bera dago.

Onez gain, esan leike garai artan etxe-alde txikienak eta pobreenak, gorriak eta beltzak ikusitakoak ziranak, azkarrago egin zutela alde erritik; baña izugarrizko gorakada geiago egin dutela oiek, errian gelditu diranak baiño, denbora motzean. Eta ori poztutzekoa da.

Gaurko egunean ezta nabaritzen lengo aunditasuna, eta gutxiago aberastasuna. Iñor ezta bestea baiño geiago.



Dorrauko eliza.

Ogia, sardin zarrak eta utsuala

Ez naiz nere bizitza guzian aztuko garai batean nola egiten zuen nere amak, beste askok bezela, ogia etxean.

Aurretik enborrak lertuta, jartzen zuten laratz gañean zerbait legortzen, batez ere fagoa, su bizia eta garbia egiteko, ogia erretzen noski. Ao asko zegoen etxe denetan urte aietan.

Gogoratzen naiz nola amak egiten zizkigun, batez ere txikienei, bakotxari *opil* bana.

Katua saguari egoten zaion bezela egoten giñan espia; eta ezta ori bakarrik: nere etxean beintzat, txerria il berri baldin bazegoen, *tximiorrakin* egiten zuen nere amak pare bat ogi, nastuta. Oso goxoa izaten zan.

Oitura zarrekin aurrera egiñez, garai batean Unanuko etxeetan, eta nola ez tabernetan, *sardin zarrak* jateko oitura aundia zegoen, suan erreta eta paperean kolpe batzuk emanda.

Ondoren, olio-tantaren batzuk edo beste botata, majo jaten ziran.

Gizonak tabernan gogoan det nola jaten zituzten; eta gero derrior ardoa edan bear, ez gutxi gañera, sardiñak egarri aundia ematen zuten atzetik eta.

Beste oitura bat ere bazan Unanuko gizon eta aitonen artean.

Garai batean eta ia aspaldiko urteetan, igandeetan bi meza izaten ziran. Goizekoari *meza txikia* esaten genion, eta oso goiz izaten zan. Eguerdikoari, berriz, *meza nagusia*.

Ba, Unanuko gizon asko, eta geiago aitonak, meza txikitik atera bezin laister, tabernara faten ziran, *utsela* edo *utsuala* edatera edo artzera. Baña etziran aztutzen aurretik poltsan ogi zati bat eramateaz, utsualarekin batera jateko, barurik.

Eta aste-egunetan ere antxe egoten ziran txintxo, tabernariak noiz zabalduko zituen ateak, utsuala artzera sartzeko. Esan bezela, aitonak geiago ikusten ziran.

Kopa txiki-txikiak ziran, baña goraño beteta; eta bakarren bat edo beste baziran bi kopatxo artzen zituztenak.

Gero, etxerakoan,azienda gobernatzan asten ziran, aurretik sua eginda sukaldean.

Ni neu oraindik naiko gaztea nintzala, egun batean egin nuen froga aitonak bezela utsuala artzea... Lenbizikoa eta azkenekoa izan zan. Sekulako buruko miña jarri zidan egun guztirako.

Mutikoen olgak

Pirrinka

Beste oitura bati elduko diot, au ere mutikoena. Nola ez? Batek baiño geiagok esanen du *matxista* naizela, mutikoen eta mutillen oiturak aipatzean bein eta berriz. Baña, atzera begiratuta, ori egia da. Unanuko antziñako oitura zar geienak gizon eta mutilen artean zauden.

Mutiko txiki eta ain txikiak etziranak ere, oso gustokoa genuen *pirrinka* bere katearekin ibiltzea. Neurri askotakoak ziran. Alegia, pirrinka Unanu alde ontan esaten diogu pertzak ipurdian eramaten duen burnizko aro borobill orri; eta ardoaren barrikak ere bai. Barrika aundiarenak oso dotoreak eta gozoak ziran mutikoendako.

Egun askotan erritik ateratzen giñan mutiko-pilla aundi bat, pirrinka, bere kate ta guzi, jakiña: Arrigorritik barrena, ualdeko zubia pasa eta Utzuko zelaira allatzen giñan; ortik, Areitzaundi atzean utzita, Errotaraño etortzen giñan exertzera.

Batzuetan, Errotatik etxerako bidea artzen genduen; baña beste askotan, Errotatik, Batzarramenditik barna, Dorrauko San Juan ermitaraño. Or ere geldi-alditxo bat egin, eta ziztu bizian Dorraura sartzen giñan.

Emen batere gelditu gabe, Erreka-auditik barna, San Andres ermitatik errian sartzen giñan, denok ere gose ederrarrekin.

Beste egun batzuetan alderantziz egiten zan itzulia: Dorrautik barna errotara; eta or, Utzuko zelai oietan, saia-

tzen giñan alde batera eta bestera pirrinkarekin ibiltzen, aspertu arte; eta gero illunabarrerako errira. Olaxe izaten zan egun askotan mutikoen olga bat.

Eta bai txintxo gorde ere pirrinka etxean, ongi garbituta eta zintzilika, bakotxak berea.

Esan detan bezela, mutikoen artean oso maitagarria zan pirrinka.

Baña oitura edo olga au ere, beste asko bezela, urteak etorri, urteak pasa, galdu zan; eta esan dezaket ni baño mutiko gazteagoak gutxi edo batere etzerala ibili geiago pirrinkarekin.

Otso-peleira

Oitura au edo olga au esango nuke oso antziñakoa dala; eta aditzera ere ez det inguruko erritan orrela olgatzan ziranik, eta gutxiago urrutiko errietan. Ez-ta antzekorik ere.

Lau mutil edo lau mutiko ibiltzen dira *otso-peleira*: bi mutil lurrian auspez jartzen dira, belaunen eta eskuen gañean, elkartuta, biak ondoan; eta beste bi mutil zutik, baño bat ankak gora dituela, eta biak elkartuta eta ongi elduta elkar.

Egin bearra: zutik zaudenak, erori gabe, lurrian zaudenen gañetik, gañean jarri bear zuten, asi alde batetik eta itzulia beste aldera artuz. Ori bai: erori gabe; eta ola, erori arte lurrera, bai azpian zaudenak eta zutik zabiltzenak ere.

Galdu egiten zuen lenago erortzen zanak, jakiña; eta zutik zabiltzenak uts egiten bazuen lenago, oiek ziran gero azpian jarri bear ziranak.

Makillarekin

Beste garai artako olga bat etorri zait burura. Au ere -nola ez?- mutikoena.

Ibintzetara (*rastrojo*) eramaten giñuzkienean, batez ereazienda gorria, akullua ez genduen eramaten, baizik makilla, zerbait lodiagoa eta motzagoa; eta oraingo olga ontan makillarekin ibiltzen giñan.

Alegia, izaten zan nork urrutirago bota makilla. Aziendak lasai ari zirala larrean belarra jaten, gu ere asten giñan alako batean gure leian. Anka-punten gañean jarri bear zan makilla, eta nork urrutirago bota, antxe ibiltzen giñan, larre zelai batean, sekulako mutiko-pilla edo mordoa.



Batzarramendiko gurutzea.

Eliz-atarian

Eliz-ataria zan neska ta mutikoak biltzen giñan erriko txoko politena; eta ortxe makiña bat olga, irri eta negar denok ere egiñak gera.

Geiena, jakiña, pilotan ibiltzen giñan; baña badago beste olga bat, guk esaten degun bezela: *pares y nones*.

Zazpi edo zortzi mutiko ibiltzen giñan. Mutiko bat pareta edo ormaren ondoan jarri bear zan zutik. Beste lau edo bost bat ormaren ondokoari elduta, gorputza makurtuta, eta olaxe baita besteak ere, elkarren atzetik elduta. Eta beste lau edo bost lagun ere, auek atzetik etortzen ziran, laisterka igoz besteen gañera, eta esku bateko beatzak jasoz esanez:

—*¡Pares y nones!*

Orduan, azpian zaudenak asmatu egin bear zuten zenbat beatz zauzken. Asmatu ezkerro, besteak jartzen ziran azpian. Azpikoak, berriz, baldin baldarratzen edo lurrera erortzen baziran asmatu baño len, galdu egiten zuten; eta gañekoak ere berdin: lurrera erortzen baziran, galduak ziran. Eta, ori ez bada naiko, paretan zutik zegoen mutikoa, bera izaten zan epaile bezela erabakia artzen zuena.

Eliz-atarian au ere, eta eztago esan bearrik norena, oitura ez galtzeko. Garai batean, Unanuko gizon eta mutil asko ibiltzen omen ziran txanponak jokatzen, garai artan zortzikoak.

Ez bertakoak bakarrik. Dorrautik eta Lizarragatik ere etortzen omen ziran dexente. Sekulako giroa eta ikusmiña sortzen omen zuten. Bat baño geiago poltsak utsik zituztela faten omen ziran etxera.

Zizak

Udaberriarekin badakigu ostoarekin batera belarra asten dala; edo, bearbada, zerbait lenago. Eta auekin batera, noski, zizak, perretxikuak.

Unanuko larreetan ikaragarria ateratzen da, eta basoan eta mendian zer esanik ez.

Garai artako urte aietan, ni mutiko gaztea nintzala, etzitzaion ematen ainbeste garrantzi zizari. Gero asi ziran poleki-poleki kanpotarrak etortzen; auek baño geiago urbilleko errietatik; eta esan leike bertako jendea ere zerbait geiago animatu zala ziza biltzen.

Zizekin jarraituz, denok dakigunez, lendabizikoak asten dira Utzuko lur-zelai oietan; gero goraka faten dira, adibidez: Mendixur, Aizpibil, eta gero gorago oraindik: Babatzen, Ibarren; eta ondoren ia baso guztian, bai Otsarte aldean eta bai Lezitza aldean ere, eta azkena goiko mendian.

Mutikoak asko ibiltzen giñan batera eta bestera. Ia eguero faten giñan. Ez genien uzten aunditzen ere; eta arkitzen giñuzkien punttak asko gordiñik jaten giñuzkien.

Eztakit ziur zenbat urte eukiko nituen, baña oraindik mutiko koskorra nitzan. Egun batean fan nintzan nere aita zanarekin basora, beiak ikustera edo orrela, eta San Buenabenturako inguru artan erakutsi eta artu giñuzkien nere lenengo zizak aitarekin. Etzait aztuko sekula.

Esan bezela, garai batean baño, gaur jendea askoz geiago ibiltzen da. Baña, ala ere, ziza asko usteldu eta galdu

egiten da zapar eta sasi tartean. Zergatik? Ba, alde batetik, basoa zaparrak eta sasiak arrapatzen ari dalako poleki-poleki, eta jendeari bideak ixten.

Goiko mendian beste gauza bat izaten da: sasi gutxi eta, esate baterako, dena garbi. Baña, esaten dutenez, ez omen da errezago ziza biltzen, sari tartean baño.

Eguraldia nola faten dan, zizak mendian irauten dute askotan San Pedroak arte gutxienez.

Karrikak

Gogoratzen naiz ongi nola ziran garai batean Unanuko Karrikak. Ikusiko nuzken bezela dauzkat oraindik.

Euri-erauntsiren bat botatzen zuenean, sekulako arri-pilla ekartzen zuen urak, goiko etxeetatik asi ta beraño. Gero auzolanez kentzen ziran arri eta zikin guziak.

Noizbait artu zuten erabakia agintariak karrikak egiteko eta erriari beste planta bat edo irudi bat emateko.

Lenengo ongi asi ziran, etxeetara zatorren ura obeki artuz, eta orrela poleki-poleki erriko karrika denak egiñez. Ortaz gañera, erriko jende asko ibildu zan bertan lanean. Karrika batzuk porlanez egin ziran, eta beste batzuetan arria jarri zuten.

Zergatik? Urte aietan badakigu oraindik Unanu nola zegoen. Alegia, azienda ibiltzen zan ferratuta gurdiarekin, gora eta bera karrika askotan, eta or arria jarri zuten, aziendak ez irrista egiteko.

Erriari txukuntasun geiago emateagatik, lau bat iturri ere egin ziran aziendarendako. Aurretik zegoena kendu egin zuten. Auskalo noizkoa zan.

Erriaren erdi-erdian zegoen labadorea ere kendu egin zan, beste leku batean egiñez, aurrerago esan bezelaxe, erriko baztarrak eta txokoak dotoreago jartzeagatik. Eta or dago, len zan labadorearen lekuan, plazatxo bat bikain askoa.

Ortaz aparte ere, egin ziran arrizko ormak, batzuk galantak; eta or daude zorionez zutik.

Esan bezela, erria asko jantzi zuten, karririk egin ziranean.

Unanuko errian zoragarria izaten zan entzutea ainbat eta ainbat emakume, geienak adintsukoak, bakoxta bere etxearen urbilletik olloei sekulako kankak egiten, etxera etorri zitezten.

Baziran bakarren bat edo beste oso bereziak, kantatzen asten ziranean. Esan bezela, oso xelegebre. Batzuek:

-Ti, ti, ti, ti, ti...

Beste batzuek:

-Purra, purra, purra, purra...

Makiña bat irri egiten genduen mutiko gazteak, eta ain gazteak etziranak ere.

Eta olloak bai agudo etxeratu ziztu bizian, batzuk bai egalka ere.

Txerriekin ere berdina gertatzen zan: basoan zizala, agudo eta azkar etortzen ziran zotolera, entzutean etxeko bakarren baten oiua eta otsak

Eskola berriak

Karrikak, bai, ongi gelditu ziran urte-pilla baterako; eta Kauekin batera, ziur ez banago ere, eskola berriak egin ziran, eta bai ere maisuendako etxe bikaiña. Ezta gutxi urte oietarako ainbeste gauza egitea. Badirudi astea izan zala bakarrik. Batek baiño geiagok esango du:

–Eta dirua nun zegoen?

Noski, dirua bear zan, eta ez gutxi. Unanuko erriak urte aietan bazauken zeri eldu: beti bezela, basoari. Eta ori egin zuen. Lantegi bat edo beste atera zituen zorrak ordaintzeko, eta ala ere diruarekin gelditu. Ezta gutxi.

Gai onekin segituz, esan bear det eskola berriak dauken orma aundi orrek, dena arriz, bide ondoan, erriko sarrera asko jazten duela. Eta gero, eskolen aurrean dagoen plaza ori ere, bere arbolekin eta aulkiekin ondoan, egia esateko, erriak duen toki atsegiñena dala.

Eskolak inauguratu ziran egunaz ere gogoratzen naiz nola egin zan aizkora-apustu bat, alegia, zarrak gazteen aurka. Oraindik begi-bistan dauzket: zarren aldetik, Joxe Mari Artxanekoa eta Joxe Milikorena ziran; eta gazteen aldetik, Mationeko Juanito eta Zaldueneko Bixente.

Gogoan det nola esan zuen Don Felipe apezak apustua asi baño len:

–Ni zarren alde ogei duro!

Orrelakoren bat zan. Eman zioten asiera aizkolariei, eta asiera batean naiko berdin fan ziran. Baña azkenean gazteak nagusitu ziran.

Unanuko erriak jarri zuen lenengo, eskolen aurretik, telefono publikoa; eta gero, etzan pasatu denbora asko, Don Felipek ekarri zuen lenengo telebisioa Unanura. Jarri zuen eskola zarretan, eta gauean naiko jende biltzen giñan.

Omenaldia

Pasatu dira urte franko. Eta bai karrika, eskola, telefonoa, sakristiatik jartzen zan musika ura, eskola zarretako telebisioa, eta abar eta abar.

Gauza asko jarri ziran bidean Don Felipe apez zegoela. Eztet esaten denak egingo zirala beraren bidez. Etzan geldirik egoten, beti zerbait egin bearrean.

Badakigu nora fan zan eta zertara, eta gañera, jendeari entzun diodanez, gauza asko eta on egin dituela an ere. Biejondakiola!

Eztago esan bearrik Don Feliperi buruz, zenbat lan egin zuen. Lan illuna, baña sendoa. Or dago garrantzia gizonarena. Frutua gero etortzen da, eta ongi egiñak beti irauten du.

Baña emen, mundu ontan, zori txarrez, lan illun ori eztegu ikusten; obeki esanda, eztegu nai ikustea.

Esaten ari nintzan bezala, erriak, eta batez ere neskek eta andre-pilla batek, pentsatu zuten ainbeste urtez apez egon zan Don Feliperi omenaldi txiki bat egitea, eta bai egin ere.

Asteko, gogoan det nola jarri zan eliz-atarian oial zuri aundi bat, pankarta bezelaxe zintzilika, eta oso txukun idatzita, ongi etorria eta zorionak emanez, jende guzia pasatzen zan bitartean oialaren azpitik.

Meza dotorea izan zan. Ziur ez nago, baña uste det Etxarriko korala etorri zala abestutzera. Gero opariren bat edo beste izan zan. *Lunch* bat ere bai or bertan, eliz-atarian.

Asko poztu omen zan Don Felipe, erritarren berotasunarekin. Eta geien edo asko poztu edo arritu egin ziona, pankarta izan omen zan. Ez omen zuen olakorik espero. Ala esan omen zuen berak.

Egin zituen itz pare bat, oso emozionaturik, eskerrak emanaz an zauden guztiei; eta geiena, esan bezela, andre eta neskixei.

Eztakit zenbat urte egon zan Don Felipe jauna apez Unanuko errian; baña argi ta garbi ikusten da geldirik etzala egoten. Berriz errepikatzen det: gauza asko egin zirala bera zegoela, eta gañera bazituela berarekin ados etzeudenak, normala danez. Esaera zar bat bada: "denen gustora sekula ez omen du euririk egiten".

Udaberriko oitura batzuk

Garai artako urteetara berriz itzuliz, eta udaberrian Gegonez, Apirillan eramaten zan beko basora, Lizarrustira, batez ereazienda gorria, bere uztai eta faleak ongi jarrita. Gogoan det neu ere nola fan nintzan urte batean beien atzetik, oso pozik.

Orduanazienda asko izaten zan, eta orrenbeste buru alde batera, eta besteak bestera eraman bear ziran. Otsartera ere ezin nai ziran guziak eraman, esan bezela.

Unanuko aitonak esaten zuten esaera bat, Maiatzera irixtean: "Santa Krutz Maiatzeko, gure soroak laiatzeko". Gaurko egunean ez dator esaera ori oso egoki, batez ere Unanuko zelaiak eta soroak denak larre eta belar ikusita.


Nik eta nik baño zarragoak ere eztegu izagutu soroak laiatzen, garai batean bezela. Baña badakit erritar gizon asko faten zirala soldata edo gatza irabaztera, artu laiak eta kanpora lanera, eta auntziak eta segan egitera ere bai.

Gero badakigu urte asko ta asko erabili dirala soroak, lena idiekin, gero traktorekin; baño ia urte franko dira Unanuko soroak larre ikusten dirala, eta inguruko errietan berdin edo antzera.

Erriko beste oitura bat nekazariena: Maiatzaren 15-ean zan San Isidro. Gosaria eta bazkaria izaten zuten erriko gizonen gofraia. Etxe baktoretik bat faten zan, eta gosari eta bazkari goxoak egiten zituzten, naiko antxume erreak janez erriaren kontura. Baña, beste gauza asko bezela, aspaldi utzi zan ori ere oroitzapenerako.

San Isidro pasatuta, gofraiko eguna errietan, baxotxak bere lanari aurrera egin bear zion, eta urte aietan bazegoen aukera zeri eldu: batean gariak jorratu, babak ere bai, eta len ereindako patata, arto, babarrun... Auei guztiei gutxienez bi jorra-aldi eman bear zaizkien.

Agur Maria eder bat ere jende guztiak kantatzen zuan elizan, dan-dana euskaraz, errosario denboran:



A - gur, a - gur, Ma - ri - a, gra - zi -



az be - te be - te - a, Jau - na da, Jau - na, zu -



re - kin be - dein - ka - tu - a ze - ra zu an -



dre guz - ti - e - tan ze - ra, e - ta be - dein - ka - tu - a



da zu - re sa - be - le - ko fru - tu - a Je - sus. San -



ta Ma - ri - a, Jaun - goi - koa - ren A - ma, Zuk e -

rre-gu-tu za - zu gu pe-ka-ta-rion - ga - tik o -
 rain e - ta be - ti, gu - re_e - ri - o - tze - ko_or - du - an.
 A - men Je - sus.

Agur, agur, Maria,
 graziaz bete-betea,
 Jauna da, Jauna, zurekin
 bedeinkatua zera zu
 andre guztietan zera,
 eta bedeinkatua da
 zure sabeleko frutua, Jesus.
 Santa Maria,
 Jaungoikoaren Ama,
 zuk erregu zazu
 gu pekatariongatik
 orain eta beti,
 gure eriotzako orduan.
 Amen, Jesus.

Korpus eguna ere gañean zegoen. Jai aundia urte
 aietan errietan, prozesio politak egiñez. Gogoratzen naiz
 nola neskatoak aingeruz jantzita ateratzen ziran proze-
 sioan oso poleki, Ama Birjiñari loreak botaz, berak erama-
 ten zuten zaretxo txiki polit batetik. Beste oitura asko
 bezela, aspaldi galdu zan au ere. Eta onela kantatzen zan:

Goazen, goazen guztiok
Mariarengana,
goazen, bai, eskeintzera
biotz eder bana.

Zu zera gure Ama Birjiña Maria,
izar eta eguzki guztien argia,
aingeruen Erregin oso miraria,
izan zaite euskaldun denen gidaria.

Eta bai beste au ere:

Goazen, goazen guztiok
Mariarengana,
eskeintzera biotzez
loretxo eder bana.
Birjiña guztiz ona,
zeruko Erregiña,
artu zaiguzu koro
guk lorez egiña.
Ar zazu maitasunez,
bai, doaiz jantzirik,
Ama, gure biotza
lorakin bildurik.

Korpus egunean ere, oitura zegoen San Migelera oñez fateko, basotik *danba-danba*. Jende asko biltzen omen zan; eta urte askoz geroago ere jendea erruz faten zan.

Baña 1975-garren urte ortan, gutxi gora-bera, asi ziran ixtilluak. Politikak egin zuen agerpena, eta Aralarren ere bai. Batean “gora Euskadi” zala, bestean ikurriñaren bat ikusten zala, jaia asi zan zerbait galtzen; eta, obeki esanda, jendeak bildurra geiago artzen.

Arratsaldean, berriz, oitura zegoen Aralartik Lakuntzara jeixtea. Izugarrizko jende-pilla biltzen zan emen. Festa aundia. Erriak ardoa partitzen zuen zillarrezko ontzi polit batzuetan, eta plazan musika ederra.

Baña San Migelen ez-eze, Lakuntzan ere gauerako izaten ziran laisterka ugari, urte bat baño geiagotan ere bai, eta festa bear baño lenago bukatzen zan.

San Juan sua

Erriko mutikoak, eta neskak gutxiago, majo saiatzen Egiñan oteak ekarri eta ekarri, San Juan bezperako suarentzat. Dozena bat mutiko or ibiltzen giñan jo ta ke, batzuk moztu aizkoraz eta besteak sokakin lotu, eta arrastaka erriraño. Geienak Babatzetik eta Lixintxorpetik ekartzen giñuzkien.

Ni neuk ere makiña bat ote ekarri ditut. Gogoan dauket: sekulako ote-pilla biltzen genduen gure atarian, etxeko ormaren ondoan. Eta, gu bezela, beste erriko mutiko asko, erri osoan su aundi asko egiten ziran eta.

Gogoratzen naiz: suaren gañetik salto egitearekin batera, esaera bitxiak esaten ziran, eta den-denak kanpotarren aurkako izenak eta ekintzak, baña gaiztakeririk gabe. Adibidez, beste askoren artean:

–Urrin San Juan! Arbizuko amiñak tripotxak egiten!
Urrin San Juan! Lakuntzako amiñak sorgiñekin dantzan!
Urrin San Juan! Atzo gauean sorgiña ikusi nuen!

Eta olaxe, sua itzaltzen zan arte. Emen erriko jende denak edo geienak artzen zuen parte, eta salto egin ere bai, neska, mutil eta andreak ere, denak nastuta. Garai artako San Juan bezperako sua oso polita izaten zan.

Gaia guztiz aldatuz, gogoratzen naiz San Juan eta San Pedro inguru ortan, urte batzuk izan ziran jendeak marrubia ekartzen zuela *barra-barra* basotik, alegia Otsartetik.

Zarea goraño beteta. Marrubi txikia zan, baña goxoa ikaragarri. Azukrea bota bearrik etzeukan arek.

Erriko festak

Badakigu festa inguru ortan belarretan ibiltzen zala jendea. Soro ibiltzen zan geiena, eta belarra gutxi izaten zan etxeetan. Zazpi edo zortzi gurdi belar, asko jota. Artzaiak geiago, eta belar geiena idientzako izaten zan.

Orregatik, garai bateko soro-baztar eta muno guztiak txukun eta garbi ikusten ziran.

Belarretan asterako, gurdia aldatu egiten zan; ordezkoa, luzeagoa eta ariñagoa. Sei txarrantxa aundi, alde bakotxan iru. Makiña bat lan egin zuten gurdi oiek. Gaurko egunean ezta geldituko erri osoan bat ere, gogoratzeko bada ere. Suak erreta egongo dira sekulako, edo pipiak janda.

Festa-bezpera egun polita eta alaia izaten zan. Erriak auzolanez karridak garbitu eta txukundu egiten zituen, eta ondoren musikoendako kioskoa jartzen zuten betiko lekuan.

Illuntze aurretik, beti bezela, eliz-atarian, gazta eta ardoa jende guztiari. Sekulako giroa egoten zan. Urte aietan emakumerik etzan ikusten; baña gero, poleki-poleki, asi ziran auek ere urbiltzen giro ortara. Bat baño geiago majo jartzen ziran gauerako; ardoaren egarri ori ederki asetzen zuten.

Zillarrezko ontzi polit aietan, auskalo noizkoak diran, eta lurrezko pitxera aundi eta dotoreak, ematen zuten jendeari ardoa.

Etxeetan, berriz, naiko lan izaten zan: batean ardia il bear zala; bestean, auntza... Orrela etxe denetan. Auntxime

eta axuria ere asko iltzen zan, eta txerrikumea ere bai. Diru gutxi egon arren, jana eta edana festetan beintzat etzan faltatzen. Gogoratzen naiz nola eramaten zuten zagi ardoa, bizkarrean artuta, etxe batzuetara.

San Pedro festen lenengo eguna, eta egun aundiena. Goizean gosari oso ona egiten zan etxeetan. Oitura aundia zegoen *tripotxak* jateko. Gogoratuta ere ura egiten da aoan.

Gero meza nagusira faten zan jendea zintzo. Eliza, jendez gañezka. Mezaren ondoren ia festa-giroa ikusten zan kalean. Plazan bertan orkesta prest zegoen arriolgoari asiera emateko.

Esan bearra dago Unanuko erria, musika aukeratzera-koan, etzala atzean gelditzen. Esan nai det onenetakoak ekartzen zituela. Adibidez, urte askoz etorri zan *Xaneiro*, eta *Alaska* ere bai. Urte oietan oso onak ziran, eta jendearen gustokoak.

Arriolgoa

Ziur ez nago, baña uste det bederatzi edo amar etxe izaten ziralara erri osoan, arriolgoa faten zana etxe oietara. Plazan asten zan arriolgoaren ibilbidea. Erriko neska eta mutil-pilla bat alai eta pozez, geienak uztarrituta, eta mutillak festetarako atorrak jantzita. Auen denen atzetik mutiko txiki pillar bat, eta auekin batera –nola ez?– orkesta, beraien soñua joaz.

Plazatik lenengo etxera, eta oitura zegoen etxe oietan ogia eta ardoa ematea jendeari. Beste zerbait geiago ere izaten zan. Bitartean, orkestak piezaren bat jotzen zuen etxearen atarian, jendeak dantza egin zezan; eta bai dantzatu ere jendea gogoz. Etxekoandreak ere mogitzen ziran majo.

Arriolgoaren atzetik beti ibiltzen ziran iru edo lau mutil, geienean zarrenak. Musikak alde egiten zuenean etxe ortatik, orduan zan beraien txanda. Zuzenean sukalderaño sartzen ziran, eta an etzuten ogia bakarrik jaten. Majo betetzen zituzten sabelak. Baña dena umore onean, neurritik pasatu gabe. Barrabaskeriren bat ere egiten zuten: etxekoandreari soñekoren bat artu edo orrela.

Olaxe, gutxi gora-bera, pasatzen zituen arriolgoak esandako etxe oiek.

Arriolgoak erriari itzuli osoa ematen zion bezin laister, orkesta kioskoan asten zan musika jotzen, irurak arte gora-bera.

Gero, jende guzia, baxotxa bere etxera bazkaltzera. Badakigu urte aietan zer jende-pilla biltzen zan etxe geie-

netan: amabost edo ogei lagun etxe askotan. Makiña bat lan egiten zuten garai artako emakumeak, ainbeste jan prestatzen; batez ere kontutan izanda geiena edo dena su bajaran egin bear zutela.

Gizonak ere bazuten beraientzako lana: errea beraien kontu izaten zan. Zana zala, sartu gingirriñean, eta geldigeldi antxe egon bear zuten errea erre arte, su ona eukiz, noski. Arpegi-kolore ederrarekin ateratzen ziran.

Gogoan det, mutiko txikia nintzala, nola jartzen zigun ogi-zatia umerriaren azpian aitag, eta gero jateko zein goxoa zan.

Etxe askotan oitura zegoen aideak aideetara fatea bazkaltzera, eta orrela bazkaltzen zan jendea obeki, arremanak sendotuz eta oiturari eutsiz.

Garai artako jendea espia egoten zala festari esan leike, *barra-barra* jateko eta edateko, ikusiz nolako urteak izan ziran aurretik; eta, alde batetik, ongi iduritzen zait jarrera ori, ze demontre!

Bazkari ederrak eginda, esan bezela, gero beta baze goen musean partida ederrak egiteko. Bitartean, beti izaten zan mutillen batzuen bisita ere; eta, berriketaren batzuen artean kafea artuz eta kantaz, pasatzen zan arratsaldea. Gero gizonak tabernara jeisten ziran, eta ordurako orkesta asia zegoen soñua astintzen. Jendea ere poleki etorria beste errietatik, giroa ezin ohea ikusiz plazan.

Gogoan det urte batean, ni mutiko txikia nintzala, nola jarri zizkiguten, soka aundi batetik zintzilika, eltze batzuk urez beteta; beste batzuk, goxoekin; beste batzuk, autsez beteta, eta orrela. Tapatu zizkiguten begiak mutikoei, eta makillarekin asi zan gure saioa. Egia esateko, ilusio aundia egin zigun, eta ez naiz aztuko bizi naizen artean.

Afaria ere ezin ohea eginda, gero berriz plazara faten zan jendea. Gañezka egoten zan plaza. Egia esateko, musika bukatu arte irauten zuen inguruko errietako jendeak. Gaueko ordu batera edo ola ematen zaion bukaera egunari.

Bigarren eguna, antzera. Jendea gutxixeago. Eguerdi aldera, arriolgoa, beti bezela, neska eta mutil-pilla batekin, eta ezkonduak ere ikusten ziran bat edo beste, umorea jarri naian.

Irugarren festa-eguna azkena izaten zan, baña alai; eta naiko irri egin arazten ziguten, batez ere ezkonduak. Esan leike ezkonduen eguna zala.

Ezkonduak nagusitzen ziran egun ortan, arriolgotik asita; eta oso ikusgarria izaten zan, ezkonduak uztarrituta ikusita. Aien umorea eta txispa! Eta orrela egun osoan. Sekulakoak eta bi egiten zituzten, jendeari naiko irri eta pixa egiñez.

Gogoratzen naiz nola orkestak jotzen zuen pieza bat, jende dena txutxopiko jarrita, erdian bat zala, eta alako batean nola botatzen zuten gora denen artean. Musikoak ere ibiltzen ziran adarra jotzen jendeari, eta festari bizitasun eta umorea geiago emanez. Olaxe bukatzen ziran erriko festak. Azkeneko eguna izaten zan zerbait luzeagoa, jendeari gustoa emanez, eta azkenean denen artean kantatuz: «*jPobre de mí!...*».

Orkesta erriak ordaintzen zuen, beti bezela; eta mutilak ekartzen zuten akordeona. Festa guzietarako beraien kargu izaten zan.

Errolda

Festetako iru edo lau egun oietan, gauero geienezan *errol-da* saioa izaten zan, eta emen bai lan geiago izaten zuela akordeonak, egunez baño.

Erroldari aurrera egiñez, esan bearra dago festetan egiten ziranak erriko neska guziei egiten zirela, beta egon ezkerro, jakiña.

Baña gero, urtean zear egiten ziranetan, mutillak artzen zuten erabakia nori bai eta nori ez, eztabaidak egiten ziran, baño asarrerik ez, eta bi talde fan eta orrelakorik ez det gogoan. Denok batera.

Errolda ere beti mutillena izan da, nola zar edo gazte; etzegoen adiñik.

Errolda asi aurretik, mutillek majo erosten zuten bear zan guzia: ardo, anisetua, patxarana eta abar. Gaua luze egiten zuten.

Asten ziran neskix bat bizi zan etxe batetik, eta andik beste neskix bat bizi zan etxera, eta orrela erri osoari buelta osoa eman arte, len esan detan bezela, beta egon ezkerro.

Etxe bakoitzeko atarian mutil denak saiitzen giñan erroldako kantak kantatzen, akordeonarekin batera.

Alako batean, kuartoko leioa zabaltzen da, eta *piper-opilla* edo galleta edo beste zerbait izaten dute oparia mutillak. Geienezan, urte aietan, *piper-opilla* botatzen zuten, oso goxoak gañera. Mutil batek artzen zituen, edo bik, bota egindako *piper-opil*, galleta eta guziak; eta orrela etxe bat, beste bat eta beste bat...

Ikusten zanean dexente batu zala, atsedenalditxo bat artzen zan. Piper-opillak progatzeko amorratzen egoten giñan. Anisetuarekin edo patxaranarekin, oso goxoak ziran.

Olaxe etxe geienak pasatzen ziran, kanta eta kanta, ixildu gabe. Kanta geienak erderazkoak izaten ziran.

Ainbeste mutillen artean, barrabaskeriren bat edo beste ere egiten zan. Adibidez, etxe-barrura sartu sukalderaño; beste batean, balkoitik gora igo, eta orrela, beste batzuen artean.

Oitura aundia zegoen, errolda bukatu baño len, mutil-mordoska batek auntzak jetzi eta plazan sua egitea. Gero, plazaren erdi-erdian, mutil denak piper-opillak jaten esnearekin.

Urte batean, errolda bukatu ta goiz aldera, len esan bezela, mutil denak oraindik plazan zeuden, barrabaskeriren bat egiteko asmotan; eta bai egin ere.

Eztakit nor izandu zan, baño ara nun agertzen dan mutil bat txerrikumeak jaten duten ganbelarekin, eta begira zer asmo zituen: auntzei jetzitako esnea ganbelara bota; eta, galletakin nastuta, batek baño geiagok jan zituzten, arrigarria bada ere. Baña beste askok azkar alde egin genden, tripakoak bota gabe...

Beste errolda batean, aditzera badet nola egin zuten laister-apustua, baño larru gorrian. Sekulakoak egiten ziran, eta batzuetan neurritik pasatu ere bai. Etzan ikusten txakurrik gau ortan, ez orixe; larri ta estu artzen giñuzkien. Gurdiak ere ankaz gora ikusten ziran urrengo egunean.

Aditzera badet, Dorrauko festetan, Juan Benitoren tabernan, Unanuko mutillak astakeria edo, obeki esanda, broma oso txarra egin zutela. Kanpoko leioan zegoen esne

ontziren batean kunkuna edo zapoa sartu omen zuten, eta gero komeriak. Batek ori zala, besteak bestea zala, baña gauza ola ez omen zan gelditu: Lizarragara fan omen ziran juezarengana, deklaratzera nor izan zan... Broma oso txarra izan zan au.

Laugarren festa eguna

Badakigu festak iru egun izaten dirala, eta laugarrena mutillen kontura izaten dala.

Mutillendako egun aundia. Goizetik gosari ederra egin tabernan, giro ezin obearekin. Barrabaskeriak ere etziran falta. Ainbeste mutillen artean, normala jotzen det.

Akordeona artuta or ibiltzen giñan taberna batetik bestera, makiña bat jota kantatuz eta dantza egiñez, eguerdi arte. Gero, berriz, sekulako bazkaria, giro ezin obean.

Arratsaldean plazan jartzen genduen akordeona, gaua arte. Urte frankoz etorri zan Etxarriko Joxe itxua. Pako Arbizukoa ere bai. Beste akordeonista, oso jatorra, Satur gipuzkoarra. Asko maite zuen Unanuko jendeak. Gero, kintoak ere ekarri zuten bein baño geiagotan. Eta ez naiz aztuko Gillermo Jaurrietakoaz. Ekarri zuten au ere urte frankoz. Txispa aundia zuena eta juergista ikaragarria.

Orrela ematen zioten mutillak erriko festari amaiera, urrengo urtea arte.

Ez naiz aztuko mutiko txikiak zer egiten genduen erriko festetan. Denok dakigu erriak zenbat koete botatzen ziran festetan, buzaiaren edo aguazillaren eskutik geienak.

Ba, erriko mutikoak erne egoten giñan noiz botatzen zituen, lertu egiten bazan segidan makillaren billa fateko; eta, ezpazan lertzen, obeki gureztat. Polbora kendu egiten saiatzen giñan, eta gero gure festa izaten zan. Alegia, polbora atera eta arri zabal baten gañean jartzen genduen. Gero, orren gañean beste arri bat; eta, azkena, beste arri bat

bota egiten genion indarrez gañera, eta egiten zuen izugarrizko eztanda edo otsa. Mutikoei ori gustatzen zakigun asko.

Ni neu ere ibilia naiz makiña bat; eta *fu-fu* egitekoa, berriz, orma baten zuloan jartzen genduen, su eman eta, alde egiten bazuen zuloatik, gure zoramena izaten zan.

Gogoan det erriko mutiko bati eskuan nola lertu egin zaion *fu-fu* egitekoak; baña, zorionez, etzan izan larri aundiagorik.

Saltzalleak eta kanta zaar bat

Festakin jarraituz, baña gaia aldatuz, denok dakigu nola etortzen ziran erriko festetara saltzalleak. Auen artean bat, *Txotxera* esaten genion emakume bat.

Gauza asko eukitzen zituen saltzeko. Jartzen zuen maian, plazan, eskiña batean: xoxoak edo goxokiak, *txupa-txus* bezelako alako luze batzuk, begiak estaltzeko kartonezko antejo batzuk eta abar eta abar.

Antxe egoten giñan gu, begiak kendu gabe, mai inguruan, txoriak bezela, saltzen zegoenari deskuido txiki bat noiz arrapatuko, artu eta iges egiteko. Bein baño geiagotan egiñak gera. Erne egon bear ziran mutikoekin, batak edo besteak beti zerbait lapurtzen genion eta. Ala ere, inguruko errietako mutikoak oraindik lotsagabeagoak ziran. Etzuten saltzalleak irabazi aundirik aterako egun oietan...

Eta, bukatzeko, erriko festari buruz gogora etorri zaizkiten gora-berak, esan bearra dago urte asko ta asko pasatu dirala. Lengo oitura eta erriko festak, erriaren edo jendearen egoera ikusiz, fan dira gauzak aldatzen poleki-poleki, beste erri batzuetan bezelaxe, eta etorri zan etorri bear zuena: alegia, erri osoan sortu ziran ikamikak eta eztabaidak demokraziarekin batera, eta erriko festa aurretik gañera.

Erriko gazte-multzo batek alako musika nai zuela, beste multzo batek beste bat nai zuela. Orrela asi ziran eztabaidak. Eta orren ondoren erria zatitu egin zan bi alde, politika tartean zala.

Eta esaten dute politika zikiña dala, eta ortan konforme nago; eta erri txiki batean min geiago egiten du gañera. Orrela pasatu ziran urte franko, erria bi alde eginda.

Urteak etorri, urteak pasa, esaerak dio urak azkenean beren lekura etortzen dirala; eta, beste erri batzuetan gertatu dan bezelaxe, Unanun ere ez dago len añako gorrotorik, eta ez gutxiago ere. Baña politika zikin orrek beti uzten du arrastoren bat ongi sendatu gabe.

Urrengo kanta auek gure erritar batzuek Ronkalen ika-siak dira, basoan lanean ari zirala Unanuko eta Dorrauko mutil batzuk, eta probintzianoak ere tartean zirala, noski. Zerbait aldatuta daude gure inguru ontako toki-izenak jartzeagatik, eta gu baño zarragoak, gure aitak eta gaztea-goak ere bai, noizean bein kantatzen zituzten, erriko festetan eta olakoetan. Onelaxe dira:



Gizon bat etorri da
lengo egun baten,
bertso bi paratzeko
betarikan deten.
Itxurazko moduan
jardun din esaten
Elkorri aldi ortan
zer pasa dan aurten.

Zezen bat bajatu da
Putteritik bera,
Arañako soroan
lenengo sarrera
An Benantziok bildurtuta
Lizerrango aldera,
gaixoa ezta joan
paraje txarrera.

Igande arratsaldeko
illunabarrian,
Ilariok billatu du
ibai baztarran;
zer dan ezagutzeko
artu dik aurrian,
Arbizun sartu zaio
illunabarrian.

Ikusi zutenian
Ergundarra zala,
elkarri esan zioten:
«Galduak gerala.
Ez diagu ipiñi
esamesa txarra,
basurdia dalakuan
il diagu txala».

Bigarren bertsoan, «Lizarrabengoko aldera» bearke luke, baiña guk «Lizerrango aldera» esaten degu. Eta laugarren bertsoan «Ergundarra» irakurtzen da. Guk, izan ere, orrela esaten degu, «Ergoienatarra» esan bearrean.



Auntzia larrañan, Sakanan.

Auntziak Iarrañan

Belarrak sartu orduko, San Fermin inguruan, elkarren atzetik asten ziran ontzen babak, oloa, garia eta abar. Erriko gizonendako lan txarra zetorren; alegia, den-dena segaz ebaki bear zuten.

Ortaz aparte, jendeak bildur aundia zion aize-ego madarikatuari; eta geienean gauzez etortzen zan indartsu eta dena eraman nairik.

Garia, zutik arrapatzen zuena, arriskua zauken isusteko, buruak alkar jota alea lurrera erortzeko, alegia; eta ebakita arrapatzen zuena ere, aize indartsu orrek aidean eramateko, nai zuen lekura. Erreketara eta zuloetara, adibidez. Baita ormenak eta balak ere eramaten zituen. Atera kontu nola ibiltzen zan aize-ego ori.

Orregatik, kontuz ibiltzen zan jendea, ebaki-ala ormenak egin eta atzetik balak egin eta lotu. Ondoren, segidan, bala guziak elkarren ondoan aize-egoari jarri, bada-ezpada, len esan bezela, balak ere eraman egiten zituen eta, edo mugitu beintzat bai.

Santiago inguruan etzuen utsik egiten ego madarikatu orrek, eta bereak eta besterenak egiten zituen. Esan bezela, balak zilipurdika errekan sartzen zituen.

Gogoan det jendea derrior gauzez faten zala gari lotzera. Etzan askorik ikusten, baña egoaren bildurrez. Gogoratzen naiz ni neu ere bein baño geiagotan fan naizela, sikira bakarrik soka jartzera ere lurrean, eta ormena jarriz, gero beste batek lotzeko.

Larrañan auntzian asterako, larraña bera garbitu eta txukundu egin bear zan, ongi gañera. Alegia, zauken belarra moztu; obeki esanda, sega txiki batekin izeitu eta moztu ederki, lur bizian uzteko; gero, zuloak bete buztinëz; eta, azkena, bei-kakarekin larrañ osoari gañetik bota.

Jendeak etzuen etxeetan bei-kakarik, eta gogoan det nola faten zan, gurdia artuta, kaka biltzera Ondatza.

Larraña prestatuta, eguraldiarekin jokatu bear zan. Badakigu nolako eguraldi zoragarriak egiten zituen urte aietan, zorionez. Auntzia egin ondoren, geiena bear zana aizea izaten zan.

Auntzia asteko, idiekin ekartzen ziran balak larrañera; gero, bana-bana zabaldu larrañ guzian, eta bei-paraekin asten giñan intresiaren (*trillo*) gañean buelta eta buelta. Bi edo iru lagun ibiltzen giñan intresiaren gañean, eta aparte karga geiago ere botata, dena ongi txikitu eta autsi arte.

Orrez gain aparte, nere etxean beintzat, beorak ere bere intresiarekin ibiltzen ziran, eta gañera lan ona egiñez. Majo mugitzen zuten auntzia beien aurrean.

Kontuz eta argi ibiltzen giñan, beiak beren egin beorak egiten asten ziranean. Ortaz aparte, arriskua zegoen azienta gorria *eulitara* asteko, eguzkiak majo kiskaltzen zituan baztarrak eta.

Gogoratzen naiz, baita ere, egun oietan amaiketako goxoak egiten zirala larrañan bertan: lukeinka oliotan egondakoa, eta solomoa ere berdin. Larrañetik asita aditzen zan urriña edo usaia, eta urdaiarena ere bai, etxetik atera orduko.

Ikusten zutenean auntzia ederki txikituta edo autsita zegoela, gero asten ziran poleki-poleki agotza edo lastoa kentzen, eta azpian gelditzen zan garia; eta gero eldu zan

zallena. Aizea bear izaten zan, aizatzeke garia. Komeriak izaten ziran egun askotan.

Olaxe izaten ziran garai artako larrañeko auntziak.

Urteak pasa, urteak etorri, sartu ziran Unanun ere trilladorak. Erri osoan baziran lau. Baña auek ekarri baño lenago, kanpotik etortzen ziran auntziak egitera: Arbizutik, Lakuntzatik, Lizarragabengoatik, Lizarragatik, eta Dorrautik ere bai.

Gogoan det nola larrañak lena txukuntzen ziran bear dan bezela; eta gero, trilladora etorri baño len, izugarrizko lanak egiten zituela jendeak, batez ere balaketan.

Ori etzan naiko izaten. Gero, larrañan bertan, etxe bakotxaren bala guziak pillatzen ziran urren-urren eta zuzen eta txukun. Etxe baten añako altura artzen zuten orrela. Trilladora etorri baño len, bala guziak larrañan egoten ziran, lana gogotik eginda.

Egia da lana beltz egiten zala; baña tarteak ere izaten ziran zerbait jateko, eta berriketaren bat edo beste ere egiteko jendearen artean. Maiz izaten ziran matxurak edo geldialdiak. Eta oitura zegoen, etxe bateko auntziak egitean, zerbait jateko ta edateko, etxeak ematen zuena.

Aurreneko urte aietan, bi gizonek pasatzen zuten gaua trilladora azpian, bada-ezpada.

Len matxura aipatu det; eta egia da maiz izaten zirala, bai trilladora batean eta bai bestean. Eta norengana faten giñan? Eskerrak Errotako Sebastiani. Gizon zintzo eta ixilla, eta beti prest egoten zana laguntzeko. Makiña bat mesede egindakoa. Bera ibiltzen zan inguruko erri geietan matxura guziak konpontzen.

Urtea eztauket gogoan; baña begiekin ikusiko banu bezela nago oraindik, erriko taldetxo bat Arbaldako bidez,

festetarako ator nabarrak jantzita, pañuelo gorri eta guzti, nola artu zuen Lakuntzako bidea, Mundiñanotik barrena, San Fermiñetara fateko. Gu soroan geunden, beste ainbat eta ainbat jende bezela. Esan nai det urte aietan ere faten zirala Iruñara erri txikietatik ere.

Urte asko ta asko pasatu ziran auntsiak trilladoran egiten. Gero sortu ziran edo asi ziran kosetxadorak onera ere etortzen. Baña jendea azkar guartu zan ezer gutxi geratzen zala ola ere. Alde batetik, eguraldiak ere gutxi laguntzen zuen; eta jendeak etzuen ikusten aurrera egiteko bide egokirik.

Iraun zuen olaxe jendeak urte batzuk; baña gutxi, egia esateko. Eta badira ia urte franko, aurrerago esan detan bezela, eztala ikusten soro bat ere gari Ergoiena ballara guzian, eta inguruan ere antzera.

Igarira

San Fermin aldera, edo Santiagoak bearbada izaten ziran, Unanuko mutikoak asten giñala ualdera eta presara jaisten igarian ibiltzera.

Joera aundia genduen, Errotaren ondoan zegoen Pilipineko soroaren balsa aundi artan ibiltzen. Ia egunero jaisten giñan. Laisterka asi errian eta ez giñan gelditzen ualderaño. Emen baziran leku bat baño geiago; baño Errotaren ondoan geiena ibiltzen giñan, eta antxe atsegiñena zan.

Ortxe bertan, zeozer beraxeago, antxe egoten giñan mutiko-pilla bat, bakotxak bere tokiak artuta, eguzkitan, arri txabal, legun eta polit batzuen gañean etzanda jarrita. Eta, gañera, mundura etorri giñan bezela. Urte aietan etzan traje-bañorik.

Gogoratzen naiz egun batean, Errotako leku ortan lasai giñala, nola Unanuko gizon batek –bizi da oraindik– arrapatu zizkigun arropa guziak, eta nola utzi zizkigun Errotaburuko gañean, Lizarragara faten dan bidean.

Garai batean zegoen ualdean, Arbizuko presara ere faten giñan bein edo bein. Gañera, oso gustokoa zan: motxa baño ura korrientean beti, bere saltotxoarekin.

Egun batean, igarian ari giñala, nun ikusten degun sube bat luze-luze eginda presaren azpian. Larri eta estu atera giñan denok. Gero, zoztaka batekin zirikatuta, alde egin zuen, eta etzan txikia, egia esateko.

Subeak aipatu ditut, eta galantak il zituen Errotako Sebastianek errota zarreko zubiaren azpian. Tiroz il zituen

eskopetarekin. Izugarriak ziran. Ikara edo bildurra sartzen zuten gorputzean ikusita ere. Neuk ikusi nituen askotan; latzak ziran.

Ualdean, esan detan bezela, toki politak bazeuden igarian egiteko. Baña nik uste det ederrena eta egokiena Errobaburuko presa zala, zalantzarik gabe. Ura, nai genduen neurrian, belaunetatik asi eta lepotik gora; eta baztarrak txukun eta garbi.

Asko etortzen giñan onera ; eta emen ere, besteetan bezela, larru gorrian ibiltzen giñan jende guzia.

Emen, gañera, Lizarragatik ere etortzen ziran; ez ainbeste Dorrautik. Emen etzan ikusten suberik; baña ur-saguak bai makiña bat.

Bai ualdetik eta bai presatik ere, gose ederra ekartzen genduen etxera.

Ibintzeak

Auntziak bukatuta –gutxi gora-bera Ama Birjiña Abuztukoaren egunerako–, jendea asten zan soroak garbitzen bereala, eta arbia ereiten zuen al dan azkarrena.

Orrez gain aparte, oitura zegoen betidanezazienda gorria eta txerriak ere ibintzetara eramatea.

Mutikoak geienean aziendarekin faten giñan; alegia, lau edo bost bei eta bai idi-parea ere, egun askotan. Gogoratzen naiz zein gustora ibiltzen zanazienda larrez larre, urtean zear eziñezkoa izan arren. Burruka bikañak ere izaten ziran idien artean; orro-otsak eta adarkadak ere bai.

Neskak, berriz, txerriekin faten ziran ibintzetara. Gari-izpiak eta ale babak majo billatzen zituzten. Urrengo egunean etzegoen biderik erakutsi bearrik. Zuzen faten ziran.

Mutikoak alde batetik aziendarekin, eta neskatoak bestetik txerriekin, pilla bat biltzen giñan denon artean, bai alde bateko larretan eta bai beste aldean ere, eta giroa oso ona.

Mutikoak majo ibiltzen giñan ool batekin larreetan goitik bera, eta *otso-peleira* ere egiten genduen, beste olga askoren artean. Bazegoen denerako beta.

Sua eginda ere, patatak erre ta janak gera ibintzeetan. Eta patxaranak suan erreta, zer esanik ez; oso goxoak ziran. Orduan oraindik ontzeko egoten ziran.

Urrak ere majo billatzen giñuzkien; eta makiña bat alkakaratxa jan degu denok ere. Oiek bola txiki batzuk dira, eta asieran txuriak izaten dira, gero berdeak, gero

gorriak eta azkenean beltz-beltzak ontzen diranean. Txoriak ere asko jaten dute ori.

Gogoratzen naiz, Utzubar alde ortara faten giñanean ibintzetara, nola egiten giñuzkien aritzezko maixkillak pilla bat, ongi lotuta; eta gero, beiekin edo idiekin, gurdia kargatuta, etxeratzen giñan.

Ez naiz aztukoazienda gorria asten zanean eulitara, buztana jasota, arratsalde guzirako sartzen ziran faidira, aritz edo fago azpira alegia, eta antxe egoten ziran, eguzkiak zeozer indarra galdu arte. Gu, mutikoak izan arren, naiko bildurtuta egoten giñan. Alako batean, banaka-banaka eta mantsoturik ateratzen ziran larre-zelaietara belar jatera. Bitartean, guk beta izaten genduen naiko masosta jateko.

Azienda gorria suelto ekartzen genduenean etxera, illunabarrean, mutiko denok atzetik etortzen giñan. Oraindik gogoan daukat aziendak botatzen zuen usaia, alde batetik; gero, txoriak eta grilloak kantaz; eta ikusten ziran, baita ere, ipurtargiak or-emen. Oso zoragarriak ziran une oiek neretzako. Orrelakorik eztegu geiago ikusiko eta biziko ere. Illun-ezkillarekin batera sartzen giñan errira.

Olarekin goitik bera

Beste oitura bat, mutikoena, oso gustokoa, izaten zan, ibintze garai ortan, olarekin larreetan goitik bera ibiltzea.

Larreak, jakiña, gain-bera euki bear zuen dexente. Belokin bazeuden bi larre oso egokiak ortarako; eta Ibarren beste bi, auek Dorraukoena; baña Unanura begirazeuden. Baziran beste bi edo iru Zaldu alde ortan; baña ain onak etziran.

Belokiko bizkarrean dagoen Kaleko izeneko etxearen larrean, makiña bat pantalon zulatuak gera. Txandan egoten giñan elkarren atzetik, bakotxa bere olarekin.

Eta or bertan, zerbait beraxeago, Artxaneko larrea. Onek gain-bera dexente zuen, eta an faten giñan zilipurdika, muno gañetik beko zuloraño.

Pasada ederra artzen zuten pantalon motxak, atzetik noski; eta belaunak ere ederki urratuta faten giñan etxera.

Bein baño geiagotan laister egiñak gera, larreko nagusiak atzetik segituta; eta olak ere desagertzen ziran egun batetik bestera.

Dorrauko larreetara ere asko faten giñan olarekin ibiltzera, eta lasaiago gañera. Baña, len esan detan bezela, gain-bera ikaragarria zeukien, eta or bai miña artzeko arriskua zegoela. Makiña bat mutiko sartuak gera ziztu bizian sasien gañetik beko zuloraño.

Batzuek, olari zulotxo bat eginda eukitzen genduen, ziri batekin, mantxoago joateko. Baña ala ere an faten

giñan inbuluzka sasietara, urratu bikañak eginda. Baña negarrik ez genduen egiten iñork ere. Gustokoa baizan olga ori.

Etxera etorritakoan, gauean, lendabiziko galdera:

-Nun ibili aiz?

Minduta ikustean, eta pantalonak ere erdi zulaturik, kasketakoren bat edo beste ere artzen giñuzkien; eta gero, jakiña, pantalonak petatxoekin ibili bear. Baña ez giñan lotsatzen ala ere. Garai artan orrelakoak asko ikusten ziran baztarretan.

Fruta-ostutzea

Gaia zerbait aldatuz, baña ibintze-garai ortan eta urte Gaietan, mutikoen artean joera aundia zegoen erriko baratz eta baratz etziranak ere maiz asko bisitatzea.

Sagarrez, okaranez eta urdarez ere betekada ederrak egiten giñuzkien, berde zeudela ere. Gure txirrinta izaten zan ostutzera fatea, eta bereala jan egiten giñuzkien, artu-ala.

Egunez faten giñanean, sagarrak edo okaranak izaten ziran ostutzen giñuzkienak, egunen batean Antsaneko sagarretara, beste batean Tabernakoetara, bestean Miltonekoetara eta abar.

Larri ta estu ere ibiliak gera, eta laister egin ere bai, nagusiak atzetik segituta. Lepazañeko ederrak artutakoak ere bagera makiña bat. Baña or gelditzen ziran min guziak.

Gauetz ere joera izaten genduen ostutzera fatea. Baña etziran sagarrak izaten, baizik urdareak; eta, geiengan, Danboliñeko baratzera, eta bai Bikaionekora ere.

Kontu aundiz ibiltzen giñan, gaua izatean. Laister egiñak gera baratz bi oietatik ere, batean zakurra zalarik eta bestean nagusia zalakoan.

Zurgiñarenak ere bazituen erritik kanpo okaran-arbol pillak bat. Ikaragarri ekartzen zuten, eta oso goxoak. Arbol txikiak ziran, baña pestea ematen zuten, esan detan bezela. Ualdean igarian ibiltzera faten giñanean, bai berakoan eta bai gorakoan ere, barratu edo ase arte jaten genduen.

Gogoan det baita ere urte batean, auntsiak trilladoran egin giñuzkiela, nola egin zituen asmoak ostutzera fateko

andre-mordoska batek, eta bai fan ere, gauez jakiña. Artu ere dexente egin zutela badakit.

Urrengo egunean aurpegi luzeak ikusten ziran trilladoran. Erruak edo kulpak mutikoendako izaten ziran geienean; baña, esan degunez, ez giñan bakarrik.

San Donato eguna

Abuztuaren 7-an izaten da San Donato eta San Kaietanoren eguna; baña ospatu, Abuztuaren lendabiziko igandean egiten da.

Gogoan det, ni mutiko txikia nintzala ere, zer jende-pilla igotzen zan ermitara; eta geiago esango nuke: indar geiago artu duela oitura orrek, urteak pasatu arren.

Ongi daukat buruan ermita erdiberritu eta inauguratu zan urte ura. Sekulako jende-pilla bildu zan egun ortan.

Ni neu ere oñez igo nintzan, oraindik nere makillarekin eskuetan, beste edozein bezela. Jendea arrituta gelditzen zan ni ola ikustean.

Iruñetik etorri zan meza ematera obispo jauna. Jendea, esan bezela, asko zegoen, leku guztietatik. Meza ondoren badakit zerbait eman zutela. Egia esateko, egun polita izan zan. Jendea taldeka, ekarri zuen jana janez eta umore onean.

Gero, jendea azkar asi zan alde egiten poleki-poleki, bakotxak bere bidea artuz. Ni, jaisteko ere, urte aietan trebea nintzan; baña esan zidaten, nai baldin banuen, Etxarriko kamionean jaistea banuela, eta ez nion ukatu. Nerekin batera baziran gende geiago.

Orduan izan zan lendabiziko aldiz gurutzatu egin nuela Andiako zelai zoragarri ori, asi Beriaingo tontorretik eta Lizarragako tunelaraño. Oso egun ederra izan zan nerezako. Egin nuen, esan leike, abentura bat.

Gaurko egunean, berriz, konpontzeko asmotan omen dabilta San Donatoko ermita. Naparro osoan dagoen ermitarik altuena omen da, 1.494 metro alturan.

Nik uste merezi duela olako toki zoragarri eta paketsu batek. Egun garbi eta eguzkitsuarekin, esan leike bista galdu egiten dala. Orregatik, berriz konpontzen badute, denentzako albiste pozgarria izango litzake.

San Mielen bisita

Irailaren lendabiziko igandean, oi duen bezela, etortzen izan, eta etortzen da ere, Miel aingeru deuna Ergoienako ballarara; eta egun bat edo bi igarotzen ditu iru errietan.

Garai batean, egun alaia eta polita izaten zan. Alde batetik, errietan jende asko bizi zalako; eta ortaz jendea erruz faten zan prozesiora, Miel aingeru deuna errezibitzera lena, eta gero despeditzera.

Urte batean erri batera etortzen zan gau egitera, eta urrengo urtean bestetara, aldatuz.

Badakigu denok ere nola ibiltzen zuten urte aietan San Miel aingerua: mando baten gañean eta dotore, erriz erri. Ikusgarria izaten zan erri guzia, elizatik asi ta prozesioan, Miel aingeruaren billa eta ekartzera.

Urte batean Lizarragako mugaraño ekartzen zuten, eta antxe egon bear zan, beste erria etorri arte.

Bitartean, bi errietako ezkillak etzuten otzik: majo astintzen zituzten batzuek eta besteak ere. Bi errietako mugan topo egiten zuenean jendeak, orduan ixiltzen ziran ezkillak.

Egin bear guziak eginda, jendea poleki-poleki asten zan erriruntz berriz; eta berriz ezkillen saioa asten zan. Ura jotzea! Etziran ixiltzen elizara sartu arte jende guzia.

Meza nagusi ederra; eliza gañezka; eta, azkenean, Miel aingeruaren irudiari banan-banan musu ematen zaion, bitartean jendeak gogo aundiz kantatuz:

*Migel, Migel,
Migel guria,
gorde. gorde
Euskal Erria.*

Guazen, euskaldunak,
Aralarrera,
Migel aingerua
bisitatzera.

Aralar mendira
igo gaitezen,
Migel ikusteaz
ez gera aspertzen.

Aitortu dezagun
bere aurrean,
naiko degula ill
geren fedean.

Euskaldun lurrean
giñaden jaio,
gure sinismena
bizirik dago.

Gure aurrekoen
fede garbia,
sekulan gezurrez
nasi ez dedilla.

Aurrekoetatik
degu ikasi
oso ziñez eusten
lege onari.

Egiak zition
gure erriari
ontasun mesede
asko ekarri.

Eztegu nai autsi
kristau legea,
ez dotriña gaiztoz
gaur nastutzea.

Osorik osoan
guztia gordez,
ez dezagun saldu
gezurren ordez.

Alperrik Satanas
leiatuko da,
eztigu galduko
sinismen ona.

Euskaldunak pobre
izan gindezke,
euskaldunik ezta
federik gabe.

Aralartik Migel
begira dago.
Luzbelek parterik
eztu izango.

Gero, berriz, San Migel aingerua erritik joaterakoan,
beste onela kantatzen zitzaion:

Agur, Migel aingeru,
agintari aundia,

izan beti tronotzat
Aralar mendia.

Aditu euskaldunen
itz miñez bestea,
bota Euskal Erritik
deabruen jendeak.

Bakarrikan nai degu
gure Jaungoikoa,
fedea bat, bataio bat,
biotz bat osoa.

Bazoaz Aralarra,
aingeru santua,
zerura iristeko
emaiguzu eskua.

Atera zazu, Migel,
ezpata zorrotza,
dragoi liberal ori
utzitzeko ill otza.

Olaxe ematen zitzaien bukaera Miel aingeruaren bisitari, ura urtero utsik egin gabe etorria.

Urrengo egunean, Dorraura fan bear baldin bazuen, mugaraño laguntzen zaion, beti bezela; eta, Unanu izan bazan azkeneko erria, gogoratzen naiz nola faten zan mando gañean Ondatzko bidetik, Unanuko erriak lagunduta, Uarteko mugaraño.

Ezkontza-arrijia gurdian

Ziur esateko ez naiz gogoratzen zer urte izango zan; baña zni oso umea edo gaztea nintzala badakit: oso mutiko koskorra oraindik, zazpi edo zortzi urte gutxi gora-bera.

Orregatik, nik orain pentsatzen dedanez, 1954 edo 1955 urte inguruan izango zan, gutxi gora-bera.

Baña oso ongi gogoratzen naiz, atzo gertatu izan balitz bezela, Fermin Merzero Merzero, Angarteko etxeko semea, nola ezkondu zan Felisa Berastegi Lizarraga, Mari-garneko etxeko alabarekin; eta nola eraman zuten *arrijia*, gurdia goraño gauzez beteta.

Ziur ez nago idiak edo beiak ziran gurdiaren aurretik, ipurukoak eta beste gauza asko dotore jantzita.

Gurdian gogoan det, etxean bear izaten diran beste gauza askoren artean, koltxoi, maindereak, burukoak, armarioa, aitzurra eta abar eta abar zirala.

Oraindik ere nere begien aurrean ikusiko banu bezela nago nola atera zan Marigarneko etxetik, eta nola fan zan plazatik aurrera Angarteko etxeraño.

Au izandu zan, nere denbora guziko, lendabizikoa eta azkeneko arrijia ikusia. Ez daukat geiago gogoan.

Badakit, gaiñera, nere izeba Rosario Gainzak esanda, egun oietan kantatzeko oitura bazegoela ezkondu berrieri.

Goazen, goazen ganbarera,
guatze txuri nabarrera,
ardo txuri edatera,
gaba ona pasatzera.

Txabolak

Garai artako olga eta oiturakin aurrera egiñez, eta au Gere –nola ez?– mutikoena izanik, esan bearra dauket, eztakit nola, baña ni nerau eta Joxe Luis Zarorena buru giñala beti, beste lagun batzuekin batera, joera aundia genduela, erri ondoan dagoen Arzibita alde ortan, jo ta ke txabolak egiteko. Oso gustokoa zan biendako ere.

Lena asten giñan toki aproposena billatzen. Gero, zorua berdinduta, baztarreko paretak jasotzen, den-dena aitzurrarekin zoiak eginda an bertan. Uzten genion sarre-rako atakatxo bat, gero atea jartzeko. Goiko aldean zura jartzen genion, eta gañean zoiak.

Gogoan det urte batean nola fan giñan Lixintxorpera, artu aizkorak eta mutiko-pilla bat; eta bai egurra egin ere.

Gogoan det, baita ere, nola ikusi ginduan basoko guardak, errikoak. Zer asmoak giñuzkien ikusita, etzigun kasorik egin.

Orrela, txabolari ederki jarri genion, esan bezela, goiko aldea; eta gero berriz ere zoiarekin, tella bezela jarrita, estaltzen genion goiko alde ori.

Makiña bat ordu pasatzen giñuzkien txabolan sartuta. Sua ere egiten genduen. Eta gu baño zartxeagoak ziranak ere etortzen ziran guregana. Amak ematen zigunean merienda, txabolara faten giñan jatera.

Geienez betikoak izaten giñan; eta gazteagoak ziranak, batek baño geiagok, baimena sartzeko eskatzen ziguten ango buru giñanei: Joxe Luis eta neri.

Esan bezela, geienez betikoak giñan, eta ez naiz aztuko: nere kinto zana, Martzelo difuntua; gero, Periko, Jose Luisen anaia; Aldoneko Pako ere bai; Pilipineko Bixente beste batzuen artean; eta bai ere Edroneko Joxe Anjel ere.

Ia urtero egiten genduen zarra berritu, edo beste lekuren batean berria. Garai batean egoten zan nere etxearen ondoan arrizko matxoi bat; orren ondoan askotan egiñak gera. Allatu gera egiten ere Babatzen, bi edo iru lekutan.

Aipatu det bein baño geiagotan garai artako olga eta oitura asko ta asko nere mutiko adintsuenekin galdu zira-la, txabola egitea bezela. Ez det gogoan gero gu baño gazteagoak bat ere egin zuten.

Txirrin koxketan

Erriko neska ta mutiko nastuta ibiltzen giñan olga bat
auxe zan: *txirrin-koxketan*.

Gurdia bear zan, eta oiek etxe denetan zeuden, binaka
gañera; baña obeki ibiltzen zan belarretarako gurdi oietan,
luzeagoak eta ariñagoak ziran eta. Gañera, kartolik gabe;
txarrantxak bakarrik.

Zazpiren bat neska-mutiko, gutxi gora-bera: bat, gur-
diak duen andeitzaren edo pertikaren puntan, ziriari elduz,
jartzen zan; eta besteak, giñanak, gurdiaren atze-atzean,
txarrantxa bat andeitzak duen azkeneko zuloan sartuta jar-
tzen giñan, denok kantatuz:



Txirrin-koxketan,
moli noixketan;
arrantza zuringo
arrotza puttingo.
Propina bat, propina bi,
propina iru, propina lau,
propina bost, propina sei,
propina zazpi, propina zortzi,
propina bedratzi, propina amar...

Eta, orrelaxe, abar eta abar. Bitartean andeitzaren puntan zegoenak antxe iraun bear zuen.

Andeitzaren puntan gora eta bera zabillenak etzuen izaten ipurdian otzik; eta, orrelaxe, sei edo zazpi, giñanak, txandan denak pasatu arte.

Neska bazan andeitzaren puntan zabillena, indar aundiagoarekin astintzen genduen gurdia. Orregatik, baziran neska bat baño geiago, mutillekin olgan ibiltzea nai etzutenak.

Gantza-kentzallea

U nanuko erri osoan oitura aundia zegoen ume txikiei, eta ain txiki etziranei ere, bildurra sartzeagatik onela esatea:

–Gantza-kentzallea etorriko da!

Edo bestela:

–Munduko señora etorriko da! Ara emen Martin Pixtu!

Negarrez-edo, guatzera etzuenak nai fatea, edo olako zerbait, bai gurasoak eta bai senide zarrenak ere, makiña bat ikara eda bildur sartu digute esanez:

–Gantza-kentzallea etorriko da! Eta bai ere Martin Pixtu!

Olaxe, ume gizarajoak faten giñan engañatuta guatzera, ixil-ixilik. Eskaleretan asten giñanean gora, begiak erne eta zabal faten giñan; eta ganbaran zer esanik ez, alde batera eta bestera begira,

Eta, sorotik etortzen giñala, egun askotan gauez, bildur ederra ekartzen genduen, gogoratuz Gantza-kentzallea or zabillena, eta ez giñan allatzen bereala-berealakoan etxera.

Ikusi-makusi, zer ikusi

Guatzera faten giñanean, gauean, nere etxean beintzat, Goitura aundia zegoen, eta Euskal Erri osoan ere bai, *ikusi-makusi*, zer *ikusi* ibiltzea; eta bai ere “senar-emazte aldika”. Badakigu urte oietan etxe geienetan fameli aundiak zirala, eta ume asko izaten zirala. Esaten ari nintzan bezela, guatzera fandakoan, ia gauero ibiltzen giñan *ikusi-makusi*-ka.

Lo egiten genduen kuartoan, bi guatze aundi egoten ziran, eta guatze bakotxan bi lagunek egiten genduen gutxienez lo. Guatzera fan orduko asten giñan *ikusi-makusi*-ka. Adibidez, bat asten zan esaten:

–Asten da *a*-rekin; eta bukatu ere *a*-rekin.

Beste gañerakoak zer zan asmatu bear izaten genduen. Lenengo asmatzen zuenak, gero bera zan «*ikusi-makusi*, zer *ikusi*» esaten zuena. Olaxe pasatzen zan denbora; eta gu, berriz, geldi-geldi lo artzen faten giñan, aingeruak bezela.

Beste oitura bat ere bazan, au ere guatzera fanda, garai artakoa; eta, aurrekoa bezela, au ere asmatu egin bear zan.

Asmatu, adibidez, erriko etxe batean zer fameli bizi zan, ez geiago eta ez gutxiago: orrenbeste senar-emazte, auen senideak, aiton edo amon eta umeak...

Au esaten zuen asten zanak, eta beste gañontzekoak asmatu egin bear zuten bete-betean. Garai artako urteetan etzan izaten oso xamura asmatzen, etxe geienetan jende asko bizi zan eta.

Eta, aurrekoan bezelaxe, emen ere lo artzen genduen, urrengo egun arte.

Etxarrira festetara

Garai batean joera aundia zauken Unanuko jendeak Etxarriko festetara jaisteko. Bai jende zarra, eta bai mutil, neska eta mutikoak ere, erruz joaten giñan.

Mutiko koskorrak giñala oraindik, gogoan det nola jaisten giñan oñez, Utzubarko xenda artuta, eta nola sartzan giñan areiztian gurdi-bidean. Bitartean, aurretik, bidean naiko masosta jaten genduen.

Erriko pokalera allatzen giñanean, zerbait lotsatu bezela egiten giñan, ikustean erri aundia eta jendea ere ugari; baña, mutiko-mordoa izatean, aurrera egiten genduen indarrez.

Diru pixka bat bagenduen amak emanda, eta gure ilusioa eta poz aundiena *boladoreetan* ibiltzea izaten zan. Baziran *autos de choque* ere; baña ikusita konformatzen giñan. Etzuen ematen orrenbesterako poltsikoak. Jai-giroa ikusiz, oso gustora ibiltzen giñan, mutiko-mordo bat, denok batera.

Gero, gañera, erritar asko ta asko ikusten giñuzkien Etxarriko kaleetan; eta orrek konfiantza ematen zigun. Nik esango nuke ia-ia errian bezela ibiltzen giñala.

Eta esan detana egia da, Etxarritarrak eta Unanutarrak beti ongi konpondu dira eta. Garai artako urte aietan zer esanik ez; eta gero ere bai.

Beste erri batzuekin etzan gertatzen gauza bera, naiz urbillago egon. Adibidez, Lizarragatarrekin eta Arbizutarrekin. Ez genduen ainbesteko joera Unanuarrak bi erri oietara, Etxarrira bezelaxe. Lakuntzara, bearbada geiago.

Lentxeago esaten ari nintzan nola faten giñan oñez Etxarrira. Etorri ere bein baño geiagotan oñez egin giñan. Ortarako, illunabarrerako ateratzen giñan bada-ezpada. Basoa gurutzatu bear zan; eta, mutikoak izan arren, bildurra ere izaten zan. Baña, mordoa izatearekin, indarra ere orrela artzen genduen.

Andik urte batzuetara, azi giñanean dexente, gogoan det jaitxi ere oraindik oñez egiten giñala; baña itzuli edo etxera bueltatu, Pilipineko kamionean, gaueko amabiak inguru ortan.

Etxarriko krutzean egoten zan jendearen zai. Kaska-
-ezurreraño betetzen zan neskixez, mutillez eta mutikoez. Denok gañezka etortzen giñan, giro ezin obean.

Bikaioneko atarian jaisten giñan jende guzia, banan-banan ordainduz, eztakit zenbat; baña etzauken iñork iges egiterik.

Ezkillak eta zinea

Garai batean, erriko jendea erne egoten zan ezkil-dandako otsari, jakiteko zer ordu zan, urte aietan gutxik ibiltzen zuten esku-muturrean erlejua eta.

Orregatik, denok erne egoten giñan zer ordutan bizi giñan, soroan edo beste nunbait giñanean lanean.

Goizean-goiz *argi-ezkill*a jotzen zuen, eta eguerdian *anjelusa*.

Orretaz aparte, Unanuko jendeak bazakien zer ordu izaten zan Elketza begiratuta: eguzkiaren itzalak arri zuri bat arrapatzen zuenean, amaika ta erdiak izaten ziran puntu-puntu. Etzuen utsik egiten. Elketz baso baten izena, San Donatoko maldan dagoana.

Gauean, berriz, txintxo jotzen zuten *illun-ezkill*a, eta lentxeago edo zerbait geroxeago, *tiliña*, karriketari, erri osoan, etxeratzeko ordua zala esanez.

Aspaldiko urteetan galdu da oitura ori ere, beste asko bezela, erria ustutzean, jakiña.

Gaia aldatuz guztiz, gogoan det Don Felipe jauna apez zegoela, eta guk oraindik mutiko mukizu batzuk besterik ez, nola asi zaigun apez bera apez-etxean zine mutua botatzen. Mutua, baña guretzako lenengo aldia zan. Oso pozik faten giñan neska ta mutiko pilla bat. Irri egiteko irudiak ziran, baña gu oso kontentu.

Eta geroxeago ere, zerbait azi egin giñanean, Arbizura asi giñan faten igande-arratsaldeetan, apaizaren bitartez noski. Sekulako neska eta mutiko-pilla jaisten giñan,

denok oñez, Arbizura; eta emen bai, esan leike, lenengo aldiz ikusi eta aditu egin genduela zinea.

Ziur ez nago, baña asiera batean uste det ez genduela batere ordaintzen, eta gero ere uskeri bat besterik etzan izaten, eta dena Don Feliperi esker.

Lenago zerbait idatzi det nola omenaldia egin zaion, eta nik uste oso merezia, azpiko lan illuna ere asko egin zuelako, eta ori ezta ikusten egun batetik bestera, eta gutxiago gazte jendeak. Gero zabaltzen dira begiak; eta, mundua ikusten danean, ematen zaio garrantzia.

Eta gai onekin aurrera egiñez, pasatu ziran urte franko; eta, neska-mutikoak kozkortu egin giñanean, apez onek ere zer sortuko eta telebisioa errira. Uste det lendabizikoa izan zala; eta nun jarriko eta eskola zarretan erri guztia-
rentzako.

Langostak eta amurraiak

U nanuko ualdeak eta errekek itz egingo balukie, makiña bat istori, eta larritasun ere, idatziko lirake. Beti ere bai, baña geiago oraindik urte aietan, oitura aundia zegoen mutillen artean fatea amurrai eta langostak (kangrejoak) arrapatzera; eta gero, jakiña, afari goxoak egin.

Amurraiak arrapatzera egunez faten giñan; baña kangrejoak edo langostak arrapatzera, geienez gauez. Ni neu bein baño geiagotan fan naiz.

Bildur pixka bat ere pasatzen genduen. Orregatik, bakarren bat beti egoten giñan bide-baztarrean, begiak zabal-zabal eginda, bada-ezpada. Zergatik? Guardiazibillak etziran ibiltzen aparte.

Gogoratzen naiz gauez zein eroso arrapatzen ziran langostak, *taka-taka*, eskuz eta tenedorearekin.

Gauez denak ateratzen ziran kanpora; eta, orretaz gain, asko egoten zan urte aietan, nai zuten guztientzako.

Gero, jendea bera asi zan erretzen ualdea, batean leja zala, bestean beste gauzaren bat zala. Gero egin ziran txerri-granjak, eta erriko zikiñak ere erabat erre zuten ualdea.

Aspaldiko urteetan, nik dakitenez, eztago amurrai bat ere, eta gutxiago langostak. Badirudi orain, 2004-garren urtean, zertxobait berriz ikusten dirala.

Julio Etxarrikoaren autoa

Eztakit zenbat urte eukiko nituen nik, eta orregatik zeatz-meatz ez naiz gogoratzen nola gertatu zan; baña askotan entzun eta aditu ere izan diet beraiei nola bulkatu egin zuten Etxarriko Julioaren automobilla, eta nola sartu zan ziztu bizian Lazoneko etxeko paretaren kontra, kalte dexenteak egiñez autoari.

Iru edo lau mutiko errikoak izan omen ziran barrabaskeri edo deabrukeri ori egin zutenak, eta bai gogotik ordaindu ere ogei ta amar edo berrogei ta amar duro multa.

Eztakit seguru, baña garai artarako asko eta ikaragarria izan omen zan, jendeak esaten duenez.

Badakigu nola uzten zuen aldapa-aldapan autoa, leporaño beteta gauzez; eta mutikoak demonioak izan, eta egin zuten ez egin bearra.

Gogoan det neuk ere, beste mutiko batzuekin, nola eltzen genion autoari atzetik, asten zanean plazatik eliz-gain aldera etortzen, aldapatxo ortan, eta gelditu ere egin genduen askotan. Gero laister egin bearra zegoen. Oso asarre jartzen ziran, etortzen ziran saltzalle guziak.

Garai artan kanpotar asko etortzen ziran edo ibiltzen ziran erriz erri, eta egunak jarrita eukitzen zituen bako-txak. Denetik ekartzen zuten saltzeko, autoa gañezka beteta.

Errira sarreran majo jotzen zuten bozina, jendeari deituz. Mutiko txikiei ere tutua ematen ziguten karriketetan jotzeko. Ondoren zerbait izaten zan ordañez.

Antxe egoten giñan mutikoak, bueltan-bueltan, txoriak bezela, zerbait ematen ote zigun. Badira mutikoak, gu baño zarragoak, sardin zarra ostu eta gero poltsatik galdu egin zutenak ere.

Urte aietarako ez naiz batere arritzen. Amaika olako pasatuko ziran.

Montejurrara moto *vespa*-rekin

A sko gogoratzen naiz. Urte batean, Maiatza zan, ogei ta pare bat urte eukiko nituen gutxi gora-bera, eta nere lagunak ere ortxe ibiliko ziran.

Erriko mutil geienak ordurako bagenduen bako txak bere motorra –orduan *vespa*-k ziran–, eta buruan sartu zai-gun fan bear genduela Montejurra-ra, ango txapelgorri-festa eta ospakizunak ikustera.



Egillea bere moto *vespa*-rekin.

Olaxe egin genduen. Ni nere motorrarekin, eta beste bi edo iru geiago ere baziran, denok batera elkarren atzetik nola allatu giñan lena Estellara.

Gero saiatu giñan Montejurrara bertara irixten; baña etzuten uzten pasatzen goiko mendi-gañeraño. Ala ere, bean zegoen jendea ikusita ere, bat naiko zoratuta gelditzen zan.

Gu ez giñan denok ere politikarengatik joan, baizik ikusteagatik, lenago esan bezela, festa eta giroa. Giroa ezin ohea: jende guzia txapel gorriarekin, borla alde batera zintzilik zuela. Zoratuta edo arrituta gelditu giñan, ainbeste jende ikustean, millaka eta millaka.

Bazkaldu ongi egin genduen Estellan bertan; eta arratsaldean oraindik zoragarriagoa izan zan bertako plazan. An etzan kabitzen arkakoso bat ere geiago. Jende guzia oiuka. Pankartak, banderak, txapelak, inguruko balkoiak dotore jantzita; eta baziran izlariak ere, mitiña egin zutenak.

Urte aietan oraindik indarra aundia zaukien; eta gogotan daukat nola jendeak, indartsu garraxi egiñez, Valiente-ren izena bein eta berriz errepikatzen zuen, beste batzuen artean.

Alako batean atera zan balkoira gizon ori, sekulako garraxi eta txaloen artean. Itz egin zuen eta bai majo berotu baztarrak; sutan jarri zuen jende guzia; eta gu oraindik geiago, bein ere ikusi gabe orrelako festa bat.

Illuntzerako itzuli giñan etxera, esperientzia polita ikusita lenengo aldiz, eta azkenengoz ere, nere aldetik eta besteen aldetik ere. Nik dakitela, ez giñan itzuli geiago Montejurrara.

Udazkena

Urria izaten zan, Pilarika inguru ori, jendea patata ateratzen jo ta ke aritzen zana. Etxe bakotxetik mordoa. Bitartean, beste etxekoren bat idiekin makinatzen aritzen zan garia ereiteko. Gauerako, sekulako zaku-pilla patata, txiki eta aundi. Gurdikada ederra ekartzen zuten idi gizarajoak etxera.

Patata asko ereiten zan urte aietan, eta bildu ere bai. Erriko etxe askotan saldu egiten zan, nere etxetik asita. Erremolatxa ere asko biltzen zan. Sekulako pillak ikusten ziran, etxe eta baratz ondoetan, dotore egiñak.

Eta artoa zer esanik ez: asko biltzen zan au ere. Aurretik, lastoa moztu egin ondoren, utzitzen zaion naiko denbora, ontzeko, arto-buruari. Ondu bezin laister gurdikada ederrak ekartzen ziran etxera.

Ekarri ala, bereala asten giñan gauetan arto zuritzen sukaldean, eta bai ganbaran ere, nere etxean. Jarri-aldi ederrak egiten ziran, arto-buruak zuritu ta sukaldeko baztar batean botaz, pilla egiñez.

Pilla dexentea egiten zanean, ama lurrean jartzen zan porkak egiten. Irudi ikusgarria garai baterako ori. Eztegu ikusiko berriz nolana. Eta ezkaratzean zintzilika arto-porkak nola egoten ziran. Olakorik ere zalla iruditzen zait berriz ikustea. Auskalo noraño fan bearko genduken ortarako.

Esan bezela, dena ekarri ondoren etxera, bai patata eta bai erremolatxa, artoa eta abar ere alegia, jendea azkar

ibiltzen zan, negua erabat sartu baño len, edo eguraldia gaiztotu baño len, gari, olo, baba ta gañerako guztiak ereiten.

Gogoratzen naiz goizean nola goizean goiz gariari nastu egiten zaion sulfatoa, txex-eginda, gero ereitera fateko sorora, bi pareekin. Urte aietan lur den-dena ibiltzen baizan.

Negu aurretik Unanuko estarbiak majo betetzen ziran leporaño orbelez, bai fagoarena eta bai areitzarena ere.

Egun batean, ni mutiko gaztea nintzala, gogoan dauket nola fan giñan Lezitza aldera orbeletara bi pareekin. Eguraldi oso zakarra egiten zuen, aize-egoa eta beroa.

Allatu giñan, bai, lekura; baña komeriak zeuden. Bi pareak eulitara asteko moduan jarri ziran, buztana jasota. Larri eta estu ibili giñan. Ni, mutiko gaztea.

Lena, idiak arbol bati lotu egin zituzten soka aundiarekin; eta beiak, berriz, mantsotu giñuzkien orbela botaz gelditu gabe denon artean, bizkar gañetik. Olaxe eztaikit zenbat denbora egon giñan, erabat mantsotu arte azienda, eta euli nabarrak alde egin arte noski.

Azkenean, gurdi biak kargatu orbelez eta etxeratu giñan, baña gorriak pasatuta.

Urte aietan sekulako burruka egoten zan orbelketan, zeñek geiago ekarri; eta gero denak, izugarrizko lanak eginda, ongarri ori ateratzen sorora.

Artoa zuritzen sukaldean

Gau batean, arto zuritzen ari zirala nere etxean, beste gau askotan bezela, gertatu zan gertatu bear etzuen. Fameli aundia giñanez, txikienak an ibiltzen giñan porrost edo osto artean olgan. Gure poza ori izaten zan

Bitartean, gure senide guziak eta gurasoak arto zuritzen ari zirala, barrabaskeriren bat edo beste egiten giñuzkien txikienak; eta noizbeinka ere senide zarragoak musua majo beztutzen ziguten artoak ekartzen duen eñoarekin denok naiko irri eta farra egiñez.

Orduak aurrera egiten zuen bitartean, txikienei loak jotzen zigun, elkarren atzetik banan-banan guatzera eramanez, batzuk beintzat besoetan artuta, katuak bezela su ondoan lo artuta gelditzen giñan eta.

Baña egun batean, lentxeago esan detan bezela, ez-usteko galanta gertatu zan. Ezkaratze edo sukalde-pokalean, an nunbait utzita omen zegoen pertza, txerri-janarekin egosi ta goraño beteta

Eta gu mutiko txikiak izanik, ez genduen ikusten nun zegoen arriskua, eta nere anai gazteagoak, Pedro Mari gizarajoak, gau artan egin zituen mundu ontako lan guztiak, olgan giñala, beti bezela eta esan bezela. Zoritxarrez, atzez sartu omen zan pertz bedeinkatu artan, bertan egosiz eta beste bizira joanez betirako.

Udaletxea nun?

Liburu au asi nintzanean idazten, gai bat aipatzen nuen; Lnola Ergoienako ballarak dauken Lizarragan udaletxea, azken urteetan naiko eztabaida sortu duena.

Dorrauko eta Unanuko erriak bat egin ondoren, batzarrere batzuk eginda, asiera-asieratik asita, udaletxe berria Unanun egiteko artu zan erabakia. Bozketak ere izan ziran iru errien artean gai oni buruz, eta Dorraubarrak eta Unanuarrrak irabazi egin zuten. Ala guztiz ere naiko lan izan da: beste aldekoak onartzen ez erabakia.

Naiko iskanbilla izan da azken urteetan. Pintadak eta guzti baztarretan.

1504-garren urtetik asita, Lizarragan izan da beti udaletxea.

Urte ori baño lenago, Ergoienako iru erriak *Comunidad de Aranaz* osatzen zuten, Etxarrirekin eta Arbizurekin batera.

Gure aiton-amonak esaten omen zuten izaten zirala Dorrau eta Unanuko erriak Lizarragaran mendean. Nik oni buruz esango nuke azpi-azpian ez gerala egon, baña zerbait bai.

Eta oraindik ere olaxe segituko degu Dorraubarrak eta Unanuarrrak, aurrerago aipatzen nuen bezela, azkeneko itza Lizarragak duelako eta, batzuek esaten dutenez, udaletxea bertan egitea erabaki dalako.

Egia esateko, nik neuk pena aundia artu nuan aldaketa orrekin, erabaki ori ikusita.

Baiña azken albistea etorri zait gai oni buruz, liburu au itxi baño len, eta oraindik ere airean dago nun egin! Asiera batean jotzen genuen, oso ziur bezela, Unanun egin bear zala. Gero, ez-usteko galanta artuta, Lizarragan bertan egitea erabakia artu zuten, eta gauza orrela gelditu zan.

Orain, berriz, berotu egin da gauza, asmo berri bat aukeratuz Ergoienako udaletxearekin alegia: Unanuko errotan egitea. Bota erabat dena, eta ortxe bertan egin Ergoienako udaletxea. Azkenean ez dakit zer gertatuko dan.

Erriko antziñako iturria

Badakigu denok, bertan ipintzen duelako, 1884 urtean Egiña dela Munttoneko etxeko barneko aldean dagoen iturria.

Antziñako iturri zar eta oso polita; eta, orrekin batera, galduta dauden, alde batetik, bikain eginda zegoen ganbela, aziendak ura edateko; eta, onekin batera, erriko labadorea, oso polita eta ederra au ere.

Egia esateko, gaur izango balitz, nere aldetik beintzat, eta nere esku egon, zan bezelaxe utziko nuke. Pena aundia ematen dit antziñako gauzak galtzea.

Eta antziñako iturri ortatik ere pasatzen naizenean, aldiero, ikusiz nolako eran dagoen iturria, onek ere zerbait tristura ematen dit. Ainbat eta ainbat olga eta laister egiñak gera, eta bateonbateg negar ere bai.

Au utzi alde batera eta nere poza izango litzake zerbait konpondu eta itxura ohea ematea iturri orri.

Pobre xamar ikusten det. Iru kañutatik, batek bakarrik ematen du ura, eta goiko galdorrean zauken burni borobil polit ura erabat usteldu zan eta eztago geiago.

Nik uste det merezi duela erriak duen antziñako iturri bakar orri txukuntasun eta edertasun geiago ematea.

Lentxeago aipatzen nuen makiña bat olga egiñak gerala or erriko neska eta mutikoak, eta makiña bat burruka ere ikusiak gera, batez ere idiak eramaten giñuzkenean ura edatera. Ango burrukak, orroak, adarkazoak!... Bein baño geiagotan idiren bat ura edan gabe itzultzen zan etxera.

Eta, bukatzeko gai onekin, labadorea dan leku ortan, jakin det Kaleko baratza omen zala garai batean, eta orko lan guziak Idiazabalgo Aseginolaza jaunak egin zituela; labadorea zerbait lenago, iturria ganbelarekin baño.



Unanuko San Pedro iturria, 1884.

Ondatz, Montiñano, Unanu

Ondatz edo Otsarte alderdi ortara begira, etorri zaizkit burura gai bi, neretzako garrantzi aundia daukienak.

Lendabizi, urtea da, eta au zailla da jartzea. Zerbait jartzekotan, bi milla urte inguru.

Garai aietan, Unanuko gizonak arrapatzen omen zituzten leze edo zulo aundiren batean otsoak. Nik neronek galdetu diot makiña bati onen berri, eta erantzunik gabe gelditu naiz. Baña egia da: or nunbait, Otsosoro inguruan, neuk irakurri det, *proceso* edo agiri zar batzuetan, nola sartzen ziran edo sarrerazten zituzten otsoak zulo ortara, eta Unanuko gizonak nola arrapatu eta il egin zituzten. Otsosoro eta Otsarte toki-izenak ortik etorriko dira, dudarik gabe.

Ondatzekin segituz, gogoratzen naiz Ondatz-zelaiko xendak alde guzietara oso poleki, eta bideak ere bai. Garai bateko soroak nabari-nabariak. Egia esan, bizi bat zegoen zelai eder ortan.

Gaurko egunean, berriz, ia esango nuke geiena zaparrak eta sasiak poleki-poleki arrapatzen ari dirala. Badirudi ilda dagoela ingurua; triste eta illun, ixiltasun ori ikusiz.

Ez naiz aztuko, baita ere, egin zan astakeriaz. Lendik ia erabat galduta zegoen izandako erri bat, San Buenabentura ermita inguruan bertan. Orain ezta gelditzen arrastorik ere. Kanposantua ere naiko deseginda, eta etxeak nundik nora ziran ere orain eztago antza ematerik.

Egia esan, oso penagarria da antziñako edo Erdi Aroko erri baten arrastoak olaxe galtzea. Kanposantuko ezurrak

an egon ziran egun frankoz begi-bistan. Nik eztakit nun egon ziran gizon askoren begiak astakeri ori ametitzeko. Ez genduke bear gizakiok, neregandik asita, barkaziorik. Ekolojistak ere eztakit nora begira egon ziran; baña, dana dala, kaltea egiña dago.

Nik neuk zerbait irakurrita dauket artxiboan, Ondatz erriari buruz. «*Villa de Ondaz*» omen zauken izena. Batzuetan *Hondaz* eta beste batzutan *Ondaz* agertzen da.

Eta izen auek irakurtzen dira Ondatzko errian:

«Los fuegos de la Merindat de las Montaynas en las Partidas a cugir por causa del monedage.

In Xhr. nomine. Amen. Seppan todos que en la era de mil CCC e hocenta e hocho, en presencia de mi, Johan Lopiz de Lecumberry, notario publico e jurado de la tyierra de Larraun, los lavradores, pecheiros del rey nostro seynnor, de las órdenes ed los fijos dalgo e de los prelados e de los francos de la merynnndad de Lope Garraça, mantenientes fuego, dieron conto en número de personas sobredictas los jurados, maorales de la dicta su merynnndad del dicto Lope Garraça sobre jura

Ochoa Yuaynnes, mayoral de Hondaz, jurado, interrogado, manifesto e amostro, por la jura que fezo, los mantenientes fuego en la dicta vila de Ondaz. In primis don Miguel, abat de Mayça; don Pedro capellán; don Johan Salvador; María Bon; Domenga Bon; Sancho García; Pero Miguel; doynna Gracia; y Domingo Yuaynnes.

Summa sin II capelanes VIII. E son aquí III capelanes».

Eta Mundiñanon izen auek agertzen dira. Emen *Villa de Montinano* irakurtzen da, eta auetxek dira izenak:

«Andreo, mayoral de Montinano, jurado, interrogado, por la jura que fezo, manifesto e amostro los mantenientes fuego en la dicta vila de Montinano. In primis Johan Salvador; Miguel de Mendiales; Miguel dicto Goycoa; Miguel de Araynna; Miguel García; García

Miguel; Domingo Miguel; Pere Yniguiz; Salvador Miguel de Hurrença; Pedro de Çurbano; Ochoa Miguel de Yriart; Domingo Périz; Pero García; Domingo Dominguíz; Miguel García; Johan García; Johan Miguel; Domingo Migueliz e Garçia Miguel».

Eta Unanun agertzen diranak auethek dira. Unanuko erriaren izena irakurtzen da *Hunanoa*, eta izenak auek dira:

«Sancho Martiniz, mayoral de Hunanoa, jurado, interrogado por la jura que fezo, manifesto e amostro los mantenientes de fuego en la dicta vila de Hunanoa: In primis Pero Miguel; Johan Miguel; Domenga Miguel; Domingo de Hondaz; Miguel Estevan; Miguel Dominguíz e Miguel Périz».

Izen guztiok, bai Ondatzen, bai Muntinanon eta bai Unanoan ere, 1350 garren urtean agertzen dira. Erderaz onela esaten zaie: *Fuegos de la Merindad de las Montañas en 1350*.

Emen ikusten da garbi iru errietan Ondatzen agertzen dirala izen geienak, eta gutxienak Unanun. Orregatik nik ez det ziurtatzen ezer ere bai bizi zirala edo etzirala bizi, bai batean eta bestean ere; baña nere ustez baietz esango nuke.

Ondatzekin bukatzeko, neri esan didatenez, eta au ere eztet ziurtatzen, karlisten gerra bukatuta, lenengoa edo bigarrena ez nago ziur, Ondatz alde ortan, or nunbait zuloren batean bai omen dago ikaragarritzko arma-pilla estalita. Alegiñak egin omen dira billatzen, baña alperrik.

Antziñako papel zarrekin segituz, Unanukoarekin jakiña, antxe dago beste bat erderaz onela deitzen zaiona: *Contribución al estudio de la Iglesia navarra del siglo XIII. Libro de Rediezmos* (1268).

Montiñanoko elizari buruz argibide auek aurkitu ditut:

«*La hermita de Nuestra Señora de Mundiñano fue en tiempos atrás Parroquia del lugar de Mundiñano, el cual se desplomó por haber ido sus vecinos a poblar el lugar de Echarri, y su diezmarío se aplicó a su iglesia como territorio de término de Aranaz, como es cierto y dicen los testigos lo que supieren y hubiesen entendido.*

Eta auxe ordaintzen zuten Unanu, Ondatz eta Montiñanoko erriak, eta emen, 1268-garren urtean, Unanuko erriaren izena *Hunano* agertzen da:

De Hunano: 1 ar., 1 t. tr. e 1 ar. av. e 1 ar. de com. e 10 d. Ibi de primicia: 1 t. tr.

De Hondatz: 2 ar. tri. e 1 ar. av. Ibi de primicia: 1 ar. av.

De Montinano: 4 ar. 2 t. tr. e 2 ar, av.e com. 1 ar. e 12 d. Ibi de primicia: 1 ar. media tr. e 2 t. av. e 1 t. com. e 3 d.

Abreviaturas:

<i>av.:</i>	<i>avena</i>
<i>com.:</i>	<i>comonia</i>
<i>l.:</i>	<i>libra</i>
<i>s.:</i>	<i>sueldo</i>
<i>d.:</i>	<i>dinero</i>
<i>bur.:</i>	<i>burgalés</i>
<i>mor.:</i>	<i>morlanés</i>
<i>mar.:</i>	<i>maravedí</i>
<i>k.:</i>	<i>cahiz</i>
<i>ar.:</i>	<i>robo</i>
<i>q.:</i>	<i>quartal</i>
<i>al.:</i>	<i>almude</i>
<i>t.:</i>	<i>tarcal</i>
<i>coq.</i>	<i>coca</i>
<i>car.:</i>	<i>carapito</i>
<i>tr.</i>	<i>trigo</i>
<i>ord.:</i>	<i>ordio o cebada.</i>

Abreviatura auek jartzen ditut obeki ulertzeko agertzen diran letra bakar oiek urte aietan zer esan nai zuten.

Ondatzek amar su (*diez fuegos*) omen zituen; Mundiñanok, ogei ta amar, 1350 urtean.

Orain irurogei bat urte, Mundiñanoko eliza erre egin zan. Erretze ortatik Ama Birjiñaren irudi bat salbatu zan, gaur egun Etxarrin dagoena; eta bai gurutze bat ere, oso ona, Unanuko elizan dagoena. Gurutze au koroaren azpian omen zegoen. Bataiatzeko pila, erromanikoa, bertan gelditu omen zan; baña norbaitek eramana izango da. Ur bedeinkatuarekin eskuin aldera egoten zan. Ala dio Etxarriko Rafael Karasatorrek, bere liburu batean.

Rafael Karasatorre aipatu det. Ez naiz aztuko berealakoan zenbat lagundu egin zidan asierako egun aietan artxiboan. Beraren ondoan jartzen nintzan; makiña bat kontsulta egin diot, eta beti laguntzeko eta erakusteko prest. Eskerrak ematen dizkiot Rafaeli ere.

Gaiñera aurten leendabiziko aldiz ospatu degu "Sakandarren eguna" Arbizuko errian. Egun ortan bertan omenaldia jasoko du Rafael Karasatorrek, bere lan bikaiña eta sendoa egin duelako Sakandarren guztiendako. Nork daki zenbat dakien Rafaellek? Biejondakiola! Baita ere omenduak izan dira Jose Maria Satrustegi eta Inocencio Aierbe. Biak ere goian izan ditezela.

San Andresak

Gariak erein bezin laister, neguari azkar ematen zaion susma. Alde batetik,azienda menditik erriko basora urbiltzen zan bada-ezpada, gauetik urrengo goizera trebe zan elurte bat egitea eta.

Artaldeak ere ekartzen zituzten, eta auntsak eta beorrak izaten ziran azkena etxeratzen ziranak.

Elurrarekin ere, ia egunero ateratzen ziran basora, illarra eta ote-puntak jatera bakarrik baldin bazan ere.

Badakigu denok garai artan Unanuko erriak San Andresetan bi egun jai egiten zituela urtero etxe-kalean, San Andresen omenez.

Aurretik erriak eukitzen zituen eztakit zenbat ardi larretan eta egunero pentsua emanaz gizontzen arra bezela egoten ziran, lodi-lodi eginda. Orduan etzan konpuestorik. Majo nabaritzen zan denean ere.

San Andres bezperan, neu txikia nintzala, gogoratzen naiz nola ibiltzen ziran erriko gizonak etxez etxe, maiak eta errespaldoak biltzen txintxo asko; eta eramaten zituzten San Andresak ematen zituen etxera; eta bai gingirriñak eta ollarrak ere.

Ardiak ere bezperan iltzen zituzten, serenoan jartzeko, gau guzian zintzilika.

Geienean elurra izaten zan, eta ez gutxi gañera. Gogotan det urte batean izugarrizko elurtea bota zuela, eta ondoren gañera izugarrizko izotza. Naiko lan izaten zan zutik ere egoten, ikusita Unanuko karririk nola diran.

Etxeko emakumeak izaten zuten lan ederra, alde bate-tik ia jan guztia su bajuan egin bear zanez, eta tripotxak zirala, txitxioak edo garbantzuak, gero ardikia txilindro-nean eta zopa ederrak ere.

Lenago esan detan bezela, errea gizonen kontu izaten zan, beti bezela. Gingirriñean sartzen zuten, bere burnizko ollarra baztarrean zala, aurretik su bikañak eginda, eta gel-di-geldi antxe aritzen ziran.

Gogoratzen naiz bein baño geiagotan nola faten giñan ogi-zatia artuta mutikoak, errearen azpian jartzera. Oso gozoa izaten zan jateko.

San Andres egunean, ermitan bertan meza nagusia, jendez gañezka. Giro ezin obea ikusten zan jendearen artean; eta, elurra ari bazuen, obe.

Jendea prest zegoen neguari aurre egiteko, naiko orbel eta egurra ere ekarrita aurretik. Esan bezela, San Andres egun bi oiek oso patxadan artzen zituzten. Eta, gañera, nik uste, zer demontre!, merezimendu onez. Bakarren bat pasatzen zala? Jendeak ori begi onez ikusten zuen... Agur eta urrengo egunean berria bezela.

Len esan detan bezela, *tripotxak* izaten ziran jendearen jan gustoko bat. Goizean gosari ederra egiten zuten: *tripotxak* asteko, eta gero buru, menudoak eta gañerakoak. Majo ateratzen ziran, musu gorri-gorriekin denak ere, desafioka musera elkarri.

Eta arratsaldean, ez dakit zer ordutan, bazkaria, izugar-ria. Asteko, zopa ederra. Urrena, etziran faltatzen txitxio-ak edo garbantzuak. Urte aietan gutxi jaten ziran oraindik; festetan bakarrik. Gero, aragia saltsan eta errea barra-barra. Eta auekin batera, -nola ez?- ardo ona.

Mutikoak ere parte artzen genduen San Andresetan. Gogoan det, urte batean baño geiagotan, ni neu ere fan

nintzala *ondarrak* jatera eskrupulorik gabe. Mutiko-mor-
doa biltzen giñan. *Txitxioak* eta guzti ematen ziguten.

Gogoan det, baita ere, erriko gizon askok nola erama-
ten zuten etxera, paperean bilduta, erre-pusketa bat. Nere
etxera ere ekartzen zuten, eta bai jan ere gustora eta pozik.

Neskatoei buruz, ez dauket gogoan faten ziran ala ez
ondarrak jatera.

Negua

Asiera ere neguarekin eman diot nere kontakizunari, Unanuko oitura zar, olga, bitxikeri eta pasadizoak gogoratuz; eta bukatu ere neguarekin egiñen det.

Askorendako, esaten dan bezela, tinteroan geldituko dira, beraiek ikusi eta bizi egin dituzten ainbat eta ainbat oitura zar eta olga, gure errikoak; baña beste askorendako, biziak aurrera egin arren, nere asmoa da gogoratzea nik neuk ikusi eta bizi egin dituten, batez ere nere gazte denboran, oitura eta olga guziak.

Aurrera egiñez, badakigu garai ortan azkar xamar sartzen zuela negu beltza, eta luzea izaten zala gañera. San Andresetan, geienez, goiko basoko bizkarrak majo zuri-tzen zituen; eta erria bera ere urte askotan estaltzen zuen majo elurrak.

Eta garai batean etzan izaten, orain bezela, egun bateko edo geienez bi eguneko elurra. Lenagoko urte aietan, elurte batek askotan illabete bat irauten zuen.

Urte bat baño geiago izan ziran, jendeari azienda mendian arrapatu egin ziona elurrak, eta kalte ederrak jasozten zituen batek baño geiagok.

Gogoan det bi urtez gutxienez nola fan zan erri guzia eguraldi txakurrarekin mendira, ardiak ateratzera elur azpitik, batzuk oraindik bizirik. Uste gabean arrapatu zuen jendea elurrak, eta derrepente bota zuen elurte bat. Makiña bat buru il zan urte artan, bai ardi eta bai beor; baña auntzak ez orrenbeste.



Egillearen etxeokak, ezkontza batean.

Unanuko gizonak ere fan izan dira askotan, beren biziak arriskuan jarrita, auntzak ateratzera San Donatoko barga-maldetatik, soka-pilla aundi bat artuta. Antxe jais-ten ziran, esan bezela, arrisku aundiz, bakarren bat soka-ekin lotuta, auntzak ateratzera.

Gabonak errian

Gabon aurretik jende geiena txerri bat edo bi ilda egoten zan gutxienez, eta jana etzan falta egun oietan.

Gabonak gañean ziranean, Unanuko neska-mutikoen festa izaten zan elkarren atzetik karririk alaituz kantu bizian ibiltzea. Neskak neskekin eta mutikoak mutikoekin; etzan ibiltzen iñor ere nastuta gure denboran.


Esan bezela, ia denak elkarren atzetik, zare aundi bana artuta talde bakotxak. Talde batean ibilliko giñan amar bat lagun edo amabiren bat. Antxe denok etxez etxe poz aundiarekin. Askotan espia egoten giñan, besteak alde egin arte.

Ateondoetan gelditu eta onela kantatzen genduen denok batera:

Be - le - nen sor - tu zai - gu Yin - ko -

a a - rra - tse - ko ga - ber - di - an, o -

tzez dar - da - raz da - go gai - xo - a las -



to pix - ka - ren gai - ne - an; be -

ro a - ha - lez be - ro de - za - gun a -

pa e - ma - nez mu - su - an.

Belenen sortu zaigu Jainkoa
 arratseko gau erdian,
 otzez dardaraz dago gaixoa
 lasto pixkaren gañian,
 berotu al ezkerro dezagun
 apal eman ez musua.

Edo beste au:

Ai au gabaren zoragarria,
 Jesus jaio da Belenen,
 etxe onetan sartu ote dan
 billa gabiltza beraren.

Baita ere Olentzarorenak:

Olentzero guria
 ezin degu ase,
 osorik jan dizkigu
 amar zerri gazte,
 saieski ta solomo,
 orrenbeste este:
 Jesus jaio dalako
 erruki zaitetze.

Orra, orra
gure Olentzero,
pipa ortzetan dula
eserita dago;
kapoiak baditu
arraultzatxuakin,
bigar meriendatzeko
botilla arduakin.

Olentzero joan zaigu
mendira lanera,
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu zuenian
Jesus jaio dela,
lasterka etorri zan
parte ematera.
Orra, orra...

Artzaia emen dator
Kalbario menditik,
arantza sartu zaio
ezkerreko anketik.
Ara nun gelditu dan
ezin aterarik,
ekarri limosna ta
bagoaz emendik.

Olentzero, buru aundia,
entendimentuz jantzia,
bartarratsian eran omen du
amar arruko zagia.
Ai urde tripa andia,
tranlara lala, tranlara lala,

*Ai urde tripa andia,
tranlara lala, tranlara lala.*

Arritzekoa bada ere, urte aietan kanta ia geienak erderazkoak ziran. Kanta bat bazan, au ere erderazkoa, kantatzen zana etxeakoandrearen izena esanez, eta eskatuz emateko kolazioak karidadez; eta etxeakoandrearen izena ate batetik bestera aldatuz:

*Ya venimos a cantar
a la señora Francisca:
que nos dea colaciones,
que ha llegado Navidad.*

Ondorean beste kantaren bat, eta modu ontan kuadrilla denok egiten genduen.

Baña, esan detan bezela, asieran euskeraz oso gutxi. Geroago asi giñan poleki-poleki euskerazkoak geiago kantatzen.

Erriko etxe guziak pasatzen giñuzkienean, junta egiten genduen mutiko baten etxean. Antxe banatzen giñuzkien bildutako gauza guziak; eta azkena, urtero bezela, txokolatea artzen genduen, ogi-zatiekin eta galletekin.

Olaxe izaten zan Gabon-gauaren neska eta mutikoen festa.

Nazimentua jarrita egoten zan Gabonetarako. Oso ederki eta dotore, egia esateko. Bizirik edo egiazkoa zala ematen zuen. Asko jantzitzen zuen eliza.

Gabon-gaua etxean

Garai artako Gabon-gaua, Unanuko etxe geienetan, Getzan izaten beste munduko gauzarik. Esan nai det etzirala gaurko eguneko afari ikaragarri oiek egiten. Jendeak eztaki gaur zer erosi edo zer jarri Gabon-gauean.

Lengo urte aietan, berriz, etxeetan umil-umilla eta pake santuan pasatzen zuten. Afari bereziak ere egiten ziran noski. Gogoratzen naiz apalondoan gaztaiñak danboliñan erre eta nola jaten giñuzkien; eta gustora.

Turroia ere izaten zan, gogor-gogor artatik. Ezin puskatuz ibiltzen ziran. Azkenean, mallua artu bear izaten zan puskatzeko. Puskatzen zan, bai; baña milla puska eginda alde guzietara, ain gogorra izatean. Baiña ona eta goxoa bai. Gaurko egunean ezta orrelakorik.

Eta ia aztuta neukan: nere etxean beintzat, konpota ederra ere izaten zan urte aietan.

Kartetan ere ibiltzen zan jendea, gaztañ erreak janez. Beste batzuk, su ederraren ondoan, larazetik pertza zintzilik zegoela, bueltan-bueltan, kontu kontari, umore onean.

Gaua aurrera zijoan. Aurretik, beste batzuk gauerdiko mezetara alde eginda zeuden; eta besteok geldi-geldi guatzera faten giñan.

Urrena, Pazko eguna. Egun aundia bai len eta bai orain ere, baña batez ere urte aietan. Erri txikietan jende asko bizi zan oraindik, eta giroa oso ona egoten zan.

Orrek berotasuna eman eta aberastu egiten zuen erria gauza guzietan. Bai elizako ospakizunetan –jendea erruz

faten zan- eta bai erriko tabernetan, giro ezin ohea egoten zan.

Jendearen esku-zabaltasuna gaurko egunean geiago nabarmentzen da, garai batean baño, batez ere elizkizunetan. Erriko edozeñen illeta danean, jendea erruz biltzen da; elizak txiki gelditzen dira, eta au baztar guzietan ikusten da.

Nere aurtzaroa

Nere aita, Jose, eta ama, Seberiana, biak Unanun jaiোক ziran. Aitaren aldeko aitonak: Kalisto eta Andresa, bertan bizi ziranak auek ere. Amaren aldekoak: Pedro Gainza, Satrustegin jaiোক, eta Jeronima Aldaburu, Barboneko etxeko alaba, bertan jaiোক eta bertan bizi zana.

Ni mundu ontara sortu nintzan Iraillaren 26-an, 1946 urtean, Unanun, Barbonekoa izena duen etxean, Baña etxe onek lendik beste izen batzuk izan ditu. Adibidez: Juananeko-goikoa, Juanabarreneko-goikoa, Barberozarreneko-goikoa, Barberonekoa eta azkenik len esan detana. Barbonekoa.

Etxe aundia da eta lur-sailla ere naiko dexente duena. Garai batean izagutu nuen etxetik gaurko egunera, aldaketa asko egin dira.

Nik neuk zortziren bat urte nituela, mutiko koxkorra oraindik, izugarrizko berrikuntzak egin ziran, batez ere barruko aldetik erabat guztiz aldatuz; eta ola urte-mordoa iraun zuen.

1963-garren urtean ezkondu zan nere arreba zarrena etxera, eta laister berriz ere egin ziran beste berrikuntza batzuk. Tartean, komuna gutxi zauden oraindik erri osoan, bear-bearrezkoa dana.

2004-garren urtean gaudenez, ez dira urte asko oraindik bazegoela etxe bat ez komuna, ez telebista, eta jana ere, garai batean bezela, su bajaran egiten zutela.

Nere etxearekin jarraituz, eztira igaro urte asko oraindik azkeneko obra edo berrikuntza egin zala, eta nolanaikoa ez gañera. Barruko estruktura guztiz aldatuz, tellatua

ere den-dena berria, eta bean ere den-dena berrituz. Auekin batera, etxe guztiari kanpotik fatxada errebokatu eta dotore-dotore utzi. Au guztia gutxi balitz bezela, gañera atera zaion etxeari aurreko aldean balkoia oso dotorea; eta, geiago jantzitzeko oraindik, etxearen aurrean atari eder bat, patxaran egoteko. Gaurko egunean esan leike erriko etxe dotorenetako bat dala.

Amar senide izandu gera: bost neska eta beste bost mutil. Amar senideetatik zortzi bizitzen gera. Nere aurrekoa eta atzekoa txikitan il ziran. Au etxek dira izenak: Jeronima, Dolores, Anparo, Kalisto, Maria Lurdes, Maria Belen, ni, Pedro Mari, Jesus Mari eta Serafin.

Ni zazpigarrena izandu naiz senideetan; eta, nere amak zionez, jaio nintzanean ume ederra eta majoa. Gero etorri zan gaitz gaizto ori.

Nere amak zionez, eta neri ere kontatu dit bein baño geiagotan, gau batean, emeretzi illabete neuzkala, aitarekin eta amarekin lo egiten nengoela, gau erdi aldera, ama quartu zen zerbaitera, eta aitari esan omen zion:

-Ume au eztago ongi.

Eta aitak esan omen zion:

-Zu olaxe zabilta beti.

Eta berriz ere lengo antzera, alako aize gaiztoren bat bezelaxe, eta nere amak berriz esan omen zion aitari:

-Ume au eztago ongi.

Eta orrela argitu omen zuen urrengo eguna. Argitu omen zuen, bai, eguna; baña mutikoa, alegia ni, ez omen nintzan zutik ere egoten, eta gutxiago ibili.

Au gertatu aurretik ez omen nintzan geldirik egoten, karrika gora karrika bera; eta ondoren, egun ortatik asita, lurrean arrastaka.

Amak, au ikusitakoan, bi aldiz pentsatu gabe, artu soñean eta Etxarrira medikuarengana; eta medikuak entzun zuen nere amari gertatutakoa, eta ikusiz nola nengoen, Iruñara bialdu omen zuen nere ama gaixoa, denbora galdu gabe.

Iruñara etorri omen giñan, ama eta nere arrebaren batekin, mediku on batengana; eta onek denbora gutxi bear izan omen zuen zer zan jakiteko, eta alako batean esan omen zion nere ama gaixoari etzegoela ezer egiterik; *parálisis infantil* zala; eta nere amak ez-usteko galanta jaso omen zuen. Pentsakor eta triste itzuli omen ziran etxera.

Urte aietan etzan txertorik, batez ere erri txikietan; eta, ni bezelaxe, erri geienetan baziran gaitz orrek jotakoak.

Esan bezela, emeretzi illabetetatik asita, iru urte edo orrelakoren bat arte, lurrean ibiltzen omen nintzan, nere anka arrastaka.

Egun batean, erriko festak zirala, –amak esan dit bein baño geiagotan neroni–, sukaldean giñala ama, aita, aitona eta ni, ama bere lanetan, aita ere berdin, umerria erretzen ari omen zan su bajuan, oi dan bezela, eta aitona denori begira. Alako batean, sukaldeko armarioaren ondoan, iñor konturatu gabe, esan omen nion nik amari:

–Ama, ni tente!

Gelditu omen ziran erabat mutututa bezela denak ere, ni orrela ikustean. Pozarekin negar egin omen zuten. Egun ortatik asita zutik edo tente nabil, Jaungoikoari eskerrak.

Gero urte askotan makillarekin ibiltzen nintzan, Unanuko karriketetan gora ta bera. Komunioa egin nuenean ere, oraindik makilla izaten zan nere eskuetan.

Komunioa aipatuz, esan bearra dauket zortzi edo berderatzi urte eukiko nituela. Egun ikusgarria izan zan guz-

tiontzako. Oker ez banago, bagiñan amazazpi edo emezortzi neska-mutil gure Jauna lendabiziko aldiz artu egin genduenak. Erri txiki baterako asko izugarri esan leike.

Aurretik ikasi egin bear izan genduen dotriña den-dena euskeraz. Etzan izan oso erreza, eskolan alderantziz den-dena erdera bizian erakusten ziguten eta. Orduan apaiz zegoen Don Felipe Santesteban, Baztandarra, Berroetakoa. Ederki egiten zuen. Esan nai det den-dena euskeraz erakutsi egiten zuela, bai dotriña eta bai kanta politak eta dantzak ere.

Eta, lentxeago asi naizen bezela esaten, urte askotan ibili nintzala makillarekin, eta nolana ez gañera. Erriko jendea arrituta egoten omen zan neri begira, ikusita nola ziran Unanuko karrikak. Beste mutikoekin batera aurreko muturrean ziztu bizian, eta geiago miñik artu gabe.

Egia esateko, ez naiz izan makala, naiz ezkerreko ankan miña izan. Makiña bat makil autsi ditut. Eskolara eta elizara ere makillarekin faten nintzan.

Urteak pasa, urteak etorri, mutiko kozkorra egin nintzan. Nere burua asi zan zerbait lotsatzen jendearen aurrean nere burua makillarekin ikustean, batez ere erritik kanpora faten nintzanean; adibidez, Dorraura, Lizarragara, festetara faten giñanean batez ere.

Amar urte nituela, gutxi gora-bera, il zan nere aita. Gizon alaia, indartsua eta gogorra.

Beraiñen dagoen San Donatoko ermita ari omen zan konpontzen Unanuko erria. Eztakit zenbat gizon zebiltzan lanean; baña aien artean bat, nere aita zana. Egunero fan eta etorri oñez egiten omen zuten gizon guztiak; eta egunen batean nunbait izarditu eta gero oztu, eta ortik gelditu zan gaixo nere aita, ta ortik sortutako gaitzarekin egin zituen mundu ontako egin bear guztiak gizarajoak.

Gero nere anai zarrenak ekin zion lanari San Donatoko ermitan.

Nere ama gaixoa zortzi umerekin gelditu zan alargun. Esaten dan bezela, argazki ederra. Etxealdea naiko aundia,azienda gorritz estarbia beteta. Gero, urte aietan ere, lurra den-dena ibiltzen zan soro; eta, ori gutxi ez balitz, etxean ao asko bete bearrak.

Bederatzi edo amar urte eukiko nituen, lendabiko *aparato ortopédico*-a jantzi nuela nere ezkerreko anka osoan. Iruñara etorri bear zan, neurriak lendabizi artzera. Neretzako, etxetik ateratze ura izandu zan beste mundu bat ikustea bezela. Ordurarte, esate baterako, bein ere atera gabe iñora ere. Pozik etorri nintzan amarekin Iruñara.

Baña poz aundiagoarekin oraindik gelditu nintzan, *aparato ortopédico*-a jantzi nuenean lendabizko egun artan, eta makilla baztarrean utzi nuenean. Ura izandu zan neretzako mirari bat bezela, eta zerua ikusiko banu bezela. Len makillak nituen maite; baña geroztik ona aparatorik gabe ez naiz ezertxo ere.

Nik esango nuke nere bizi erdia dala gutxienez, naiz lenengo urte aietan izaten ziran aparato *fijoak*, alegia belaunean etziranak makurtzen. Ala ere, len esan detan bezela, oso pozik ibiltzen nintzan, eta gañera naiko arro. Gaurko egunean, eta ia aspalditik, gauza guziak bezela, oso aparato onak egiten dituzte. Askoz ariñagoak dira eta esan leike ez tirela nolanai austen.

Iruñara etorri giñanean ama ta ni neurriak artzera, gogoratzen naiz nola gelditzen nintzan begira eskapara-teetan. Ama aurrera eta ni geldi. Batez ere gelditzen nintzan pastelak ikusten nituenean, eta ni geldi eta geldi. Azkenean, amak etsi zuen, bai-baizekien zer nai nuen, eta



Leen jaunartze eguna. Apezak: Don Bixente Lakunza eta Don Felipe Santesteban. Egillca laugarrena ezkerretik.

egin zidaten gustoa, aurretik musu bat emanda. Pastela bat ez, bi jan nituen.

Beste egun batean, berriz, amaren gustoa izan zan: txokolata txurroekin oso gozoak jan giñuzkien.

Ez naiz aztuko sekula, bizi naizen artean, nere amaz. Munduan esaten dute ama bat izaten dala, eta ori egi borobilla da.

Legazpira eskolara

Norengatik fan nintzan Legazpira eta zergatik? Nere aita il zanean, eta lenago ere aipatu det nola gelditu giñan, amarekin batera zortzi senide adin guztietakoak; eta ni, gañera, ezkerreko anka izorratuta.

Orduan etorri berria zegoen apez Don Manuel Azpirotz jauna, nonbait errukitu egin zan nere amaz orrela ikustean: alargun zortzi umerekin; eta nitaz batez ere. Bururatu egin omen zaion Don Manuel apaiz jaunari ni Legazpira eramatea kolejiora, eskolara.

Badakigu Don Manuel apaiz jaunak urte aietan arremana oso sendoa zeukala Patrizio Etxeberria jaunarekin. Jendeak esaten zuten bere konfesorea ote zan.

Nere amarekin itz egin omen zuen Don Manuelek, esanez Legazpiko asmo ori; eta nere amak, eta etxeakoak ere, ez omen zuten bi aldiz pentsatu. Bereala jarri omen ziran arremanetan Legazpiko Larrea familiarekin, nere aita apopilo egon zan familia bera.

Etzan izan ezezkorik, eta orregatik fan nintzan, edo eramam ninduten obeki esanda, Legazpira kolejiora.

Gogoratzen naiz ongi, gaur izan balitz bezela, nola amarekin biok goiz batean Arbizun *Bergaresa* artu eta Zumarragaraño fan giñan; Zumarragan beste autobus bat artu –*urbanoa* esaten diotena– eta noizbait allatu giñan Legazpira.

Gaur Kale Nagusia dan izeneko kalea, garai artan *General Mola*, gogoratzen naiz zerbait lenengo jaitsi giñala

autobusetik, eta nola egin giñuzkien oñez irureun bat metro edo ola, Larrea familiaren etxera allatu arte; eta gero ni iru urte pasa egon bear nintzan, nere aita eta beste Unanuko jende geiago ere apopilo eta patxaraz egon ziran etxe ortan.

Famili oso ona osatzen zuten, alde batetik, Luis Larrea, bere emaztea Juanita Urkizu, zorionez oraindik bizi dana, eta auen iru alaba; zarrena Glori, gero Maria Jesus eta gazteena Ana Mari.

Ez genduen izan itz bat ere bat bestea baño gorago elkarrekin bein ere. Oso jatorrak ziran irurak ere, eta auen gurasoekin zer esanik ez. Luis, ogi-puska baño ohea, ixilla eta ona; eta Juanita ere berdin, errukiorra gaixoekin.

Nerekin, egia esateko, aita bat eta ama bat bezela izan ziran. Beraien portaera, esaten dan bezela, txapela kentzekoa. Ez naiz aztuko sekula, eta gañera iruditzen zait famili orrekin beti zorretan egongo naizela.

Lendabiziko egun aiek neretzako naiko beltzak izan ziran, batez ere egin nuen aldaketa aundiarekin: esate baterako baserritik eta nekazari-etxe batetik fan nintzan kaleko etxe-bizitza batera, gañera etxetik urruti xamar. Lenengo egunetan negar ere egin nuen gauean.

Bazegoen nerekin batera apopilo Etxarriko gizon bat, gela berean lo egiten zuena; izena Julian. Asko lagundu zidaten, egun oietan batez ere.

Baña aldaketa ori txarrerako etzan izan, eta azkar moldatu nintzan, lagun-pilla bat egiñez eta nere bizi berri orri lendabiziko pausoak emanaz.

Beste neskixa bat ere egon zan nerekin batera, Maria Karmen izena zuena, oso jatorra au ere. Badakit gero nola ezkondu zan eta Legazpin bertan bizi dala.

Naiz lenengo egunak naiko beltzak izandu ziran, kolejioan ez nuen sentitu ainbeste. Alde batetik, geien txokatu egin zaidan gauza, La Salleko *hermanoak* izan ziran. Bein ere ikusi gabe neuzkan, baña etziran beste mundukoak, eta poleki-poleki sartu nintzan bidean. Bazeuden bat edo beste tartean euskaldunak; eta, esan detan bezela, azkar jaso nuen beraien konfiantza.

Sei mailla zeuzkan kolejioak, eta ni irugarrenean asi nintzan; eta nik uste, Legazpira fan nintzanean, naiko eskola polita eraman nuela. Esaten ari nintzan bezela, irugarren mail ortan asi nintzan, eta kasualidadea izan zan: zegoen *hermanoa* nafarra zan. Gogoan det Hermano Felix. Zuzena, baña gogorra ere bai. Ikusi gabe ezin leike sinistu zenbateko egurra ematen zuen.

Mail baktxean egongo giñan, gutxi gora-bera, berrogei ta amarren bat mutiko, eta sei mail zauden kolejio osoan. Irureunen bat mutiko egongo giñan denen artean. Ikusgarria izaten zan goizetan sarrera, denok kolejioaren aurrean, baktxa bere maillarekin, soldaduak bezelaxe; eta gero rekreoan ere berdin: ikusgarria.

Kolejio aundia zan. Esan bezela, irureun bat mutiko artzen zituen gutxienez.

Gero, bazuen bere elizatxo, kapilla polita; bi fronton, bat itxia; bere biblioteka ere bai; eta, auen denen ondoan, beste toki edo txoko eder askoa, alegia bola-tokia, itxia, bikaña, alboan zuela toka ere. Makiña bat txapelketa ospatu egin dira or, Gipuzkoakoak eta Euskadikoak ere. Izugarrizko leia egoten da Urolako ballara ortan bi kirol auetan.

Eskola asi aurretik, egunero, meza entzuten genduen. Mutiko denok atze-atzean jartzen giñan, eta aurrean erriko jendea. Franko etortzen zan.

Illero ematen zizkiguten puntuak kartilla batean. Berrogei ta amar puntu izaten ziran guzien artean. Ni berrogeitik berrogei ta bostera ibiltzen nintzan, tarte ortan, naiko ongi. Gogoan daukat bi edo iru txandetan lenengoa ere izan nintzala.

Baita azkena edo azkenetakoa ere, bein bakarrik. Etzait aztuko sekula egun ori, nolako negarrak egin nituen klasean denen aurrean. Asko sentitu nuen, eta etzan ori bakarrik. Gero kartilla etxean gurasoak ikusita, firmatu egin bear zuten. Neri, gogoratzen naiz, apopilo nengoen etxeko Juanitak nolako asarrea egin zidan, arrazoiarekin, nere ama balitza bezela. Etzan orrelakorik geiago gertatu.

Igande-arratsaldeetan, kolejioan bertan, *Cine Forum* izaten zan neska ta mutikoentzat. Izugarrizko sala aundia zeukan. Ni geienean ez nintzan faten, ez ez nuelako nai, baizik ez nuelako naiko diru. Ez naiz gogoratzen ziur zineko sarrera zenbat zan; baña lau edo bost pezta izango zan, asko jota. Baña neri etzaitan allatzen.

Hermanoak azkar konturatu ziran neregana, ez ikustean beste mutikoak bezela zinean. Egund batean direktoreak otsegin zidan beregana, galdetuz zergatik ez nintzan faten zinera.

Nik esan nion eta, berari nunbait pena emanda nere egoerak, urrengo igandetik asita esan zidan etortzeko lasai, eta ez naukala ordaindu bearkorik. Nere poza izan zan beste mutillekin batera ikustean. Ez naiz aztuko berealakoan ontaz ere.

Gero asko poztutzen nintzan nere arreba Lurdes etortzen zanean ni ikustera. Seguran egiten zuen lana neska-me bezela. Ni ikustera bakarrik etzan etortzen, baizik ordaintzera nere patronari zorrak. Ezta gutxi.

Egun batean, beste mutikoak bezela nengoela klasean, maixua, alegia *hermanoa*, etorri zaiten ondora, esanez bisita bat neukala eta ateratzeko.

Asiera batean neu ere arrituta bezela gelditu nintzan, eta egia zan. Ez-usteko galanta artu nuen. Nor ikusiko eta Don Manuel, erriko apeza, eta berarekin Patrizio Etxeberria jauna. Gelditu nintzan erabat mutu, ez nekiela zer esan. Galdera asko egin zidaten biak ere: nola aurkitzen nintzan; ea gustora nengoen, eta abar eta abar.

Bein Patrizio jaunak milla pezta eman zidan. Ongi etorri zaidan diru ori. Urrengo egunean neronek oñetako pare bat erosi nuen, bear-bearrean aurkitzen nintzan eta.

Etxetik naiz urruti egon, jasotzen nituen berriak ia astero, eta berriekin batera bialdu egiten zidaten txukun-txukun, txerria iltzen zanean batez ere, denetik; eta urtean zear ere arraultzak maiz asko.

Zinerako bakarrik etzaidan iristen dirua. Legazpiko kalean bazeuden dendatxo bat edo beste jendea faten zana eroatera xoxuak edo goxokiak, *heladoak* eta abar. Nik nolako inbidiak pasatzen nituen, beste batzuk ikusita! Inbidi geiena ematen zidatena *heladoak* ziran. Bakarren bat izaten zan progatzeko ematen zidatena. Ez naiz aztuko batzuegandik.

Urtean zear kolejoan egiten ziran, iru edo lau illabetez, txapelketa edo leiaketa batzuk mutiko denen artean. Banatu egiten giñan bi talde, *blancos y rojos* esaten zigutenak.

Pilotan egin bear zan, fubolean, fuboliñean, damas, ajedrez eta pin-pon, beste askoren artean; eta -nola ez?-eskolako notak eta puntuak balio zuten. Ni oso trebea nintzan, batez ere pilotan. Onenakin jokutzen nuen; fubolean, atea zaintzen bikain ere; eta eskuzko joko oietan zer esanik ez. Adibidez, damas eta ajedrez. Oietan oso bizkorra

nintzan. Eta, len esan detan bezela, azkenean irabazten zuenak lau bat illabete jo ta ke ibilita, sariak izaten ziran denendako.

Badakit, baita ere, kursoaren bukaeran, urtero eskursioa egiten zala mutiko denen artean. Gogoan dauzkat bat edo beste: Arantzazura bein baño geiagotan; Loiolara ere bai; Irun eta Ondarrabira ere bai; eta beste batean Lekeitio ta Bermeora ere fan giñan.

Ontaz aparte ere, izaten genduen beste aukera bat: Don Santiago apaiz jauna, kolejioko kapillan meza ematen zuena, eta baita Patrizio Etxeberriaren etxeko kapillan ere.

Esaten asi naizen bezela, urtean zear, Don Santiago apezpa pasatzen zan klase denetatik liburu batetik irakurriz denen aurrean bein bakarrik; eta gero guk, bakotxak bere etxean, al dan obekiena, arek irakuritakoa idatzi egin bearra genduen. Klase bakoitzetik amarren bat artuko zituen. Gogoratzen naiz nola sartu nintzan lendabizikotatik urte batean, eta nola esan zidaten denen aurrean Don Santiagok berak neri –erderaz mintzatzen zan, naiz euskeraz jakin–:

–Begira: Garziandiak naiko dotore egin du.

Azkenean, den-dena errepasatu ondoren, utsak edo faltak korrejititu, eta Don Santiagorekin ere eskursio bikaña egiña naiz. Jakiña, eskerrak Don Patrizio Etxeberriari. Onek den-dena ordaintzen omen zuen.

Aurrerago esan bezela, etxean bezela egon nintzan Larrea familiarekin iru bat urte edo ola. Gero naiko gaizki ibildu nintzan. Lena, amarekin biak etxea billatzen or eta emen. Azkenean billatu genduen: Lizarragako famili bat izan zan. Oso onak aiek ere nerekin.

Lo egiten nuen bakarrik, eta otordu guziak Patrizio Etxeberriaren *hospedería* batean. Bazituen garai artan iru

edo lau. Eztakit zenbat denbora egon nintzan Lizarragako famili orrekin; baña ortik ere alde egin bear izan nuen beste etxe batera, lo egitera bakarrik.

Gogoan det ama eta ni nola ibildu giñan ate joka leku batean eta bestean ere. Ama erdi negarrez. Baña munduan esaten dute jende ona ere badagoela, eta alaxe izan zan.

Azkeneko etxeaz, lotara bakarrik faten nintzan artaz, ez naiz aztuko bereala-berealakoan. Nikolasa zuen izena, eta illa dala entzun det. Ogi puska baño obea zan emakumea.

Aideak eta erritarrak ere bizi ziran Legazpin orduan, bat baño geiago. Baña etzuen erakutsi iñork neretzat errukirik eta laguntzarik.

Bukatu ziran azkenean neretzako buruausteak; baña nenbillen bezela eta nengoen posturan, lo leku batean eta jan bestean, gora eta bera egun guztian.

Aztu baño len eta bitxikeri bezela, azkeneko urtean kolejoan egiten ziguten esamiña bat, bakotxak bereganatzeko *Certificado de Estudios Primarios*. Gaizki ulerturen bat euki nuen nik egunarekin. Etorri nintzan, bai, esamiña egitera; baña egun bat edo bi aurrerago egin omen zuten. Nere pena izan zan. Esamiña etzan izaten batere gogorra; eta orregatik *hermanoak* eman zidaten *certificadoa* batere esamiñik egin gabe.

Lanean

Kolejotik atera ta urte ortan bertan, asi nintzan Patri-zioren fabrikan lanean. Amazazpi urte eskas neuzkan 1963-garren urtean. Iru millatik gora langille egongo ziran ni asi nintzanean lanean. Ikusgarria izaten zan nolako jende-pillak biltzen giñan sarreretan eta irteerakoan.

Bi urte edo ola egin nituen asieran eman zidaten lantokian. Lena pintxe bezela, jakiña. Lana naiko polita zan, garbia eta ariña. Gogoratzen naiz ongi nere lendabiko illa-beteko soldataz: iru milla t'erdi pezeta.

Lanean asterako zorrak neuzkan eginda batari eta beste-ari ere. Aundiak etziran, baña zorra beti zor. Azkar ordaindu nituen, eta asi zan nere bizia bide zuzenetik eta illunetik aurrera egiten edo ateratzen beingoz.

Esan bezela lentxeago, bi urte pasatu nituen lena eman zidaten lantoki ortan. Oso gustora, egia esateko, baña nere biotzak esaten zidan zerbait ikasi bear nuela, ofizioaren bat alegia, eta nere erabaki ortan etzan sartu iñor ere, naiz eta ikusi anka nola nauken.

Pentsatu eta egin egin nuen. *Jefe de personal*-arengana fan nintzan aldaketa eskatzera, esanez ikasi nai nuela ofizioaren bat, eta ala izan zan.

Aldaketa etzan nolanaikoa izan: fabrikako pabelloi oberena. Ajustajea asi nintzan umil eta poleki-poleki. Asiera batean, makina txiki batekin: *fresadora copiadora*. Eskuz egin bear zan lana, baña bere koxka bazeukan, lan guziak bezela.

Urte asko ta asko egin nituen orrela, geroen eta geroen obetuz, jakiña. Azkenean lan zaillenak ematen zizkidaten.

Ortik urte gutxi garreneko, ekarri zuten makina bat aundi xamarra: *fresadora copiadora automática*, iru pieza batera egiten zituena. Makina ortan asteko eskeintza egin zidaten, eta nere erantzuna baiezkoa izan zan. Nola ez? Orrelako aukerak gutxi izaten dira bizi osoan.

Makina ortan egin nituen, lanari erabat utzi arte, urte franko. Oso gustora nenbillen, eta eskua ongi naukan artuta. Geienetan, kotxeendako egiten nituen piezak, naiz denetik egin nezakean.

Baña, esan bezela, kotheen piezak zeukaten *prioridad*; pieza auek garrantzi aundia zuten, batez ere neurrian. Neurri azpitik etzuten balio; eta neurritik gora, bi dezima baño geiago ezin utzi. Al baldin bazan, utzi bear zenduen dezimaren barruan. Esan bezela, garrantzi aundiko piezak ziran.

Makiña bat milla pieza egin ditut. Auskalo zenbat! Ia beti kalibrea eskuan ibili bear nuen. Automotikoa jarrita, egun askotan. Eguerdian eta arratsaldean ere, ni etxera eta makina martxan uzten nuen, pasadan egon ezkerro; eta ederki egiten zuen lana, bakarrik ere.

Or egin nituen, makina ortan, nere azkeneko lanak fabrikari. Sortu ziran gero makina modernoagoak, aurreatuagoak alegia. Baña dena sortu zan batera, eta jende asko eta asko sobran giñan. Kili-kolo asi zan fabrika; jendea bota edo kendu nai zuten ala-ola jubilazioarekin. Dirua emanda beste batzuk. Egia esanda, asi ziran jendea zirikatzen, eta ni tartean nintzala.

Lantokitik beste batera aldatuz, txarrera jakiña. Dirua eskeintzen orrela asi ziran, esan bezela, jendearekin, eta nerekin ere bai. Batzuek dirua artu zuten bakarrik; beste batzuk, urteekin aurrera zijoztenak, jubilatatu egin ziran.

Beste batzuk, nere kasoan bezela, *invalidez* eskatu genduen. Eman zidaten, baña txikiena; eunetik berrogei ta amabost. Orrekin batera, dirua eman zidaten. Eta orrela konformatu bearra zegoen.

Fan eta etorri

Ogei urte ola nituela, erosi nuen *vespa* motorra, jakinda eta ikusita nola nauken ezkerreko anka. Baña, alaz guztiz eta dena, naiko ongi moldatzen nintzan, eta mese-de ederra egin ere.

Amar bat urte, gutxienez, iraun zidan. Makiña bat buelta egin ditut Lizarrusti eta Etxegarateko puertoetan fan eta etorri, gora eta bera. Otz bikañak ere jaso ditut bein baño geiagotan.

Gogoratzen naiz, bein batean eguraldi naiko kaskarra zegoen. Euria botatzen zuen Legazpin, atera nintzanean etxera bidean. Naiz bideak garbirik egon, basoak zuri agertzen ziran elurrez. Etxegaraten, erditik gora eldu nintzan ongi, eta alako batean izugarritzko kotxe-pilla eta kamioi, denak baztarrean geldirik.

Poliziak bazebiltzan pilla bat gora eta bera, jendeari esanez bidea itxita zegoela, alegia kamioi bat zearka jarri zala bide osoan eta etzegoala pasatzerik. Ni orduan, bi aldiz pentsatu gabe, itzuli egin nintzan berriz Legazpira, eta asmatu egin nuen lepo-lepotik: urrengo egunetan elurte bikaña egin zuen.

Geienetan astero etortzen nintzan etxera. Eguraldi oso txarra egin bear zuen, ni Legazpin gelditzeko.

Motorrarekin asi baño len, trenean eta *Bergaresa*-n ibiltzen nintzan, beste langille batzuekin batera. Gogoratzen naiz lanean asitako lendabiziko urte aietan trenean etortzen giñala Etxarriko estaziora; eta, ortik asita, askotan

oñez, Utzubargo basotik barna, nola etortzen giñan ni eta beste batzuk erriraño. Gero poleki-poleki asi giñan tasis bat artzen.

Gogoan det, baita ere, beste urte batean eguraldi oso txarra zegoela. Elurra dexente egin zuen, eta kotxea etzan etorri gure billa. Bost edo sei lagun giñan. Gu goizeko seietarako jaitsi ta prest geunden kotxeari; baña, ez etortzean, oñez jaitsi giñan Unanutik asi ta Etxarriko estaziora, bidez bide, elur artean. Paliza bikaña artu nuen nik beintzat.

Nerekin batera izandu ziranak auetxek dira: Dorrauko Patxi Zurginēnekoa, Donbixeneko Migel, Jose Juanbenitoren; eta Unanutik, Urkieneko Jenaro eta Berastaneko Eujenio.

Esan bezela aurrerago, amar bat urte edo bearbada geiago egin nituen motorrarekin; eta, motorra kendu bezin laister, kotxea erosi nuen. Or bai, badago alde nabarmena, batean ibili edo bestean ibili; eta neretzako besteentzako baño geiago. Eta kotxearekin ere berdin: or ibildu naiz sekulako urte-mordoa, fan eta etorri.

Jaungoikoari eskerrak, ez det artu sekula min larririk bide oietan. Erorketak beti izaten dira eta izan nituen. Baña, esan bezela, larririk ez. Eta kotxearekin oraindik gutxiago. Alde ortatik ikusita, ezta gutxi.

Pentsatzen asita nere buruarekin, nola eraman ninduten mutikotan Legazpira eskolara, gero urte pilla bat bertan lanean igaro, nik, egia esateko, bide onetik jokatu detala uste det, eta alde ona ateratzen diot neuk ere.

Unanun gelditu banintz, zer izango nintzan? Zer egingo nuen? Auskalo! Orrek eztauka erantzunik, eta ezer esatekorik gutxiago.

Baña begiak ikusi alde guzietara ikusten dute; eta nere kasoan, nola neukan anka alde batetik, eta gero baita ere

Barrankako zuloan zer zegoen urte aietan lanarekin eta abar, esan leike asmatu egin genduela, Don Manuelen bitartez asita eta gero nere etxeoak lagunduta.

Orregatik eta denengatik pozez eta arro nago, artu zuten erabakiaz.



Lizarragako erria.

Bukaera

Gazte atera nintzan etxetik eskola pixka bat ikasteko, Geta naiko gazte asi nintzan lanean; eta bai ere naiko gazte utzi arazi egin zidaten nenbillen lantokia. Nere borondatez etzan, jakiña, eta ez neri bakarrik ere. beste askori baizik.

Baña badakizute, irakurleok, nere egoera. Zentzuz pentsatu bearra zegoen egoerari irtenbide bat emateko eta alaxe egin nuen. Errukirik etzegoen iñorentzako. Banituen orduan ogei ta amaika urte lanean...

Baña oso gaizki asi zan jartzen gauza, eta neretzako geiago, dakizuten bezela. Azkenean, konponbide batera etorri giñan alde bietatik; obeki esanda, konformidade batera.

Diruaz ez naiz mintzatuko, mundu ontan naiz orrek agindu, baña konpondu den-dena ez. Adibidez, bati eman eun eta ezta konformatzen; eta beste bati eman erdia eta konformatu egiten da. Orregatik, gure bizitzan eta munduan gauza aundienetako bat konformidadea da, eta nik uste ori badetala. Eta ia ordu ezkeroztik Iruñan bizi naiz.

Galdetzen zidan medikuak, laguntzen ibili zanak papel eta beste guziak egiten jubilatzeke:

–Eta gero zer egin bear dek, ain gazte oraindik?

Egia da, bizimodua guztiz aldatzen da denean. Eskerak eskola dexentea bagenduela, Legazpin bertan, daki-zuten bezela, lanean asi baño len ikasia; eta egia da esaten dutena: sekula edo bein ere ez duela lekurik betetzen lendik ikasiak.

Beste gauza bat ikaragarri gustatzen zait, eta ia txikitik asita, eta antziñako liburu zarrak irakurtzea da, batez ere *historiakoak* badira. Oso gustokoak ditut, eta or ibiltzen naiz artxiboetan, batean ez bada bestean.

Au izan da nere amets bat egi biurtu dana. Egia esateko, azkenean lortu det. Zenbat inbidi eta pena pasatu det nere denboran, beste batzuk arlo ortan zebiltzanak ikusita eta ni ezin!

Ez badakizute, orain esan dizuet ni zergatik nabillen liburu zar oiei autsak kentzen. Egia esan, oso gustora, bizi ontan ez baitago gauza oberik, gustatzen zaizun gauza bat egitea baño.

Ia milla eta lareungarren urtetik ona, den-dena dago idatzita. Ni, egia esan, Unanukoa bakarrik ari naiz begiratzen oso sendo, eta Dorrau eta Lizarraga zerbait; eta tartean dirala Sakanako erri geienak ere.

Numismatika ere gustokoa det. Badira emen ere urte batzuk diru edo txanpon zarrak aldatzen ditudala lagunekin, eta orain ere noizbeinka biltzen gera Iruñako Gaztelu Plazaren arkupeetan.

Mundua ikusteaz gain, nere eguneroko bizia auxe da: irakurri, margotu, azken aldi ontan utsik egin gabe egunero artxibora eta azkeneko asmoa liburu bat idatzi, naiz eta naiko zalla izan alde batetik neretzako eta gero zailtasunak ere agertzen diralako arlo onetan, batez ere euskeraz.

Esaera zar bat bada mundu osoan: gizonak iru gauza egin bear omen ditu bizi ontan: landare bat aldatu, ume bat euki eta liburu bat idatzi.

Lenengoarengandik asita, esan bearra dauket, landare edo arbolak, nai dezuten bezela, aldatu egin ditutela, nai aña ez baño. Bigarrenari elduz, seme bat eukitzea, naiko zalla ikusten det, eziñezkoa eztago ezer ere baño. Eta iru-

garrena eta azkena, liburu bat idaztea, naiko zalla au ere. Baña pentsatzen jarrita nere buruarekin, onela esan nuan: «Zergatik ez?».

Eskolarekin ez gabilta oso aurrean; baña, ala eta guztiz, aurrera egin diot ilusio aundiarekin eta asmo onarekin; eta biotzak esaten ditena egi biurtzea nai nuke.

Batzuentzako aspergarri bezela izango dala iduritzen zait neroni ere, oitura gora eta oitura bera, olga bat dala eta beste olga bat dala. Baña biziak aurrera egin bezela, belau-naldi berriak sortzen dira; eta auek, ziur nago garai bateko Unanuko oitura zarrak eta makiña bat olga, ez dituztela bein ere aditu; eta gustokoak izatea espero det.

Bukatzeko, jendeari aurretik nai det, min egin badiot, zerbaitetan uts edo min egin badet barkazio eskatzen diotala. Nere asmoa ezta izan ori, baizik alderantziz. Eta beste gañerakoak, atsegin artzen badezute nere pasadizo eta kontakizun auekin, alde aurretik ere milla esker.

Ilusio aundia izanen da neretzako argitaratzen danean liburu au. Ni, egia esan, ez nabil dirutxo bat ateratzeko nere lan ontatik, baizik-eta barruko senak eskatu didalako.

Eta, bukatzeko, naiz azkeneko urte auetan arreman gutxi euki ditudan erriko goraberakin, nere asmoa eta naia beti izan da erria eta erriko baztarrak txukun eta dotore ikustea, eta ortarako beti prest nago.

Nere buruan asmo batzuk baditut, eta mintzatu ere egin naiz agintariekin. Etzidaten aurpegi txarra jarri, esanez bearbada urte batzuk joango dirala, asmo oiek gordin samar daudelako oraindik...

Txoko bat badago nere biotzean, eta nere antziñako pasadizo guzti-guztiak ortxe gordetzen ditut, baña ori ezta ateratzen nolana, baizik berriz gogoratuz eta argira ekarriz. Eta orixe da liburu ontan egin nai izan detana.

Geigarriak

Artxiboetako paper zaarretatik

1 756 errian, Unanuko auzoan batzarre egiñez, jaun aue-
txek bildu ziran (Archivo General de Navarra,
n.º. 21292):

«Gabriel Aldaburu, Regidor, Jph. Erdocia, Bartolomé de Igoa, Lázaro de Unanua, Martín de Lacunza, Matheo de Sola, Joanes de Mercero, Miguel de Aldaburu, Martín de Arza, Fernando de Aizcorbe, Joanez de Urquizu, Martín de Aldaburu, Joanes de Barrena (Casa Vicario), Joanes de Aldaburu, Miguel de Perugoicoa, Damián de Mendive, Miguel Pérez de Gorricho, Martín de Ezquerria, Martín de Mozo, Joanes de Lezaun, Miguel Senar, Miguel Mozo, Phelipe de Arbizu, Andrés Gorricho, Martín Aldaburu, Fermín Navarro, Juan de Mercero, Juan de Arbizu».

Auek guziok baiezkoa eman zuten, ona zertarako:

«Para nombrar presbítero a Dn. Miguel Antonio Aldaburu, natural de Unanua, de la parroquia de Echarri Aranaz».

Eta berriz ere agertzen dira:

«Juan de Aldaburu, Martín de Miranda, Pedro de Larraza, Gabriel Aldaburu, Jph. de Galarza, Pedro Mozo, Juan de Mercero, vecino de Unanua, Juan de Lizarraga, Miguel de Lizarraga, Christóbal de Lizarraga, Juan Martín Martínez de Larraza, vecino de Unanua, Andrés de Unanua, Bernardo Huarte de Arruazu, vecino de Unanua, Juan de Adrián, Pedro de Larraza, vecino de Unanua, Andrés de Huarte, Jph. de Erdocia, Jph. Antonio de Erdocia, de Echarri Aranaz, vecino de Unanua».

Ona 1796-gn urtean zenbat jende bizi zan iru errietan:

Lizarraga: 355 bizi-lagun.

Dorrau: 205 bizi-lagun.

Unanua: 319 bizi-lagun

Obras en la iglesia de Unanua (A/19-34, Año 1843)

Bear izan omen ziran irurogei idi-pare, egurra ekartze-ko andamioetarako. Eta irurogei idi-pare oiek ibili omen ziran bi edo iru egunez arria ekartzen inguruko arrobieta-tik (*canteras de la Comunidad, pasaderas y cruceros*) obra berrientzako.

Iru zurgin zortzi egunez ibili omen ziran andamioak jartzen; sei argiñek, berrogei egunetarako lana; beste zortzi pion morteroa eta arriak ematen obrara; amabi gurdi galziña bere arearekin. Obraren kostea: amar milla erreal.

C/ 89-203, año 1862: 1861-garren urtean, oraindik elizki-zunak egiten ziran iru ermitatan: *San Andrés apóstol, Nuestra Señora de los Dolores, San Buenaventura*.

C/ 66-131, 1915: urte ontan saldu egin omen zuten Mundiñanoko retablo bat.

C/ 314-22, 1928: Mundiñanoko Dolorosako ermita ia-ia erabat erre omen zan Abuztuaren 7-an, 1928-garren urtean. Arbizuko gizonen batek eman omen zion ibintzi edo *rastrojo*-ari su, arriskua ikusi gabe; eta orrela erre omen zan Mundiñanoko eliza.

Apez-etxea erre egin omen zan, baita ere, 1927-garren urtean, Martxoaren 21-ean: Bere baratza ederra (*prado o campo parroquial* erderaz) bazeukan, eta baita ere ezker-eskubi bi patio, lareun metro gutxi gora-beera. Bi leku oietan leenago etxe-bizitzak ziran.

Parrokiako artxiboa ere galdu zan su ortan erreta, len-txeagoa esan deten bezela, 1927-garren urtean.

Elizari itsatsita ba omen zan etxe bat, Gurutzekoa izena zeukana, eta bere nagusia Modesto Igoa zan, Zabalanekoa; eta, diotenez, ortik asi omen zan sua, eta orrekin batera apez-etxea ere, erre egin zan. Geroago elizak erosi omen zion Modesto Igoari terreno ori, lareun pezeta ordainduz.

C/ 127-220, 1936: 1936-garren urtean, Unanuko erriak bazituen berrogei ta zortzi famili.

C/ 193-180, 1947: 1947-garren urtean, Unanuko erriak, auzoan batzarre egiñez, erabaki zuen ezkil berria jartzea erriaren kontura; ezkillaren pisua 735 kilo, ezkil zarra lertuta eta autsita zegoalako.

C/ 2260, nº 2, 1768: *cofradía del glorioso San Andrés apóstol, fundada en la basílica de Unanua (solían ser 50 cofrades).*

Batzarrean bildu ziranak:

«Gabriel de Aldaburu, Andrés de Huarte, Juanes de Marín, Jph. de Erdocia, Jph. de Barrena, Martín Lorenzo de Aldaburu, Juan de Igoa, Phelipe de Zaldua, Martín de Lopetegui, Francisco de Juanto, Marcos de Aldaburu, Juan de Huarte, Jph. de Gorricho, Jph. de Galarza, Jph. de Huarte, Carlos de Igoa, Joanes de Gorricho, Antonio de Garralda, Pedro de Galarza, Miguel de Olasagarre, Fernando de Aizcorbe, Juan de Ezquerria, Martín de Huarte, Damián de Torrano, Daniel de Fernandino, Antonio de Barrena, Andrés de Barrena, Phelipe de Arbizu, Pedro Martín de Larraza, Pedro Miguel de Huarte, Juan Martín de Echeverría».

C/ 2804-4, 1802: Don Juan Martin de Echeverria-k, bertako semea eta parroko zegoala bertan, auxe egiten omen zien neskato gazteei:

«que zurraba con azotes a las niñas, haciéndoles levantar las sayas». (Esto dice también el párroco de Torrano y Miguel Aldaburu, vecino de Unanua). Como testigos: D. Francisco Larraza, vicario, Martín José Larraza, José Miranda, Martín José Huarte, Martina Marín, Ana Micaela de Berástegui, Fermín Gorricho).

Neskatoen izenak:

«María Bautista de Fernandino, 15 urte; M^a Isabel de Barrena, 15 urte; M^a Francisca de Berástegui; M^a Gracia de Larraza, 13 urte; M^a Cathalina de Bacaicoa, 14 urte; M^a Micaela de Larraza, 11 urte».

C/2393-16, 1799: Nombramiento de un tonsurado en la persona de Dn. Juan Martín Echeverría, vecino y natural de Unanua. Botoa eman zutenen izena eta etxea:

«Cecilia de Barrena, Joseph Navarro, Bicariozarranecobecoa; Martín Aldaburu, Zabalanecoa; Fermin Arbizu, Mojonecoberricoa; Andrés Barrena, Mojonecozarrecoa; Joseph de Galarza, Marigonecoa; Juan de Huarte, Sandoronecoa; Francisco Bengoechea, Danboliñenecozarrecoa; Martín de Mercero, Mariazabalanecogoicoa; Juan de Garralda, Archanecoa; Martín Bengoechea, Lizarrecoa; Pedro Miguel Martínez de Lecea, Mojonecoeheberricoa; Bartolomé de Igoa, Huar-tenecoa; Cathalina de Huarte, Cristóbal de Marín, Pascolanecoa; Martín José de Galarza, Idanecoa; Martín de Berástegui, Cathalina de Larraza, Miguelenecoa; Isabel de Erdocia, Fermín de Marín; Cristóbal de Navarro, Francisca de Galarza, Dorrobarranecoa; Juan Francisco Fernandino, M^a Martina Marín, Miguelmarinenecoa; Magdalena de Miranda, Juan Miguel de Mendibe, Errandonecoa; Jph. de Elola (maestro cerrajero), Arotzanecoa; Fermín de Torrano, Theresa de Galarza, Mariarbizunecoa; Juan de Berástegui, Magdalena de Gorri-cho, Anachorena; María Micaela de Barrena, Juan Esteban de Mendi-be, Pellonecoa; Martín José Huarte, Buruchenecoa; Juan Fermín Igoa, Heredonecoa; Juan Gorricho, Calecoa; Joseph de Aizcorbe, Berastegi-

necoberria; Cristóbal de Fernandino, Matheonecoa; José de Miranda, Sarcheneco; Gabriel de Berástegui, Berasteguinecozarra; Damián Torrano, Andreseneco; José Antonio Erdocia, Carhalina Barrena, Pelipeneco; Pedro Lorenzo de Barrena, María Huarte, Migueldemonezeco; Juan Martín de Torrano, Isabel Aldaburu, Milicoandiarena; Martín de Barrena, Juanestebaneco; Pedro Erdocia, Pascualaneco; Martín de Galarza, María Micaela Huarte, Luiseneco; Jerónimo Martínez de Lecea, María Francisca Aldaburu, Vicariozarranecogoi-co; Pedro Francisco Galarza, María Miranda, Juanesandianeco; Francisco de Ijorra, Francisca Galarza, Christobalena; Magdalena Larraza, Martín de Sola, Monchoneco; Gracia de Gorricho, Joseph de Gorricho, Licharnecogoi-co; Gracia de Mozo, Francisco de Juanto, Urquianeco; María Micaela de Marín, Fermín de Miranda, Juana-barrenecogoi-co; Juan de Fernandino, Theresa Lizarraga, Fermiñeneco; Juan de Barrena, Gracia de Martínez de Larraza, Miltoneco; Pedro Francisco Galarza, María Miranda, Angartecogoi-co».

Botazio auek egin ziran San Andres apostol basilikan, erriko eliza obretan zegoalako.

Juan Martin Echeverría (*tonsurado*), 1769-garren urtean, Martxoaren 3-an, jaioa zan Unanun.

Gurasoak: Juanes Martín Echeverría eta Cathalina Zaldua, Unanuko Etxeberriko nagusi-etxeoandreak. Aiton-amonak, aitaren aldetik: Juanes de Echeverría eta Sebastian de Arrastia (Iruñuela). Amaren aldetik: Fermin de Zaldua eta Isabela de Adrian (Torrano).

Unanuko bataio-pontea, San Pedro parrokian:

«Sotocoro, fuste cilíndrico, taza cilíndrica con la subcopa semiesférica, decorada por una figura humana, dos cuadrifolios, planta con tallos, bola y otros motivos. Taza en la que se representa una escena de Bautismo, dos figuras humanas flanqueando un sepulcro, plantas de cuatro tallos, flores, estrellas rosáceas inscriptas en círculos, un cier-

vo, dos arcos de medio punto que tienden a la herradura y dos figuras humanas.

Archivo general, n° 137 481, año 1741.

Urte oietan, gutxi gora-bera, erri bakoitzeko boltseroak ordaintzen omen zuten lau erreal, limosna bezela, San Migel Excelsis ermita ongi mantentzeko, eta baita ere Andia mendian zegoan Santa Kiteria ermita. Mandatu au bete bearra zegoan, Murillo y Belarde obispo jaunak 1727-garren urtean aginduta.

Iru egunetan egiten zituzten rogazioak; eta, esan bezala, lau erreal ordaindu, eta beste lau erreal, baita ere, prozesioan faten zan apaizari.

Irakurrita nago urte oietan, 1727 edo zerbait lentxeago, nola biltzen ziran, batzarre egiñez Unanuko errotan, Ergoienako iru erriak Etxarriekin batera, prozesioan fateko, ain zuzen, alegia, Santa Kiteria ermitara.

Apezak buru zirala, gurutzeak eta dena artuta, oso dotore faten zirala. Atzetik, berriz, jende mordoia pilla bat, ogi eta ardo naikoa eramanez. Amar kantaro ardo eramaten omen zituzten, Unanuko errotatik asita, errotariaren kontura. Tartean beste zer edo zer izango zan; eta, esan didatenez, baita txistua danboliñarekin ere.

Jendea asko ta asko biltzen zan. Bertako lurrean zegoan ermita, eta –nola ez?–, inguruko errietatik ere urbiltzen omen ziran festara. Goñi alde ortatik ere biltzen omen zan jendea.

Baña 1811-garren urtean erre egin omen zuten franzes tropak Santa Kiteria ermita. Espaiñol tropak Goñitik Ameskoara ortik pasatzen ziran; eta Santa Kiteria inguruan ortxe zan Dukesaren txabola, eta ortxe zuten armak eta *polvorín* txiki bat. Oraindik ere nabaritzen da nun

zegoan. Esan bezela, frantzesak erre zuten, baña urte batzuk lenago, Goñiko erriak jetxita omen zaukien irudia errira...

Nº 1165, año 1793, Unanua:

«El alcalde de Torrano acusa recibo de la carta de la Diputación, habiendo juntado los vecinos de Lizarraga, Torrano y Unanua, que componían el valle de Ergoyena, para dar cuenta de lo ocurrido con Juan Fermín Barrena, el cual se prestó en Lazcano, Guipúzcoa, a servir en nombre de otro, previa entrega de 100 pesos en dinero, 2 camisas, 12 pares de medias y otros 2 de zapatos, más un real diario de lo que daba el Rey». (Origen de doble folio, autorizado por el excmo. Meral (???) de Cáseda, leg. 9, carp. 25, II).

Unanua, lengua:

«En 1869, L. L. Bonaparte clasificó a su euskera en el dialecto guipuzcoano; y, dentro del mismo, en el subdialecto de Navarra y variedad de la Burunda.

Acerca de esta clasificación ha habido diversas propuestas de correcciones.

En 1970, todos sus habitantes eran vascófoconos».

11639, 1755:

«Unanoa, octubre 11 de 1755, San Andrés.

Fundación de la Cofradía del Glorioso San Andrés Apóstol, siendo la cofradía de 50 hermanos y no más».

14639, 1764:

«Remate de Candela al mejor postor, la Panadería del Pueblo, Pan de 4 robos de trigo, para el refresco el día de San Pedro, para satisfacer al pueblo por fiestas».

14631. *El molino nuevo se contruyó en el año 1743; en la parte superior había otro molino (Errotazar).*

El año 1848 se quemó la casa Concejil de Unanua y parte de la casa de Pachicorena.

Toki-izenak

Abeta; Abetako-arpea, emen makiña jendek txerriak eukitzen zituen, ezkurrara eramanda; Abrin (Lizarrustin dago, Unanuko lurretan, eta emen minak izan omen ziran garai batean).

Aingerubarga. (Barga zera da: aitzia, arkaiztegia, leku txarra, ganadua jaten-jaten joaten zan eta batzuetan erori egiten zan).

Aitzerte, Aizpibil, Akerreix (bide txar bat Beriainpuntara edo San Donatoko ermitara igotzeko. Ortik jende gutxi ibiltzen da).

Aizmakurra, ez dakit *aitz* edo *aritz* izango dan.

Aldei, Aldeizargaña, Aldeizargibela. (Aldei barga edo malda bat da).

Anboo (au, nik mapa batean ikusi detanez, Aranburu omen zan, eta Anbooko azpi alde ortan, inguruan, Gazteluzar); Anbooko-sarea (sare bat izango zan, ardiak biltzeko edo jeizteko). Anbooko zuloa. (Labe bat bezela da; eta garai batean ala izango zan bearbada).

Animazuri, Araitz-aundi (areitz aundi batzuk daude or, eta or gurutzeak egoten ziran bide ertzean, eta iru gurutze alkarren ondoan, Kalbarioak ortxe bukatzen ziralak. Erri guzia joaten zan gurutz-bidea egiñez, ni txikia nintzala, eta fan izan naiz bein baño geiagotan Kalbario santua egitera).

Arbalda, Arbalda-baztarreta, Arbalda-pokala, Arbitxixi, Areitzeta, Argellubarga, Arpelu, Arrigorri, Arriurdin

antxe dago arri ikaragarri aundi bat, urdin kolorekoa, dena oroldioz jantzita; guk bi soro txiki genituan an; Unanuko eta Dorrauko mugan dago.

Armokil-txurieta, arri-pilla batzuk.

Arrondo, Artzibita, Babatze, Basabarneta, Batzarramendi (garai batean Ergoienako iru erriak batzarrak egiten zituzten tokia, eta garai batean gurutze bat ere bazan or).

Axari-zulo: San Donatoko bargan dagoen zulo bat, axari asko ibiltzen da or lotarako.

Batxurisota, Basanbe, Bekozelai (erriaren azpiko aldean, ualdearen ondoan).

Belatzaundia (San Donatoko maldan oso goien dagoan terrenoa, oso aldapatsua eta beti belarra egoten dan tokia.

Beko-basoa, orrela esaten diogu guk Lizarrustiri.

Belatztzikia, Belatzaundiaren ondoan, erritik begiratura ezkerrean; ura ateratzen da eta aren inguruan.

Beloki (erri ondoko tontor txiki bat; lurrezkoa, zugaitz txiki batzuk badira, baña gutxi).

Beormaizagaña, goiko mendian dagoan toki bat, Andian alegia.

Beriainpunta (orixe edo, bestela, Berain du berezko izena tontor aundi hori, 1.494 metro alturakoa, naiz-eta orain askok San Donato esaten dioten, ermita dagoelako).

Berrea, Bertxara, Bidegorrigain (bide bat da, dana lur gorri-gorria; guk lur orri legarra esaten diogu.

Dermioa, Dermio txikia. Emen iturri bat dago, eta Dermio-txikiko iturria esaten diogu.

Egutera (beti eguzkia izaten dan tokia).

Elketz (Beriain azpian dagoan toki bat; an badago arri bat, eta eguzkiaren itzalak arrapatzen duanean, goizeko

amaika t´erdiak puntu-puntu izaten dira urte guzian. Orregatik, jende guzia ara begira egoten giñan, sorotik edo beste nunbaitetik, zer ordu zan jakiteko; eta Etxarriko elizarren dorrea eguzkiak edo itzalak arrapatzen zuanean, Unanutik begiratuta, arratsaldeko bost eta erdiak izaten ziran).

Elkorri (or baziran bi ola, Beko-ola eta Goiko-ola, bi sutegi, nik izagutu ez baditut ere. Lizarrustin daude).

Elorriagoa, Epertañeta, Ernaia (Ubein esaten diogun toki batean dago Ernaia; Ubein ortatik ura artuta dago erri batzuetara eramateko; eta euri asko egiten duanean, asten da, Ernaia esaten diogun toki ortan, ura botatzen).

Errapezuriko-irrista (ori leku txar bat da, aldapa aundikoa, eta mutikoak makillarekin irristaka ibiltzera ara joaten giñan).

Erreka-aundi (Ibartik dator ori, eta ualdera dijoa). Errekaleor (aurrekoaren ondoan dago).

Errotaburu (Lizarraga eta Unanuko muga-mugan dago); Errotazar (garai batean an zan errota; gero errota berria egin zuten andik urbil).

Exetokia (Beriain edo San Donatora joateko malda txarra bukatzen danean, antxe dago zelai txiki bat, eta jendea an exetu egiten da, arnasa artzeko).

Ettolaa, Etxarribide (garai bateko erregebidea Etxarrira joateko).

Famotxeta (ziur aski asieran Fagomotxeta izango zana).

Fuente Fría (putzu aundi bat dago, eta ura beti izaten da. Oso ur otza da. *Amaia* nobelan irakurrita daukadanez, ortik barrena gerra-gizonak joaten ziran Goñitik Ameskoara, eta erdian, Minkulu esaten zaion tokiaren inguruan, bada fuer-te txiki bat, Dukesaren txabola izenarekin).

Galarraga, Galtzibitz, Galtzibitz-txiki, Ganbelaneko-txuloa, Ganbeleta, Gandurdia.

Garate, Garatibel, Gazteluzar (Mundiñano aldera, or gaztelu txikiren bat omen zan, eta ango arriak Unanuko eliza aunditzeko ekarri omen zituzten).

Guarrein, Ibarra, Ikeztoi (an ikatza egiten zuten; oraindik ere lur beltz-beltza dago txondarrak egondako lekuan).

Itur-abats, Iturbeltz (Lizarrusti aldean dago); Iturburu (erriaren ondoan); eta ortik bereala Iturzar; Iturtxiki (San Donatoko bidean); Iturzabal (Mundiñanoko elizaren ondoan).

Izkueta, Izozpeta (beti izotza izaten dalako du izen ori, eta oso leku txarra da, Beriain azpian eta Huarte aldera).

Jentil-zulo: zulo bat da, San Donatoko bargan, Unanuko aldera. Ara joateko, Labittuko aldapan dagoen bide koxkor edo xenda bat da, oso medarra. Nere anai Jesus sartuta dago, baña kontu aundiz; eta jentil-zulo orri buruz ez det ezer ere ziurtatzen, baña garai batean antziñako jentillak alde ortan ere izango ziran.

Kalbariota, garai batean kalbarioak egiten ziran bidea.

Kantera, Kardela, Kisulabe (aditzera badet an laberen bat izan zala garai batean).

Labittua, paraje txarra jendea ibiltzeko, San Donaton, Unanuko aldetik.

Lamario, Lametagain, Legetzu, Leitzagoa, Lezabea (or leze edo zulo bat da).

Legargain, gure etxeko soro baten izena.

Lezebelta (emen ere lezea dago, baña oso paraje txarra, Huarte aldera dagoana. Auntzak ara sartzen ziran belarra jatera, eta gero ez aurrera eta ez atzera gelditzen

ziran, preso bertan; gero salto egiten zuten, bere burua botata. Auntzak eta ardiak ateratzera jendea barrena sartzan, soka aundi bat lotuta. Begiratzeak ere bildurra ematen duan zuloa edo gainbera).

Lezitza (Goñiko bidean lepo bat, artzai-txabolak daukena).

Lixintxorpe, Lurgazia (or lurra gazia da, eta itxita egoten da, ganadua ara joan ez dedin).

Lurgorri, Lurtxuita, Maigolezea (leze bat da au ere; arri bat bota eta andik denbora puska batera uretan eroritako edo jotako otsa ateratzen du. Orain itxita omen dago).

Maldioak (oso leku txarra da, erortzeko arriskua daukana. belarra egoten da eta ganadua an sartzen da, eta jendeak ikusi eta onela esaten... «Lenengo maldioan zegok; an ikusi diat». Edo bigarreanean edo irugarreanean. Ez dakit, ziur esateko, zenbat maldio diran, baña iru edo lau bai, gutxienez).

Mendixur (mendi tontor bat da, eta arbol txiki bat zan garai batean, eta antxe gurutze txiki bat jartzen zuten, egurrezkoa, bedeinkatua).

Mierra (oso leku txarra; xenda bat dago, Elketzara faten dana, etaazienda gorriak ara sartzen ziran poliki-poliki jaten-jaten, eta ezin buelta artu, eta makiña bat erortzen ziran).

Minkulu, Motapeta, Muskeldi, Okaneta, Ondatz (erri txiki bat izana, San Buenabentura ondoan, eta makiña bat aldiz aipatzen deguna).

Monttei, beko-basoan dagoan toki bat.

Nebera (au berezko zulo aundi bat da, ia urte guzian elurra egoten dana. Orain ez dute tapatzen eta etzaio kasorik ere egiten; baña garai batean lastoarekin-eta tapa-

tu egiten zuten, gero ospitaletara-eta ekartzeko. Saldu ere egiten zuten).

Ondatz-karrepe, Ondatzko-ganbela, Ondatz-zelaia, Orritz, Orritzko putzua (putzu bat urarekin, berezkoa, ganaduak eta piztiak edaten duten tokia, naiko arriskua-ekin).

Otsosoro (Otsarte aldean dagoan toki bat, Otsarten, Huarte eta Unanuko mugan. Or omen zan zulo bat, eta gure aurreko gizonak, garai batean, ara ekarri edo botatzen zituzten otsoak, zulora eroritakoan iltzeko. Basurdeak eta azariak ere ortik pasa bear zuten derrigor):

Ostogorri, Otsallaratzea, Otxolo, Otsarte.

Putterri (1.296 metroko Lizarrustitik Aralar aldera dagoan tontor bat da Gipuzkoa eta Nafarroako mugan esan liteke, baña Unanuko lurretan).

Peña Blanca, Andian dagoen toki bat. Orren inguruan, lezea, dolmenak eta abar dago.

Sagarminsoro (an sagar miñak izaten ziran, basoan izaten diran txiki-txiki oiek; badaukat patxaran eginda sagar miñ oiekin, orain zazpi edo zortzi urtekoa).

Sakanaundi. San Donatoko iturria: ermitatik naiko ger-tu dagoan iturri txiki bat; arri tartetik tantoka aterazen da ura eta azkar legortzen da.

San Kalistoko bizkarra (ez det entzun edo irakurri, baña baditeke an garai batean ermitaren bat izatea. Huarte eta Unanuko mugan dago, eta eiztariak ara joaten dira, uso pasa aundia izaten da eta. Nere osaba batekin an txabola eginda nago arbolan).

Sarbilla, irakurri det izen ori, eta galdetu det nun dagoen, baña iñork ez dit esan. Artzaiak bearbada jakingo dute.

Serloa, Soluzeta, Sorgin-iturri (an ura pasatzen da Arbizu aldera, eta urak ots ateratzen du, sorgiñak balira bezela. Bein batez bildur aundia pasa nuan an, anaiaren zai nengoala, gau batean).

Sotoa, Sustebe.

Tantorraundi (Huarte aldera dagoen barga-mutur bat, naiko aundia).

Txepetxaren gurutzea (len esan dedan bezela, gurutze txiki-txiki batzuk, egurrezkoak, bedeinkatuak jartzen ziran or ere; eta beste bost edo sei lekutan ere berdin, Unanuko lurretan. Gure aurrekuak esaten zutenenez, Lakuntzako gizon batek beste bati itxogin omen zion asmo txarra-ekin, eta ortxe bertan il egin omen zuen. Ortaz gain, badakigu txepetxa txori bat dala, eta garai batean bearbada inguru ortan asko izango ziran. Orregatik izango du izen ori).

Txingillagor, Txorromastia (garai batean, noiz ez dagikula, mastiak izango zirala ematen du).

Txopitxi, Txunketa, Txurittua (or jaiotzen da Unanuko ualdea, Dorrau eta Unanuko mugan, eta, len esan dedanez, amabi kilometroko bidea egiten du, Burunda ibaiarekin bildu arte).

Unanukoiria, Urketua.

Urritxabal (emen urrak izaten dira, baña asko; eta oiek biltzera jende asko joaten da. Baña toki txarra da, San Donatoko maldan).

Urtxoloixta (iturri bat da, erriaren ondoan; eta garai batean jendeak edaten zuan. Osasunerako ona zala esaten zuan. Ni ere edanda nago. Arraultz ustelen usaia du ur orrek).

Utseta (erreka dago or, eta beti ur asko jeixten da. Garai batean amorraiak ere izaten ziran).

Utzua, Utzubar, Utzubargaña.

Zaldua, Zazpiturrieta (iturri asko dan tokia, ez dakit zenbat). Ziodia.

Iztegia

(Gure errian, eta Ergoiena baillara guzian, itz asko erabiltzen dira, beste euskal lurraldeetan batere ez edo oso gutxi entzuten diranak. Orrelako batzuk, gogora etorri zaizkidanak, emen jartzen ditut, beren esan-naiarekin).

aketz: labana edo aizkora akeztu egiten da, gutxi ebakitzen duala gelditu. Gipuzkoa aldean kamutsa eta kamustu esaten dala uste det.

alkakaratz: mendi eta erreka-bazterretan izaten dan landare baten fruitua. Ontzen danean beltz-beltza jartzen da. Makiña bat jaten genituan. Erderaz: *rosal silvestre, tapaculos*.

almazai: *caballo semental*, zaldi paradakoa. Sakana guzian ala esaten dala uste det.

amimoro: beste zenbait tokitako armiarma.

amoma: armiarma-sarea, *telaraña*.

amiña: amona.

andeitza: gurdiaren punta, *timón del carro*; beste toki batzuetan *per-tika* esaten zaio, baiña ori erderatik datorrena izango da: *pértiga*.

angarte: karrika estu bati esaten diogu; ortaz gaiñera, etxe baten izena ere bai. Unanun.

angartilla: auntzak erabiltzen dituzte, belarri ondotik zintzilik, alde bakoitzetik bana.

arittua: orbela biltzeko tresna bat, eskubarea bezela, baiña txikia-goa; garai batean zurezkoak ziran, eta ortzak burnizkoak. Gero dana burnizkoa egiten asi ziran, kirtena izan ezik.

arkea: ardia arraren eske edo naian dagoanean esaten degu.

- armokilloa:** arri-pilla bat da, soro bateko arriak bilduz egiten dana; eta sarritan an egoten da urte askoan edo ia betirako.
- arpeltza:** ardi mota bat; erderaz, *oveja lacha*. Gure mendietan ori izaten da geien-geiena.
- arras gorri:** illunabarrean zerua gorri xamar ikasten danean, onela esaten degu: «Arras gorri, biar egualdi». Eguraldi ona egingo duela, alegia.
- arrija:** *arreo, dote*.
- arriolgoa:** kalejira, *pasacalle*, baña etxe berezietara joateko, bedera-tzi edo amar.
- arroxina:** erderazko *vapor, vaho*.
- artarea:** arri gorri bat, labanak, aizkora eta abar zorrozteko erabil-tzen dana.
- artxo:** ardi emea, jaio berrian; arrari, berriz, arikoa esaten diogu.
- atalaga:** etxeko ateak iru zati izaten zituen; eta bat geienean itxita egoten zan. Ori ixteko, aga edo egur bat jartzen zitzaion, punta bat ormaren zulo batean, eta bestea atean.
- atximizka:** erderazko *pellizco*. Beste zenbait tokitan, *imurtzi, atxi-mur...*
- atxukorriak:** erderazko *cosquillas*.
- auntximiak:** len, su bajuaren ondoan egoten giñanean, emakumeai batez ere, anak more-more jartzen zitzaizkion; eta oiei *auntxi-miak* esaten genien: «Pantorrilla dena auntximez beteta».
- auspela:** ospela, *sabañón*.
- bala:** bost edo sei gari, olo edo garagar ormen lotutakoa, orri esaten diogu bala. Erderaz *fajo*.
- baldarratu:** erderazko: *descomponerse*. Adibide, pixu geiegi artu eta lurrera erori.
- barga:** arkaitza edo aitza. Andimendik eta Urbasak goiko ertzean dauzkaten arkaitzei orrela esaten zaie: San Donatoko barga,

Urbasako barga... Barga-muturra, barga-ertza... Baita itxas-ertzean agertzen diran oiei ere.

bartubela: uztarriak eramaten zuten ori garai batean. Larruarekin egiña, eta or sartzen da gurdiaren andeitza edo punta.

basaloa: jateko ogia da. Arto-iriñakin egiña. *Ogi kaskaiña* esaten diogu.

basarea: *mantilla* erderaz. Txerriak, ardiak eta auntzak eukitzen dute sabelean. Ildakoan kendu egiten zaie.

baztarrekoa: su bajuari baztarrean jartzen zaion enbor aundia.

beazaña: beazuna, *hiel*.

bentzaia: erderazko *levadura*: ogia egiterakoan, masa pixka bat gorde egiten zan, urrengo ogia egiteko bearrezkoa omen zan eta.

bienar: bidenabar, *de paso*.

bidurrak: gurdiak txarrantxetan sartuta eramaten dituen burnizko batzuk.

bikortu: artaburuari alea kendu. Beste zenbait tokitan *aletu* esaten zaiola uste det.

bilix-gorri-gorrian: erabat bilix edo larru gorrian.

bilixi: bilutsi, arropa kendua.

bioka: erderazko *potra*, urte t'erdikoa. *Beor* itzetik etorriko da.

bonbolo: euria egiten duanean, putzuetan eta ur geldietan azalean azaltzen diran borobil oiek. Umeak jaboiarekin egiten dituzte jolasteko. Erderazko *pompa*.

bonbor: arbol-ipurdi zakar bati esaten diogu. Garai batean etzan motosierrarik eta jendea burni-ziriekin aritzen giñan lertzen edo txikitzen, jo ta ke. Batzuetan ziriak ere gora saltatzen ziran.

borro: ardi-mota bat.

burkena: emakumeak buru gañean zarea eramateko, jartzen zuten trapuarekin egindako bigungarri bat borobilla; eta aren gañean emakume askok eskuarekin batere ikutu gabe eramaten zuten zazpi-edo zortzi lagunentzako bazkaria.

- burtxin:** su ekonomikoetan, batez ere, estalkia kentzeko eta brasak mugitzeko erabiltzen dan burnia.
- buzai:** erderazko *alguacil*. *Buruzagia* itzetik etorriko da.
- aida:** txerritokia, txerritegia, txerrikorta...
- eiñeztura:** *rayo* erderaz, oñazkarra, tximista... Onela esaten degu: «Asi da eiñezturaka».
- erlamiña:** listor, *avispa*.
- erlastu:** giro ona jartzen duanean.
- erleñua:** laiño itxia, beraño, lurreraño. Onela esaten degu: «Erleñua zegoan oso itxia; etzan ikusten emendik orrera». Bearbada *erri-lañua* izango da.
- ertokia:** su bajuaren goikoaldea.
- eskeia:** aukera, egokiera.
- estarbia:** guk orrela esaten diogu Gipuzkoan ukullua esaten zaionari, eta Bizkai aldean korta danari.
- Exetu:** atsedan artu. Orrela esaten degu: «Exetu egin bear degu emen. Exetu zera?». Edo bidean goazela: «Exetuko gera pixka bat?».
- falea:** besteetan txintzarri esaten zaio. Aziendari lepotik zintzilik jartzen zaiona. Batzuk bafale-kalaska dira, eta besteak alun-break; ots ezberdiña ateratzen dute.
- fan:** bestetan *joan* esaten dan bezela, Ergoienan eta bearbada Sakanan guzian *fan* esaten da.
- feixkuxa:** gizon trankil edo patxara aundiko bati onela esaten zioten: «Ik daukak feixkutxa!».
- frute:** putre, *buitre*. Erderaz *buitre leonado* esan zaionari, guk *lepa-xoildua* esaten diogu.
- gantxo:** karetxa, *verruqa*.
- gaueko iñarea:** *murciélago*.

gingirriña: su bajuan axuria edo ardia bueltak eman ez erretzeko erabiltzen dan burni luze bat, punta oso zorrotza, erre bear dana sartzeko, eta ipurdian ollar txiki bat berari erantsita, oso dotorea, zulo batzuek dituen, nai dan alturan jartzeko. Beste toki batzuetan gingirriñari *burduntzia* esaten zaiola uste det.

-gorri: *pixagorriak* eta *kakagorriak* esaten da, ori egiteko gogo aundia danean.

ibintzia: erderazko *rastrojo*.

inguraia: erderazko *guarda*.

ikertza: kaltea, erderazko *daño*. Bei bat soro edo larre batean sartu eta onela esaten zan: «Bei orrek zer ikertza egin duan!».

ikertza-zalea: bei batek egindako ikertza neurtzen zuena. Erderazko *tasador*.

ilapirua: *un pelo*. Gizon soil batengatik onela esaten da: «Orrek piru gutxi dauka».

intresia: erderazko *trillo*. Auntzia larraiflean egiten zanean erabiltzen zan.

iñarea: enara, ainara.

iñurri: karraxi, txerria iltzerakoan egiten dituen orruak,

iru-orri-belarra: *trébol*.

ispi: ori erderazko *espiá* itzetik dator. Adibidez, len mutillak, billera egiten zuten erregearen bezperan, eta mutil bat kalera edo beste etxe batera joaten zan errege-erregiñak agindutakoa ekartzera, eta aren atzetik beste bat joaten *ispi*, arek zer egiten zuen ikustera.

isutsi: garia onduta zutik zegoala, egoaizea indartsu etortzen bazan, ale asko lurrera erortzen zan. Orri esaten genion *isutsi*. Baita ere *isutsi* esaten diogu, gari edo edozein ale ereiterakoan, soro guzian eskuz botatzeari.

itsua: aunditsua, *divieso*.

- ittel:** beorra edo asto emea arraren naian dagoanean, ittel dagoala esaten degu.
- ittertu:** igertu, igartu, legortu.
- Ixein:** guk *sua piztu* esaten degu; eta *argizaria ixein, mixtua izein, argia ixein...* Baña, entzun dedanez, Bizkai aldean *ixiotu* esaten omen dute.
- ixepelatu:** zauri bat oztutakoan edo gaiztotutakoan, ixepelatu egin dala esaten degu.
- ixipua:** etxeko barruko ormak zuritzeko erabiltzen dan *brocha* aundia.
- ixtorroa:** erderazko *helecho*. Beste zenbait tokitan *garoa, iratzea* edo *ira* esaten diote.
- izpi:** izpiak esaten diegu soroan gelditzen diran galburuei, balak etxeratutakoan. Garai batez makiña bat bilduak gera eskubare aundi batekin, asi soro barrenetik eta buelta eta buelta soro guzia pasatuz. Ala ere gelditzen ziran or-emen, or-emen.
- Jaungoikoaren gerrikoa:** orrela esaten diogu Gipuzkoan *Erromako zubia* esaten zaionari. Erderazko *arco iris*.
- Jaungoikoaren txakurra:** lurrean, larretan eta belarrean, ibiltzen dan arra, kolore beltza eta berdea duana, oso polita. Guk ez giñuzkien iñola ere iltzen; pena ematen zigun.
- jaskio:** emakumeak elizan piztutzen zuten argizaia edo bildumena zumez egindako zaretxo batean eramaten zuten. Uraxe zan jaskioa.
- kalamin:** geiena baratzetako munoetan ateratzen dan landare luze bat, berde-berdea, eta prozesioa egiten zan bidean bota eta zabaltzen zana.
- kandela:** enkante, *subasta*. Kandela pixtu eta ura itzali bitartean egin bear zana. Garai batean Ergoienan oitura aundia zegoen; *remate de candela* esaten zioten.
- kaparra:** erderazko *garrapata*.

- kaporratza:** orratz aundi bat, jerseak-eta egiteko.
- karama:** belar txar bati esaten diogu. Patata edo artoa ereindako soroetan etortzen da.
- kardanbera:** belar-mota bat, zenbait gaitz sendatzeko egosita erabiltzen zana.
- karrastu:** onela esaten genuen: «Esnea karrastu egin da», pasatu alegia, edo ur biurtu.
- karrotona:** oiak aurrean eta atzean izaten duten ola.
- kartolak:** gurdiak bi baztarretan eramaten dituen ool oiei esaten diegu.
- kaspardioka:** neskak egiten zuten jolasa, begiak tapatu eta elkar ezagutu bearrez. Erderazko *a la gallinita ciega*, alegia.
- kima:** zaldiak eta beorrak lepagañean izaten duten ille luze orri esaten diogu.
- kisuskil:** beste toki askotan *igeltsero* esaten dana.
- kostoma:** erderazko *flema*.
- kurkubia:** areitzak berez ekartzen duten sagar txiki baten antzekoa, dana borobilla, iru edo lau batera. Guk aiek bildu eta olgan ibiltzen giñan. Azkueren iztegian ikusi dedanez, Bizkai aldean *kurkubio* esaten omen diote. Ameskoa aldean *kazkulubeta* esaten diote.
- kolletu:** kokildu; «aurra otz-kolletuta dago».
- leixtua:** txistua, *saliva*.
- lixuntxa:** soro, bide eta erreka baztarretan sortzen dan belar-mota bat. Usai goxoa dute. Bildu eta prozesioak pasa bear zitan karriketari botatzen zan, beste belar batzuekin batera.
- lubilla:** lurrezko bideak. Adibidez, arrizko bide txar batetik idiak bazijozen, lubil batera iritxitakoan, berak pasatzen ziran ara, iñork esan gabe.
- maizterra:** gurdiak zoruan izaten dituen bi baztarretako olak.

- malkarra:** babaren lastoa edo agotza. Auntzitutakoan, oso gustora jaten zuten neguan aziendak, tartean ale batzuk joaten baiziran.
- maltxorra:** Umerik ekartzen ez duan aziendari esaten diogu. Erderaz *machorra* esaten zaiola uste det.
- manda-belarra:** goi-mendietan izaten dan belarra. Altura dexentea du, besteen aldean, eta elurra bada ori ikusten da. Eta beorrak jan ezkerro, umea bota egiten dute.
- marruxketa:** zurgiñak erabiltzen dute erremienta bat; erderaz: *cepillo*.
- maskil:** fajo; abar meekin egiten dana, eta berdin da areitza, lizarra, makala, edo ixtorroa.
- matagiña:** letagiña, *colmillo*.
- mateia:** erderazko *pus*. Zenbait tokitan *zornea* esaten dutela uste det. Mateia ori, bearbada, erderazko *materia*-tik etorriko da.
- mingorratxa:** belar naiko miña, basoan sortzen dana.
- mulua:** erderazko *lino* da. Len Unanun asko ereiten zan. Saldu ere bai. Ni nere etxean ikusita nago. Mulu orrekin egiten zituzten oialak, makina batekin erabilia. Nik ezagutu nuan makina ori gure etxean; baña lanean ez det gogoan.
- murrilloa:** lengo ate zarrak eukitzen zuten tresna, itxi edo zabalteko. Onela esaten genduan: «Ateari bota murrilloa».
- mustilloa:** garai batean baztarretan asko ikusten zan; kaka-mokor-
do esan nai du.
- mustu:** erroa bat lenbiziko aldiz jantzi. Erderazko *estrenar*.
- mutxutxuri:** erderazko mariposa. Euskeraz izen asko ditu: *tximeleta*, *mitxirika* eta abar. Onela esaten genduan: «Asi dira mutxutxuriak».
- neskitxa:** neskatxa.
- nibirri-nabarra:** erdi-ipurdi, *regular*.
- obia:** katu-emea arraren naian dagoanean, *obia* dagoala esaten degu. Eta txakurrari ere berdin.

okakatu: eztarrian gelditu, *atragantarse*.

ollotasia: olloai alturan jartzen zaien ola, lotarako goien nai dute eta. Betik asi ta goraño beste ola bat jartzen zaie, igo ditezen. Baña batzuk egalka igotzen dira.

oolazpia: *alero*.

ormena: *gavilla*.

osazalea: *capador*. Txerriak gizentzeko, egiten zan osatu: *capar* alegia. Bai akerrak, txekorrak eta ariak ere.

otajakia: erremolatzak eta arbia puskatzeko *pala* bezelako bat, bere kirten luze batekin.

partza: erderazko *liendre*. Gure txikitan ama edo arreba zarragoak iltzen zizkiguten.

paxa: aurrei gorputzean, sabel aldean, jartzen zaien trapua, bendaren antzekoa baño lodiagoa.

paxiña: inbutu, *embudo*.

pelo: umea egindakoan, errapean beiarri jartzen zaiona, esne asko biltzen zaionean. Gogortu egiten zaio eta min ematen die.

pexkillo: pertz edo ontzi txiki bat.

pikoixta: aurpegian edo gorputzaren edozein tokitan, larruan azaltzen diran mantxa edo puntuak, illun kolorekoak.

pipiña: *vecilla*. Garian asko etortzen zan azi edo ale bat, oso beltza eta dirdiratsua.

porka: artaburuak alkarri lotu eta porka egiten zan, eta aiek eskarzetan eta ganbaretan zintzilik jartzen ziran, oso dotore ematen zutela.

porrotoa: artaburuaren ostoa, ondutakoan.

sakautsak: asarretutakoan onela esan zan: «Orri sakautsak atera bear dizkiot!». Erderazko *sacar las tripas* edo *los hígados* bezela edo antzera.

- saldoa:** guk taldea ere esaten degu: «Ori artalde bikaña!». Baiña bai saldoa ere: bei-saldoa, auntz-saldoa, ardi-saldoa, beor-saldoa...
- sanseñalea:** pikoixta baño aundiagoa; erderaz *peca*.
- satorrarena:** aziendaren min gaizto bat. Ori arrapatzen zutenak, il egiten ziran.
- segatea:** gariak lotzeko etxean bertan egiten ziran sokaren antzeko batzuk, zikirioaren lastoarekin. Eta gero, txerria iltzen zanean, bera erretzeko ongi etortzen ziran.
- sustopil:** gari-iriñarekin egindako taloak.
- tarratulua:** erderazko taladro da; eskuarekin erabiliz, zura edo zulatzen duan erremienta.
- tartara:** erdoiz jandako edo ezertarako balio ez duan burniari esaten diogu, burni mea, *hojalata*-ren antzera.
- tortika:** Adibidez, babarrunari buelta geiegi ematen bazaio, tortika egiten da, euri asko egiten duanean, lurra gelditzen dan bezela.
- trantzioa:** ganbarako toki bati esaten genion nere etxean; baño zergatik ez dakit, askori galdetu badiet ere.
- triko-triko:** norbaitek mutiko txiki bat bizkarrean eramatea, mugituz.
- txangola:** lastoa, agotza eta belarra eukitzeko tokia. Ori estarbian izaten da, baztar betean.
- txastamiña:** tarratulu txikia.
- txelatu:** norbait busti-busti egiten danean esaten da; txela-txela egin.
- txingen:** erderaz *a la pata joka*. *Txingoka* esaten da beste zenbait tokitan.
- txirimixkeri:** onela esaten da askotan: «Neri ez ibili txerrixkerietan». Txikikerietan edo uskerietan ez ibiltzeko, alegia.
- txitxirio:** erderazko *garbanzo*. Onela esaten genduan: «Gaur txitxirioak ditugu bazkaltzeko».

txoloista: ustela, galdua; orrela diogu “arraultz txoloista”; bai ere “ur txoloista” usai txarra botatzen duan urari. Len esan bezela, errian bada iturri bat olakoa, eta jendeak len edaten zuan, osasunarentzat ona zalakoan.

txongolo: txorkatilla, *tobillo*.

txortu: ogi-zatia suan txortu, su ondoan jarrita. Erderazko *tostar*, alegia. Gero baratxuriarekin igortzi eta olio pixka bat bota, eta oso goxoa da.

txutxopiko: erderazko *en cuclillas*.

txutxumutxu: izketan aopean edo orrela jardutea. Emakumeak ala ikusi eta esaten zan: «Or ari dira txutxumutxuka».

zakar-ipurdi: zabarra, arduragabea, ajolakabea.

zalia: *cazo*.

zapittela: igela, erderazko *rana*.

zerraza: zapo-mota bat, anka me eta luzeak dituen eta uraren gañean ibiltzen dana, ualde eta putzuetan.

ziordindu: jana egosi eta gero jan gabe denbora luzean egoten dana, jan leike baña gogortu egiten da. Orregatik esaten degu: «Papatak ziordindu egin dira».

zipristiñekoa: zaplastakoa, belarrondokoa, *bofetada*.

zolda: besoa edo lepoa edo dana dala denbora luzean garbitu gabe egon ezkerro, zikin orrek erderaz *costra* esaten dana sortzen du. Orixe da guretzat *zolda*.

zotol: basoan txerrientzako egiten dan txabola-modukoa

zurdel: bei eta beorrei bizkar-gañean larru azpian sartzen zaien zapo bat. Orrek odola kendu egiten die, eta mingarria zaie. Kentzen jarduten giñan.

zurrumilloa: zurrumurrua.

San Donatoren eguna festa egin bearrez

San Donato dala-ta, 1714 urteko paper zaar bat aurkitu det, santuaren eguna festa egiteko nola bildu ziran:

«Auto y voto otorgado por los Vicarios y beneficiados, ante Jurados y Vecinos de los tres lugares del Valle de Ergoyena, para guardar fiesta de precepto los días de San Adrián y San Donato. Testigos: Fermín de Jáuregui y Miguel de Marín.

En el molino llamado de Utzua, común de la Villa de Echarri Aranaz y Valle de Ergoyena, a treinta de Junio de mil setecientos y catorce, por testimonio de mí, el escno., interesados abajo nombrados parecieron presentes: Don Fermín de Artieda, Vicario de la Iglesia Parroquial del lugar de Lizarraga, Don Miguel de Adrián, Beneficiado de ella, Don Miguel de Gorricho, Vicario de la Parroquia del lugar de Torrano, Don Cristóbal de Lizarraga, su Beneficiado, Don Gabriel de Miranda, Vicario de la Parroquia del lugar de Unanoa; y Don Martín de Lacunza, su Beneficiado; Pedro Martínez de Larraza, teniente alcalde, Joseph de Amezttoy, alcalde y juez ordinario por su Majd., de la dicha Valle de Ergoyena, ausente al presente de ella, Gabriel de Aldaburu y Miguel de Jáuregui, Rejidores del dicho lugar de Lizarraga, Diego Martínez de Larraza, Pedro de Jáuregui, Juanes de Miranda, Juanes de Peruzurguin, Pedro de Araña, Juanes de Urdinarán, Jph. de Urdinarán, Baltasar de Gorricho, Juanes de Urquizu mayor, Miguel Ezquer, Miguel de Lacunza, Domingo de Marín, Simón de Urquizu, Francisco de Guillén, Juanes de Urquizu menor, Luis de Sola, Pedro de Adrián mayor, Fausto Guillén, Pedro de Erdocia mayor, Joseph Martínez de Larraza, Joseph de Barrena, Pedro de

Ijurco, Luis de Jaúregui, Fermín Martínez de Larraza, Bartolomé Martínez de Larraza, Luis de Barrena, Joseph de Barrena, Francisco de Sola, Joseph de Ascardia, Juanes Martínez de Larraza, Bartolomé de Adrián, Juanes de Senar, Juanes de Amezttoy, todos vecinos del dicho lugar de Lizarraga; Martín de Lizarraga, Rejidor del dicho lugar de Torrano, Pedro Martínez de Larraza, Fermín de Marín, Pedro de Huarte, Luis de Mozo, Miguel de Lizarraga, Jerónimo Martínez de Larraza, Pedro Navarro, Fermín de Zaldua, Cristóbal de Juan López, Martín de Ademe, Martín de Huarte, Miguel de Mozo, Luis de Gorricho, Pedro de Lizarraga, Martín de Lizarraga, Esteban de Barrena, Martín de Adrián, Cristóbal de Lizarraga, Cristóbal de Marín, Juanes de Torrano, Miguel Goicoa, Martín de Aguerre, Pedro de Zaldua, Fermín Navarro, Phelipe de Aldaia, Juanes de Urdinarán, Andrés de Lizarraga, todos vecinos del dicho lugar de Torrano; Juanes de Barrena, Rejidor del dicho lugar de Unanua, Juanes de Aldaburu, Juan Ascensio de Mendive, Martín de Pedrosa, Miguel Pérez de Gorricho, Martín de Miranda, Andrés de Aldaburu, Joseph de Mozo, Pedro de Huarte, Juanes de Villanueva, Jacobe de Mendive, Juanes de Galarza, Agustín de Huarte, Miguel Senar, Damián de Torrano, García de Lacunza, Martín de Berástegui, Juanes de Arza, Andrés de Unanoa, Hernando de Galarza, Fermín de Sola, Melchor de Aldaburu, todos vecinos del dicho lugar de Unanoa, y todos arriba nombrados la mayor parte de los vecinos de dichos tres lugares de que se compone dicho Valle de Ergoyena, Concejo habientes y celebrantes en debida forma, dijeron que en la jurisdicción de dicho Valle hay dos ermitas, una de San Adrián mártir y otra de San Donato mártir, y teniendo presente los muchos Beneficios que han logrado de su divina Maj. en las necesidades que han tenido de serenidad de tiempo y otras urgentes, habiendo recurrido a pedir a Dios por intercesión de dichos Santos mártires, acordaron unam. y conformes, de guardar fiesta de precepto los días de dichos Santos mártires, que se celebran el de San Adrián a diez y seis de Junio, y el de San Donato a siete de Agosto, y para conseguir esto acudieron al Excmo. Señor Don Pedro de Agua-

do, obispo de este obispado de Pamplona, a pedir su licencia para hacer este voto solemne, y por su decreto de diez del presente mes y año, estando en Visita en la Villa de Echarri Aranaz, expidió dicha licencia a favor de los Constituyentes, como parece de ella refrendada por Félix de Irigoyen, notario que queda con este autoconvenio por + en las Copias que dieren de él; y los Constituyentes, permaneciendo en su buen deseo y unión, desde luego en la mejor vía y modo que haya lugar en dichos, por este auto y su tenor reducen su voto a este mi mant. solemnemente, instituyendo por fiestas de guardar inviolablemente los referidos días de los Santos mártires San Adrián y San Donato, y prestando su consentimiento por sí y por todos los demás vecinos, Habitantes y moradores de dichos tres lugares presentes, y para observar y guardar por tales fiestas de precepto los dos mencionados ni que les quede recurso de poder alterar ni innovar en manera alguna. pero de estar de lo contrario sujetos a la disposición de la Santa Madre Iglesia sin repugnancia alguna, y de lo así guardar y observar inviolablemente, los constituyentes se obligan en forma debida de dichos; y así lo otorgaron y requirieron a mí el dicho escno. asiente de sobre dicho auto... lo hice así... Testigos: Miguel Marín, del lugar de Lizarraga, y Fermín de Jáuregui, natural del mismo, el dicho escno. en fe de ello y poder de conozco a todos = no valga lo borrado = Juanes de Marín = An = buc = br = y valga lo sobre puesto = Vicarios y Beneficiados.

Visto esteal y en atención a lo que se nos representa, damos facultad a lostes para que los días de los Santos mártires San Donato y San Adrián guarden fiesta de precepto y hagan auto y voto de ello como lo ofrecen; total que lo referido sea solo en aumento de la veneración de dichos Santos y sin que se haga comidas ni excesos algunos, con aperebimiento que si así no lo hicieren serán castigados con todo vigor. Lease = sn = sea. Pedro, obispo de Pamplona».

Excmo. Señor: Los Vicarios de las Parroquiales de los tres lugares de Lizarraga, Torrano y Unanoa, de que se compone el Valle de Ergoyena, sus beneficiados y los alcaldes y vecinos y Concejo de la dicha

Valle, dicen que por particular devoción que tienen a los Santos Mártires San Adrián y San Donato, que hay ermitas en su jurisdicción, desean solemnizar y tener en sus días fiesta, en atención a los grandes beneficios que por su intercesión han logrado de su divina Mag. y están y conformes en hacer este voto y reducirlo».

Aurkibidea

Itzaurrea	7
Asierakoa	13
Ergoienako baillara	15
Urte Berri	21
Elurra	23
Errege-bezpera	25
Olga eta lan	29
Auntza, antxumeak eta otsoa	31
Astoa, zakurra, katua eta oillarra	33
Iru txerrikumeak	35
Ez-izenak	37
Eskola	38
Beste olga batzuk	40
Txerri iltzea	44
Garizuma, Aste Santua, Pazko	47
Meza nagusia	49
Su bajuaren bueltan	52
Momoxarro txikien eguna	54
Momoxarro aundien eguna	57
Mutuak eta boteroa	59
Katolak	66
Azienda	68
Aldaketa	70
Festa-giroa	71
Komediak	74

Aurrerapenak	79
Ogia, sardin zarrak eta utsuala	81
Mutikoen olgak	83
Zizak	87
Karrikak	89
Eskola berriak	91
Omenaldia	93
Udaberriko oitura batzuk	95
San Juan sua	100
Erriko festak	101
Arriolgoa	103
Errolda	106
Laugarren festa eguna	109
Saltzalleak eta kanta zaar bat	111
Auntziak larrañan	115
Igarira	119
Ibintzeak	121
Olarekin goitik bera	123
Fruta-ostutzea	125
San Donato eguna	127
San Mielen bisita	129
Ezkontza-arrija gurdian	133
Txabolak	134
Txirrin koxketan	136
Gantza-kentzallea	138
Ikusi-makusi, zer ikusi	139
Etxarrira festetara	140
Ezkillak eta zinea	142
Langostak eta amurraiak	144
Julio Etxarrikoaren autoa	145
Montejurrara moto <i>vespa</i> -rekin	147

Udazkena	149
Artoa zuritzen sukaldean	151
Udaletxea nun?	152
Erriko antziñako iturria	154
Ondatz, Montañano, Unanu	156
San Andresak	161
Negua	164
Gabonak errian	166
Gabon-gaua etxean	170
Nere aurtzaroa	172
Legazpira eskolara	178
Lanean	185
Fan eta etorri	188
Bukaera	191

Geigarriak

Artxiboetako paper zaarretatik	197
Toki-izenak	205
Iztegia	213
San Donatoren eguna festa egin bearrez	225

Auspoaren azken liburuak:

- 279 Inozentzio Olea
Ostiraleko kronika II
- 280 "Ataño"
Markesgaiak. Dirua jainko
- 281 Antonio Zavala
Estropadak bertsoan
- 282 J.M. Iriondo
Segi, Mugartegi
- 283 R. Iraola
Nañarriri begira
- 284 Ramon Artola
Sagardoaren graziya II
- 285 Leon Albeniz "Iruntxiberrri"
Nere berriketa eta aitortza
- 286 Ramos Azkarate
Galtzaundi berriz ere (I)
- 287 Ramos Azkarate
Galtzaundi berriz ere (II)
- 288 Pedro Juan Etxamendy
California'ko bertsolari eta musikari
- 289 Jose Agustin Garziandia
Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak



Liburu onek, bere izenburuak dionez, Unanu erriko *oiturak eta olgak* azaltzen dizkigu. Unanu erria Naparroan dago, Ergoienako baillaran, euskeraren muga-mugan.

Oiturak eta olgak: iñauteriak, katola eta momoxarroekin; erriko festak, basoko eta soroetako lanak; San Migel aingerua eta San Donatoko ermita; ipuiak eta kantikak; erriko festak eta mutikoen biurrikeriak; Gabon gaua eta Urte Berria, Lizarraga eta Dorrau auzo-erriak...

Ortaz gaiñera, Naparroako txoko ikusgarri ortako euskera eskeintzen digu, euskal erri jator orri gure literaturaren eremuan leku emanik.

Era ontako lanak nundik datozen denok dakigu: egilleak bere jaioterriari dion maitasunetik. Maitasuna da ordura arte ezertxo ere idatzi ez duenari liburu oso bat osatzeraiño lana arrezazten diona. Maitasuna da liburuaren orrialde guzietan nabari dana, baratz batean lore-usaia bezela.

Eta irakurleak liburu ontatik aterako duana ere ori bera da: ordura arte ezagutzen etzuan erria maitatzen astea, orrialde auen lillura biotzeraiño sartuko zaio eta. Ederra litzake Euskal Erriko txoko guziak era ontako liburu bana balute...



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

ISBN 84-7907-455-8



9 788479 074555